

Jules Moulier, «Oxobi»

**LAN ORHOITGARRI
ZONBAIT**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, Jules Moulier
Oxobi. Cordeliers, 1966

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00380.htm>

MENDIZ MENDI

SANTA BARBARATIK

Arrangoitzetik Arruntzarakoan
San Senekoitz ez da hain gora;
Mendiska hori —nork daki noiz danik?—
deitzen dugu Santa Barbara;
Gain hortan luzaz etxe bat izan da
Patroin berezia nun ohora;
Uztaritztarrek Amerikak egin
eta lurrerat utzi kapera,
eta lurrerat utzi kapera.

Argi zen batez, itzalpez itzalpe,
Santa Barbara dut kurritu;
Haur kozkor batek, ardien ondotik,
bazuen oihu eta hixtu;
Izerdi gutiz, kaskorat heldua,
inguruer so nintzen gelditu:
Sekula norbeit loriatu bada,
ni han nintzela ba loriatu,
ni han nintzela ba loriatu.

Baigurak utzi arteka batetik
Orhi han urrun ageri da...
Neure begiek, edergailu gose,
badute bazter norat alda;
Santa Barbara, beharrean balitz,
norat liteke botzik hegaldar?
Zinez uste dut, hauta lezakela
egoitza eder luken Garralda,
egoitza eder luken Garralda.

Uztaritzeko auzapez maitea,
barkhaturen dauztatzu bi hitz:
Biltzar-hiriak fama hitsa luke
Santa Barbara galtzen balitz;
San Senekoitzen, bihotz altxagarri,
kaperaño bat egizu berriz;
Ene othoitzaren hortan baita dena,
behar bezala diot: Halabiz,
behar bezala diot: Halabiz!

MENDI SAINDUAK

Mendia lakhet zautan gazte nitzelarik;
Mendirat ezin igan, orai ez ahalik;
Bainan ez nago behin, zahartua gatik,
Mendiaren ederra zer den ahantzirik.

Egunak eta gauak elgar hilez kurri;
Mendia mendi dago zahar bezain berri:
Urhez lehen agurra iguzkiak horri,
Zilharreriz izarrak horren aphaingarri.

* * *

Testament Zaharrean ikasirik nago,
Lurra dena zuela uholdeak itho;
Deus etzela bizirik nehun gehiago
Noeren itsas-etxe zabaletik kanpo.

Eginxea zutela basurek aldia:
Urtso batek mokoan aldaxka guria;
Noeri dirdiratu zitzaion begia,
Horra, horra nun zuen *Ararat* mendia.

Gizonentzat Legea, zuzen eta garbi,
Jainkoak zuenean egin izan nahi,
Bera eta Moise nun ziren ibili?
Sekulakotz famatu mendia: *Sinai!*

Irakaspenik ez da, hala diraukunik,
Gizonaren bihotza hala jo duenik,
Nola baita Jesusek, mendirat iganik,
Eman [hitzaldi hura]: ez daite berdinik.

Ai *Golgotha* mendiska, mendi gaixtoena!
Bainan hor duzu, Jesus, garbitu hobena,
Hor daukuzu erosi gure zoriona...
Kurutzedun *Golgotha*, mendirik lehena!

Mendiaren zabala, mendiaren gora!
Hurbil hakio bada —hi, gizon— ondora.
Ez dezakek, erradak, oraino gogora
Nori eskerrak eman eta nor adora?

* * *

Garda-seme naiz eta, barkamendu beraz,
Menditar gaizo aurthen nola bainintzen jaz;
Gauaz ametsetarik, halaber egunaz,
Gogo-bihotzak alhan mendiaren onaz.

GARIKOITZ HAURRAREN AMETSA

Ardi-bidexkaz, mendia goiti, artzain haurra, norat hoa?
Noren ondotik habila kexu, zeri eman duk gogoa?
Goregi ez joan; ileak harro, tzarreen baita hegoa;
Xahu hintazke, mendi-gainerat lehert baladi lanhoa!

Hego xuria! Iraun dezake. Gora dabilta hedoiak.
Harrokak irriz iguzkiari; itzal eder amoztoiak;
Haurra badoa. Haizearekin baderama goiko deiak.
Bi hegal handi balitu bere, oi nola baititu saiak!

Badoa bethi, gelditu gabe, goitiago lasterrago,
Mendi-kaskorat eta Zerua dena lore baita gero,
Hura du nahi artzain gazteak, harat du behar egun jo!
Aingeruekin izarretan da Jaunaren muthil egongo.

Garakotxeko Migel gaixoa etzen heldu aski gora;
Loak hartua, zanp erori zen arbola baten ondora.
Han zuen laster, usnara jina, bere «panpi» artzain-hora;
Bainan gau hartan Gaziana bat jeiki zela maiz leihora.

Ardi zoroek, beren artzaina hor ez ikustearekin,
Etzela ere «panpi» ageri, jauzi ta saingaka, samin,
Haizetik maldan errekalderat zuten orok laster egin.

.....
Lo zagon Migel, zeruraturik ametsaren hegalekin.

Goiz gorhailerat iratzartzean, haur gaixoaren beldurra!
Loriatua erausi goxoz hari zitzaion xakurra;
Bainan ardiak nun othe ditu? Jesus, hauxe da makhurra!
Eta etxean, zertan ahal den amaren bihotz samurra!

Daukat Jainkoak Migel zuela mendi hartan zinez deithu;
Guk ezin asmatuzko xedeak gure Jainkoak baititu;
Berak baitaki nola behar den othe gaixtoa lilitu,
Eta nolako dohain argiez artzain-muthil bat argitu.

Garakotx semek, langile khartsu, beharko du gaztaroan,
Etxeko lanaz bertze lan bati esku eta gogo eman;
Bertze mendirik kurrituko du apezgoko artzaingoa,
Ardi galduen biltzera bethi zerurateko bidean.

Laurhogoi eta lau urthe badu zendu zela lbartarra;
Betharrameko mendian bada geroztik hobi ederra;
Eta Zeruan —haur bat zelarik ametstuaren zuhurra!—
Migel Saindua dago ukhanik Saindu lagunena agurra.

.....

Hirien hiri den Erromatik heldua zauku berria:
Garikoitz dela bethiereko dohatsuekin jarria.
Izkilek arin kanta zazue dei bihotz-altxagarria:
Migel Saindua, gure Saindua, begira Eskual-herria!

HARPEKO SAINDUA

Bidarrain gora Harpeko Saindu, saindu izenik gabea,
Miriku jaunek ezin usmatu sendagailuen jabea.
Entzunak entzun, bethi nindagon: saindurik hor bizi dea?
Jakin beharrez egin izan dut harperainoko bidea,
Baitakit orai zoin gaitzikor den horko barbera gordea.

Gure Jainkoak baxharrik daki noizpeit gerthatuen berri:
Baztango urak zer aro moldez abiatu ziren kurri;
Noiztik Erratzu eta Bidarrairen eskual auzo herri;
Nola Saindu bat harpe batean bilhakatua den harri;
Harria bera, bi mila sorgin! noiz danik dagon ithurri.

Zeruan izar, lurrean belhar, itsaso zabalean ur;
Harpeko saindu famatuari nik behin bethikotz agur;
Ez dezaket ez, askok bezala, esker onik horri bihur;
San Thomas nuen beilari lagun: kukuak jo zautan makhur;
Etxerakoan minez ai-ei-ka nindabilala niz segur.

ITHURRI HOTX

Nork erranen daut hoin gora nundik
sortzen den ur hotx garbia?
Egunaz irriz, iguzki mirail,
gauean izar-begia,
Harrok' artean ez dakiela
nolakoa den lohia,
Botzik ikharan berekin baitu
zeru ederren argia!

Haur gireno gu, garbitasunez,
mendiko ura iduri;
Argitan gauzkan argi baxharra
Jainkoak emana guri.
Ezin dirauke iguzki onak
egun eta gau nehorri;
Ilhunpez ginen, aro gaixtoan,
ihiztokarat erori.

EGURGI

Mendi zolan Beherrobi,
Gorago nunbait Egurgi;

Garaztar artzain xotilak harat heltzean izerdi,
Nafarrorik ez, bainan, urak dira garbi.

Errekan arraina merke,
Bil-errex amurik gabe;

Madalenako horiek garizumen begirale,
Pazko aintzin ditutzu Egurgin errege.

Orduan ez nintzen lotsa,
Luzexago nuen hatsa,

Iguzkitarat halere hurri neraman urhatsa;
Bordetarat orduko, goxo zen arratsa.

Mugaz axola gaberik,
Harrien bi aldetarik,

Ardi, behiek, pottokek, alhan badabiltzalarik,
Ez dute Jainkoaren legeaz bertzerik.

Uharte, bizi zirea?

Zertan duzu arthaldea?

Garruze Pelegrinean axuririk sortu dea?

Orbaizetako maldak han baitaude beha...

AXULAI

Elhorri xuri baten itzalpe garbian,
Goroldiz aphainduzko harrien azpian,
Ura sortu zen behin Axulai mendian,
Hoin argirik ez baitzen Lapurdi guzian.

Elhorri xuriaren lilien erdian,
Argizko urak bethe ithurri hegian,
Lili bat agertu zen Axulai mendian;
Ederragorik ez da Goiko Jauregian.

Andre Dena Mariak beretu mendia,
Ainhoko edergailu, Axulai handia,
Gainez gain ager-azu kapera xuria;
Gure Ama onaren egoitza garbia.

Haurren begiek maite amaren begia,
Baitakite nun duten zeruko argia;
Axulaiko menditik, Birjina Maria,
Begira zazu bethi zure den Herria.

Mendekoste arratsez Ainhoko izkilak
Botzik airean dauzka baserri hurbilak;
Goizik oherat eta goizik jeik, mutilak,
Bihar gu nahi gaitik Axulako beilak.

* * *

Astelehen goizeko loredun kapera;
Osteka beilariak othoitzena gora;
Eskualdunekin nahas hiritar sobera,
Nago zer derasaten ahotik ahora.

Frantximent hoiek egun egin itzulia:
Nun zuten ikusiko zerbait komedia;
Holakoen kapera: (xuhur da mendia)
Opoka, Buxeria eta Ponpelia!

Beila hori nik ere askotan dut egin
Ez behar bezalako khar sailduarekin;
Lagunak eta nihaur xori-buru arin...
Amari huts eginik orai dut bihotz-min.

* * *

Axulaiko Andere, Birjina Maria,
Ahantz, othoi, lehengo ene haurkeria.
Bihotzez diot egun, Artizar garbia:
Zu ganat bida-zazu Eskual-gazteria!

DORRE MENDI

Mendiska bat baizik ez, bainan famaz handi
Donamartiritarrek duten Dorre Mendi:
Kanpoz bertze larregain guziak iduri,
Barnea, urhe-zilhar, laminen Jauregi.

Ba ahal dakizue nor ziren laminak:
Iguzkiaren etsai, debruxka higuinak,
Dena gaixtakeria, sorgin beltz, ohoinak,
Bainan, obrak lekuko, hargintzan harginak.

Dorre Mendiko barnek ez dute parerik;
Erroman ez Parisen ez da Jauretzerik
Holako edergailu zaharrez betherik,
Milaka urthe baitu zaudela gorderik.

Gaua beltzago eta laminentzat hobe,
Gauaren bidez dira indar gaitzen jabe;
Iguzkitarat aldiz ahalik deus gabe,
Argiko sartu behar ilhunbez-ilhunbe.

Mendiko leizetarat gizon bat zen jautsi;
Athe-zain laminari gakoa ebatsi;
Laminek zutenean argia ikusi,
Osinetan barnago joan ziren ihesi.

URTSOTEGIAK

Urriak urhez lazterrik aphaindurik,
Hego-deiari mendiak hurbildurik,
 Arthaldeak jautsi dire bortutik,
 Urtsoak agertu iphar aldetik,
Neguko pazketarat abiaturik.

Urtso gaixoak, zonbat errekontru tzar...
Egin beharko duzuen bide-nabar!
 Egun, airos eta hegalez hazkar,
 Zalhu bazoazte sustatuz elgar;
Ihiztari gaixtoen saretan bihar.

Bertsulariek, gazte nintzen urthetan,
Urtsoa zuten aiphatzen kantoretan,
 Maiteari egin paraboletan,
 Gogo-bihotzak hegaldun airetan;
Urtsoez orai tratu merkatuetan.

Artizarraren begiaren ezitia,
Iratzartzera doanean mendia.
 Urtsotegi: deithura egokia,
 Ederrez gezurra balitz egia;
Hobi bat, bertzerik ez urtsotegia!

Ozkixen gaindi ala Suhuskunetik,
Sarako mugaz edo Lephederretik,
 Urtsoek ez gehiago biderik
 Ihiztarien sare gabekorik;
Moltsa jori duenak urtso janen dik!

Urria urhez, berunezko hazila,
Ene lagunak zahartu ni bezala;
 Petik gora labur gure ahala,
 Ordokian ere behar makhila;
Urtsoekin gazteak josta ditela!

MENDIRAKO BIDEAN

Eskual-herrian ostaler guti, ostalertsia gehiago;
Emaztearen eskuetan den ostalua garbiago;
Bazterrek dir-dir argi dezaten etxekandre pruntta bego,
Bere jaun lodi puska bezala baso husten ez baitago.

Iguzkitarat Maiatza jeiki, elhurrak urthu mendian;
Negu tzarraren uztar gaixtoak akabo dire agian!
Gure artzainak bortuko bider lotzerat orai abian;
Bainan joan aintzin eginen dute ohiko besta herrian.

Egarri, gose, huna nun giren: arratsalde on, Kattalin!
Zure senharra fleitean denetz nahi ginuke ba jakin;
Ase on baten orhoitzapena ereman ere gurekin;
Pagamenduaz, gasna duguno, ez odol gaixtorik egin.

Bortz ilabetez, mahaina xuhur, etzangia taula gogor,
Beren mendian biziko dira gure harrabotseri gor;
Erretirako balinbada gaur edale bezenbat moxkor,
Ez du ez bihar buruko minak gibelaraziko nehor.

Gutarteraino, jo eskuin ezker, udan arrotzak ibilki;
Ostalertsaren ezpain ederrek guzier irri gozoki;
Paristarrekin senharra baino etxekandrea hobeki,
Hunek erdara, bai uste nuke, Parisko modan baitaki.

Ostalertsaren alaba horrek badu sobera urgulu:
Amak hain untsa daukan etxea etzaio aski gaztelu!
Sasoin bezenbat gizon-gai berri, bethi dena mirakulu!
Xuhurra luke bere senhartzat artzain on bat hartzen balu!

MENDI-MENDIAN

Uztailaz mendi-mendian
Pago batzuen azpian
Daukadan borda ttipian
Ametsak doaz argian...

Eskual-herriko mendi nasaia! Aberats, garbi, gozoak!
Egunaz gure gerizak eta gauaz izarren auzoak...
Orai hor gaindi gogotik alhan badabiltz ardi multzoak,
Orduan jasan hatz on ederrik badauka zuen altzoak...

* * *

Xut Altabizkar! Xut Ibañeta! Mendi hoik mintza balite,
Zer erasiak!... Aita zaharrek egin lanak baitazkite...
—Badator ere mendian izotz, iguzki, elhur, eurite,
Dugun zin zinez atxik orduko gudukarien egite!

Entzun-arazten badu norbeitek azkoner idi-adarra,
Gogoratzen zaut hiltzean Rolan gaitzak igorri deidarra.
—Ethorri ziren: begietarik zariotela pindarra;
Bainan mendiek, gure mendiek erhautsi heien indarra!

Ethorri ziren... Zertarat othe? Zerbeit beharrez ebatsi...
Karlos Handiak nahi zituen gure zedarriak hautsi!
Harroka gaitzak, haritz-ondoak zitzaizkon gainerat jautsi,
Eta mendian zer zezaketen Eskualdunek erakutsi.

Ordu danik hor berme ditugu gaizo lagun on mendiak,
Goiz diuela gozo-gozoki perekatzen iguzkiak...
—Hits girenean, mendi hoier so ditzagun atxik begiak,
Bihotzeraino zauzku sarturen orhoipengarri handiak!

Ditaken jende ahaldunenak behar nahi-t-ez itzalak:
Mertxikak duen mami goxoa kirets ezartzen azalak!
...Aldapa gora zalu badabiltz azti-sorginen aztalak:
Zorigaitz! Orai Akerrak dauzka eskualdun mendi zabalak.

Akelarre da! Sorginek piztu dituzte mendian suak!
—Eskual-herritar zonbat ez du jo debruak erain kutsuak!
Zahar gazteak han biltzen dire: guziak berdinitsuak!
Oi! Pitz balite hobietarik Eskualdun hil Dohatsuak!

Han erabili lohikeriak ez ditut erran behar, ez...
...Lamiñak arin zerura doaz inguratuak izarrez;
Zeruan aldiz Eskual-herriko zaharrak daude nigarrez.
Gauaz ikaran dago Mundarrain orhoiturik Akelarrez.

* * *

Artzainarentzat udan goxo da pago nasaien itzala,
Bainan horra gaur, sorginek egin bilkuez orhoit naizela
Durduzadurak non hartu nuen hobendun banintz bezala!
—Sorginak pues! Akelarretik Jinkoak beira gitzala!

* * *

Uztailaz mendi gainean,
Nere bordaren athean,
Ilhargi xuri denean,
Ametsak doaz airean...

Izarrek irriz argitzen dute gauaren ixiltasuna;
Haize goxoak, erainez gure bulharretan osasuna,
Jauz-arazten du laparrek lotu ardien ile leguna...
Guardak ihesiz dabilzantentzat orai da hasten eguna!

Oren ezta... Oren xuria... lokaturik harrabotsak,
Harrok' artetan elgartu dire multzoka xori belatsak,
—Mutil gazteek ez ezagutzen gogamen gaixto kiretsak:
Sarri artino bordan dituzte bakarrik utzi bildotsak...

Argizariak distiran dauzka [zoin] ikusgarri bazterrak;
Zilarrezkoa dirudi hantxet han Axulaiko kaperak,
Nundik baititiu, bethi bihozdu, gerizatzen Ama berak
Dantxariatik Mugarreraino Lapurtar herri ederrak.

Agur Axulai! Hire oinetan sortu duk Harrazpi zena,
Horko Birjinak gazte-gazterik beretu baitzuen dena...
—Barka zadazu? Hor nitaz orhoit zaiten, Ama gozoena,
Nik ere behin zure soinean lotu dut ene izena!

Baiura! Zonbat aldiz Otxaldek igan ditu zure maldak,
Gogoia bethi zabal, erne, xut, ukurtuz ere sorbaldak!
Gorderik uzkur zauden Bidarrain nexka-mutiko xoraldak
Eta gu gaitu berotzen orain' Otxalde zenaren kaldak!

Zaldubi zela, diote berriz, urez Alduden arrailtzen,
Han zituela koplak mendian aingirak bezala biltzen...
Erramouspe 're menditik urrun ez da gogotik ibiltzen:
Bankan boz dago: kantuz, kantuz, hots! ez da sekulan
ixiltzen.

Dibarrart ez da burlaka bethi ari mahatsen erditik.
Artzain gaizoak dagozinean irrintzinaka menditik,
Ez... gibel-aldez gora berak maiz edan ddu xirripakotik,
Izpegin barna bazoalarik epher zonbaiten ondotik!

Biriatutik Senpereraino Larhun ondoan dageri:
Bertsulariak herri hoitan ez dire zintzurretik eri:
Lekuon', Ostiz et'Irabola, Milox, Leiza, 'ta Laztirri...
Haukien gana dathorla nahi duenak onts' egin irri!

* * *

Oi ba, mendiek dituzte hazten bertsularien gogoak!
Mendi gainerat ez ditazke hel arrotz gaixtoen haroak.
Mendi-mendian eskuak garbi daude, bihotzak osoak...
Mendier buruz zer dezake 're hasarrean itsasoak?

* * *

Eskual-herriko zazpi ahizpek baituzte beren mendiak:
Orduan, gudu-toki bortitzak; egun, loredun eztiak...
Uztaritzen ta Logroñon gaindi erre zituzten aztiak...
Sorgin bilkuren orde noiz nahi ditugu beila handiak.

Boz nagolarik mendi guzietan bihotzez agur diotet...
Menditarra naiz, eta jakinez laguner erran dezaket:
Orhin sortu den xori garbia Orhin baizik ez da laket.
Jainkoak egin bagaitu «Kadet» gauden sor-herrian
«Kadet»!

Huna zer duten hirian:
Espantu frango mihian...
Ardi bildotsen erdian,
Kantuz nabila mendian!...

NOLA GAUDEN ESQUALDUN

Pastorala

Egile guziak heltzen dira teatroaren aintzinerat eta dantza jauziak emanez igaiten gainerat. Dantza jauziak: Pesta Berrietakoak.

Itzuli batzu eginik, gehienak atheratzen dira. Bakharrik hor gelditzen dira: Piarreño, predikua eman behar duena; Ganxume eta Mañex bi lagunak, hauk Benabarreko Bolantak bezala bezti, buruan bonetak lorez eta girgileriaz aphainduak.

Teatrorat igaitekoa Kristoal hots-emailea, beltzez bezti, xamarra soinean, eta trebeska zinta gorri bat.

Teatro-pean, gordetzen balire bezala: Adarbeltz, Gibelgorri, Galtzagorri, Tartaro, maskaradetako satanak bezala beti.

LEHEN PREDIKUA

Piarreñok kantatzen du lehen predikua. Eskuin eta ezker ditu Ganxume eta Mañex, bandera bana eskuetan.

Hauiek erabiltzen dituzte banderak, kobla bakotxaren ondotik, soinuak jo arau.

Anartean, Kristobal teatroari hurbildu da «kahiera» eta «kraion» handi bat eskuetan. Piarreñori hots ematen dio.

Jainkoak arratsalde on,
Jaun, andere maiteak;
Ongi-ethorri guzier,
Zahar eta gazteak.

Erranen dautzuet orai
Zer egin gogo dugun;
Ikusiko baituzue
Nola gauden eskualdun.

Larrun inguruetako
Kondaira ederrena
Agertu nahi ginuke
Ahalik xuxenena.

Ait-et-amez gabeturik
Gelditu zen Xalbador,
Aberats gaixtoen muthil
Nigarrez baitzagon hor.

Ohartu ginenean gu
Xalbadorren nigarrez,
Ahalak egin gintuen
Esku eman beharrez.

Guk ahalak ttipi, bainan
Baginuen nahia,
Gure Lagun agertu zen
Andre Dena Maria.

Zorionean jeikirik,
Xalbador badabila
Sokhorrin dugun Amari
Eskerrak diozkala.

Barkatu, Jaun-andereak,
Ixiltzera banoa,
Lagunek ager dezaten
Gure ixtorioa.

Piarreño, Ganxume eta Mañex jalitzen dira eskuineko aldetik.

Kristoal (norbeit dela?) igaiten da teatrorat. Pupunak eta Mainerrek ezartzen dituzte gibelean kadira bat eta mahaintto bat; mahainaren gainean, behar direnak irakurtzeko eta izkiriatzeko. Kristoal jartzen da (norbeit dela!)



ADARBELTZ

Herri huntako ume zirtzilak
Eliza-xori arrunt ergelak.
Tra lera lera
Tra la lera la, la lera lera
Tralala.

GIBELGORRI

Herri huntako mutil astoak
Astoak baino astoagoak
Tra lera lera...

GALTZAGORRI

Herri huntako haur mukuzuak
Apez sinhesle gaixo zozuak
Tra lera lera...

TARTARO

Herri huntako gazte krapautak
Ora pro nobis erraile hautak
Tra lera lera...

LAUAK

Ta, ta, ta, ta!

*Lauak igaiten dira, hasarre, dena jestu, oi-hu-
ka, orroaz. Jestu berak, orro berak.*

ADARBELTZ

Ez dik hunek iraunen.

GIBELGORRI

Laneko gituk hemen.

GALTZAGORRI

Hea, lehen-bai-lehen.

TARTARO

Guretzat dukek Amen.

LAUAK

Bai, bai, bai, bai!

Atheratzen dira ezkerreko aldetik. Teatroaren ezkerreko hegian den debruak derabiltza eskuak eta zangoak sekulako jestuetan.

Sartzen dira Mattin eta Battitta; ondotik Ganxume eta Mañex, soinuarekin guziak, jauziak emanaz.

GANXUME

Zer bizzate goxoa deramagun, Mattin;
Behar ditugunak ba, gure aitamekin,
Jan, edan, ongi josta, eskolarat arin,
Ohe xuri batean, gau oroz lo egin!

MATTIN

Eta pesta handiez ez duk deus aiphatzen,
Eguerri, Trufania zoin ederrak diren!

MANEX

Ba eta Pesta-Berri orotarik lehen!
Orduan gure amek gaitizkek apaintzen,
Aingeruak iduri baigituk agertzen...

BATTITA

Gu bezain ongi denik ez duk Donibanen.

PIARREÑO

Aufi! Aufi!
Ez eta Bordalen!
Ez eta Parisen!

Bortzek jauzi eta dantza.

MATTIN

Ogi meta gaineko xoriak gu, zinez,
Eta Xalbador, hortxet, ezin bizi, minez.

MANEX

Urrikaltzeko duk, ba, umexurx gaixoa,
Ez baitu guk duguna: etxeko goxoa.

BATTITA

Aitarik, amarik ez, horren zorigaitza!
Iguzkirik sekulan, bethi gau hotz, beltza.

GANXUME

Haur bat duk, gu bezala, eta bethi hari
Sabelkoien komisak manatu lanari.

MANEX

A! Xalbador gaixoa! Sabelkoien muthil,
Jauregiko langile, jaterat ezin bil.

MATTIN

Astelegun, igande, bethi kantu bera:
Sabelkoitarrak goiti, Xalbador behera.

BATTITA

Nola ez du Jainkoak Sabelkoi tzar hori
Ifernuko laberat oraino igorri?

PIARREÑO

Holakorik, Battitta, etzakala erran!
Jainkoaren begia bazagok orotan:
Jakinen dit Jainkoak, behar den orduan,
Xalbador gaixoari zer laguntza eman.

MATTIN

Ederki, Piarreño! Ez gaiten hola har...
Jainkoak zakik xuxen nor den on, nor den
tzar.

MANEX

Hots, Xalbador dugula salbatu nahiko,
Eman ditzagun orai zenbait dantza-piko!

*Xalbador erdiko athetik agertzen da. So trix-
te bat egiten diote Piarreño eta dantzan ari diren
bertze laguneri. Artzain soinekoetan da. Arthalde
bat badu: ardi eta bildots jostagailuzkoak. Alhan
uzten ditu Pupuna eta Mainerrek hedatu duten
alegiatzko pentze batean. Bera jartzen da lurrean
eta dolugarrizko kantu bat emaiten du.*

XALBADOR

Ekhaitz-pean xoria dabila
Hegalik ez balu bezala;
Sasiz-sasi ezinez hegald
Gosez, hotzez abantzu hila;
Bere kanta dezan xaramela,
Ai, ei, ai, ei, horri ez galda!
Jainko maiteak zergatik ditu
Ait-et-ama zerurat deithu?
Lurrean zertako naiz gelditu?
Mina baizik ez dut jastatu!
Sortuz geroz, pausurik ez hartu,
Ai, ei, nehork ez nu maitatu.

Apalxago, nekez, lokhartzera doala...

Ene bilha, zu zatozkit, ama
Lotseriak... ni... bainerama...

Adarbeltz agertzen da ezkerreko aldetik. Jauzika, kheinuka badabila Xalbador lokhartuaren inguruan. Bethi jauzika hari dela, kantu bat emaiten du.

ADARBELTZ

Adarbeltz duk lagun on bat
Ethorria hire ganat,
Ditukan penen,
Nahigabeen
Airean aire khentzerat;
Hemendik goiti, Xalbador,
Ez izan beraz lotsakor.

Ezkerretik badoa.

Gibelgorrien aldi. Gisa berean.

GIBELGORRI

Gibelgorri duk ethorri
Arpegia pozez gorri.
Nahi ditiat,
Gerrenean plat
Hire jabeak igorri
Heieri beraz, Xalbador,
Etzakala eman amor.

GALTZAGORRI

Hemen nuk ni Galtzagorri
Umexurxen jostagarri...

Apezak sinets,
Zeruan amets,
Eta hi nigar ithurri...
Apezari zer diok zor?
Enekin haugi, Xalbador...

TARTARO

Kurri zabilak, Tartaro,
Behin ez hotz, bethi bero;
Gosez hik: ai, ai!
Asez nik: jai, jai!
Nola orai, hala gero.
Iratzar hadi, Xalbador,
Sabelkoiri egin gogor!

LAUAK

Izan hadi gure lagun,
Eginen duk trikun-trakun;
Egonez alfer,
Ebatsiz bertzer
Badukek aberastasun.
Nagusirik ez duk nehor,
Hire jabe haiz, Xalbador!



Musika. Sabelkoien azken haurraren bathaioa da. Zer nahi jende. Lehenik Zirikando bere xapel eta mustatxa handiekin, makhila bat eskuan. Gero aitabitxi-amabitxiak irri-egingarri. Ondotik amañoa, haurra besoetan Sabelkoi eta Sabelkina besoz beso, gibeletik dituztela Sinkulin, Xanfarin eta Ganxior, hiru seme-alabak... Sekulako haurreria, lasterka eta oihuka.

HAUR BATEK

Aitabitxik ez dirurik,
Haurrak ez dikek bururik.

BERTZE BATEK

Aitabitxiren zikoitza,
Haurraren gelan zithoitza.

BERTZE BATEK

Marabedi, marabedi,
Haurra girixtino bedi.

BERTZE BATEK

Jaun erretora hortako,
Gu karamelen jateko.

Aitabitxik aurthikitzen du ahurtara bat karamel. Hurrek oihuka laster egiten dute bonbonen biltzeko. Itzulipurdika dabilta, pestaliarren zangoen artetik, aitatxi, amatxi, amañoa bera erortzer baitira. Zirikandok fueratzen ditu haurrak makil ukaldika.

Haur batek, eskuan duen karamel bat erakutsiz:

Arri, arri, Zirikando,
Ez dautzut nik hau emango!

Pupunak eta Mariderrek mahaina ezarri dute bazkariko. Mahainaren inguruan, jarri baino lehen, kantu bat emaien dute:

Altissimo Dios
Ya véis a nosotros
Regalados hijos...

Bendigámos a vos
Por qué si estamos
Buenos cristianos
Y grande patronos
Méjores que todos...

Denbora berean lau satanak debrukerian ari dira gordezka. Mahainetik lurrerat pastiza puska eror-arazi dute. Xalbador ohartu da pastiza pus-kari. Gose da. Hartuko du. Nehork ez duelakon ikusten, ukurtzen da, besoa luzatzen du bixkotxa biltzeko. Bainan Zinkulin, Xafarin, Gantxior ohar-tzen zaizko eta hiruek jauzi egiten diote gaine-rat, oihuka:

Le polisson!
Le voleur!
Sale petit basque!

Zirikandok zoko batetarat igortzen du Xalba-dor makil ukaldika.

Jan-edan eta, pestaliarrak badoatzi, sartu ziren bezala. Xalbador gelditzen da bakharrik teatro gainean.

*Sartzen da Piarreño, ametsetarik bezala
dagon Xalbadorri diola:*

PIARREÑO

Bethi penetan Xalbador,
Eta lagunik ez nehor.

XALBADOR

Aitarik ez, amarik ez,
Banabilak auhen-minez.
Ait-et-ama galdu aintzin,
Barnea ez nian berdin;
Gogo-bihotzak nintikan
Onaren onez argitan.

Eta zer on duket bihar?
Lehen irri, orai nigar,
Piarreño, hi, hain ona,
Erradak nun dutan ama,
Aira nadin haren gana,
Khen dezadan ene zama.

PIARREÑO

Hire ama duk zeruan,

Bere korona buruan;
Bainan handik ezin ethor
Besarka dezan Xalbador.

Ama bat baduk hobeia,
Delakotz itzalgabea,
Hura duk Ama Birjina
Zeru-lurren Erregina.

XALBADOR

Ama hori hurbil dea?
Eta ikus ditakea?
Zerura zitakek igan,
Ene ama mintza dezan?

PIARREÑO

Ezagutzen duk Sokorri?
Hantxe zagok Ama hori.
Sinets nezak, hireari
Helduko dik hire berri.

XALBADOR

Traba bat badiat hemen...
(erhiez bulharrak hunkitzen ditu)

Ah!... Goazin lehen bai lehen.

Atheratzen dira.



Pupuna eta Mariderrek kaperaño bat ezarri dute teatroaren erdian. Soinuak jotzen du. Proosinoa agertzen da. Lau hurrek dakharte Sokorriko Ama Birjina sorbalden gainean. Lehen-lehenik Jon-Doni Mikael arkanjelua; ondotik Aingeruak; gero dantzariak; haur multxo bat eta bertze. Lauek ezartzen dute irudia kapera barnean, arrosa aurthikitzen hari direlarik aingeruak eta haurrak. Dantzariak beren dantzak eman ondoan, guziak badoatzi ethorri bezala.

Piarreño eta Xalbador agertzen dira, kapera ondoan, bonetak eskuan.

XALBADOR

Zoin ederra den! Zoin ezti eta garbi duen arpegia!

Begietarik, ezpainetarik badariola irria,

Iduri baitu zinez gurekin dela mintzatu
nahia.

Ba, Piarreño, Ama Birjinaz erran derautak
egia.

PIARREÑO

Hemen Sokorrin gaituk, Xalbador,
Sokorriko Anderea

Hi bezalako haur onentzat duk
maitetasunez bethea.

Hitarik urrun haiza-zak othoi hi baithan
den herabea.

Amen Amari, laño-lañoa, egizok hire
galdea.

XALBADOR

O Piarreño, lagun maitea, enetzat hi
mintza hadi.

Zerutik ama, etxeko hura, hunat orai
jauts baladi,

Ezin nezokek, naizen heinean, hitz
bakhar bat erran hari.

Nundik nahi duk mintza nadien Andre
Dena Mariari?

*Belhauniko erortzen da Piarreño, tente dago-
larik Xalbador, Ama Birjinari beha.*

PIARREÑO

Amen Ama hoberena,
Xalbador ene laguna
Burhasorik gabe dena
Ethorria da zu gana.

Nahi luke zerbait erran
Bere berri zuri eman;
Ikusten duzu ikharan,
Herabeak nola daukan.

Ez dezakea zu ganik
Ardiets behar duenik?

XALBADOR

Ikusi duk? Ukhurturik,
Eztiki baietz erran dik!

Orduan erortzen da belhauniko, Piarreñoren ondoan, eta bi eskuak elgarri, ikharan, hasten da:

Andere Mari Sokorri,
Zu gana nuzu ethorri.
Eta nago belhauniko,
Zuri zerbait eskatzeko.

Aitarik amarik gabe,
Gaixto batzu ditut jabe.
Badut hainitz nahigabe,
Salhatzeko naiz herabe.

Piarreñok deraut erran
Ama dutala zeruan...
Orotarik omen du han:
Baduke niri zer eman!
Othoi errozu abian
Ni goserik utz ez nezan.

Kantu ezti bat entzuten da, zerutik heldu balitz bezala. Emeki-emeki gau beltzak hartzen

*ditu bazterrak. Andre Dena Mariaren Irudia dena
mixteriozko argi arin goxo batek badauka...*

Piarreño eta Xalbador badoatzi...

—IV—

KRISTOAL

Bi lagunak joan orduko,
Gauak bere zauzkan oro;
Bazterrak ixil eta lo,
Denetan bakea oso.

Bainan Sokorrin Maria,
Guzien Ama garbia
Badago iratzarria
Oror daukala begia.

Udaberriz iguzkia
Goizean goiz da jeikia,
Bero dakargu argia,
Erne pitz dadin bizia.

Gauaren ondotik, bethi
Egun berri bat sor bedi,
Hola Jainkoak nahi,
Guk ere ez huntan fini.

Oraino badut zer egin,
Ene haur lagunek berdin.
Zuek, agian, gurekin
Badukezue atsegin.

Battitta, Mañex, Ganxume, Mattin agertzen dira, hats-hantuak, laster egin dutelakotz . Lurre-rat erortzen dira ufaka; eta sakelatik athera dituzten ophileri ausikika lotzen.

GANXUME

Jan nintzazkek holako bi.

MANEX

Ni ere gose nuk bethi,
Hasi eta ezin geldi.

MATTIN

Zonbat ophil duk, Battitta?

BATTITTA

Bihirik ez, hau jan-eta.

MATTIN

Nik badiat oraino bat.

GANXUME

Ez duk sobera lauentzat.

BATTITTA

Egun oroz badituk bi?

MANEX

Ehaiz etxean hain gaizki.

MATTIN

Lehena nian idorrik,
Hau gasna guriz hanturik.

GANXUME

Guk ez ginikek ez kalte
Hik, Mattin, dukana maite!

MANEX

Birjinak likek atsegin,
Guri baheza on egin.

Lauek itzultzen dituzte begiak A.D. Mariaren alderat.

MATTIN

Zer othe du beha niri?
Kexu dela dik iduri.

MANEX

Lagunek bat eta hik bi,
Ez bide zaiok hain ongi.

MATTIN

Ama Birjinak dezala
Har beraz ene ophila.

GANXUME

Ederki duk hori, Mattin:
Hortan bat gaituk hirekin.

MATTIN

Goiz guziz, gero, zioiat
Ekarriko bertzeño bat.

HIRUAK

Ez duk hik emanen bethi:
Bihar, etzi, gure aldi.

Lauek, belhauniko, othoitz egiten dute, eta badoatzi erran eta erran.

Argialdea da. Elizetarik izkilak entzuten dira; oilarren kokorikoak ere. Bere arthaldearekin agertzen da Xalbador, ondotik Piarreño.

XALBADOR

Jes, alditxartzera noak.
Ene bihotzaren joak!
Amak dauta deus igorri?

PIARREÑO

Ba, horko Amak ekarri.

XALBADOR

Hik uste duk?

PIARREÑO

Uste dutan?

Hihaur sar-adi kaperan

Eta ikusiko duk hor

Birjinari zer dukan zor.

Boneta eskuan, ezin garhaituzko ikhara batekin hatsbahi, Xalbador sartzen da kaperan. Laster atheratzen da, begiak handi, zozotua bezala, gorputz guzia daldaran.

PIARREÑO (*harritua*)

Zer gerthatzen zauk, Xalbador?

Norbaitek izitu hau hor?

XALBADOR

Ez diat nehor ikusi...

Bainan... heldu nauk... ihesi,

Birjinaren aldarean

Baduk ophil bat... dirdiran.

PIARREÑO

Ez baituk hiretzat hartu?

Barda zer huen eskatu
Andre Dena Mariari?

Hirea duk ophil hori
Biak sar gaiten kaperan
Eskerrak detzagun eman.

*Boneta eskuan, erortzen dira belhauniko.
Ezpainak ikharan, othoitz hau dio Xalbadorrek:*

XALBADOR

Ama Maria, ene amaren Erregina
zeruetan,

Milesker zuri, zeren dautazun zerutik
ekharri zer jan.

Amatto hari, othoi, errozu bethi zerbait
igor dezan,

Nik ez dezadan, hemendik goiti, goserik
sobera jasan.

Biak xutitzen dira. Aldare gainetik Xalbadorrek hartzen du ophila. So egiten dio, perekatzen du, luzaz, maitez... Azkenean erditik egiten du, eta puska bat eskainiz Piarreñori.

XALBADOR

To, Piarreño, erdia;
Salbatu dautak bizia.

Opiletik jastatzen dute.

PIARREÑO

Ez duk lurrean okhinik,
Hau egiteko gai denik...

Biak opiletik janez itzaltzen dira.

Xutitzen da Kristoal eta ikusliarrer zerbait erran gogo du. Denbora berean, Adarbeltzek eta bere hiru lagunek teatro ezkerreko izkinan ezartzen dute zurubi pare bat. Zurubi doblearen mailak gora igaiten dira lau satanak, xahako bana badutela eskuan... Xahakoak urez betheak dira.

KRISTOAL

Egun oroz ophilño bat
Heltzen dute kaperalat...
Amak diola igortzen,
Xalbadorrek baitu hartzen...

*Beren xahakoetarik zirriztaka lau satanek
bustitzen dute Kristoal.*

KRISTOAL

To, to, uria da hasi,
Denbora zauku nahasi...

*Aulimaleko parasola bat zabaltzen du eta
pean gorderik aintzina mintzo da. Zimino batzu
bezala badabiltza satanak, gain-behera, petik
gora, zirrizt eta zirrizt.*

KRISTOAL

Orainokoan jokia
Ezin hobeki badoa;
Bainan debruak, ni beldur,
Phiztuko du zerbait makur.

Parasola hetsirik, bere kaderan jartzen da Kristoal. Teatro gainean gelditzen dira lau sata-nak.

ADARBELTZ

Haur tzar horien lasterrez,
Jestuez eta othoitzez
Asea naiz lephoraino...

GALTZAGORRI

Eta ni muthurreraino!

SABELGORRI

Eta ni sudurreraino!

TARTARO

Ez gehiago ni baino!

ADARBELTZ

Behar ditiagu oro
Jo, zafratu, hezi, eho;
Debruetarat igorri,
Ahantz dezaten Sokorri!

Zer nahi ziminokeria egin ondoan, teatrotik jausten dira lauak, eta teatro pean gordetzen.

Satanak gordetzerekin, agertzen dira Mattin, Battitta, Ganxume, Mañex. Soinuak jo dantza pullit bat emaiten dute.

GANXUME (*Mattini*)

Ekarri diok ophila?

MATTIN

Ba, goiz guziez bezala.

BATTITTA

Zer bada, dudatzen duk, hik?

MANEX (*Mattini*)

Enuxenta, emak hortik!

Birjina jausten zerutik

Hire ophilen jateko??

Jainkoaz, ixilik ago!

ADARBELTZ

Plan, plan, plan, ra, rataplan, plan

Axeriak ophilak jan.

MATTIN

Ixil hadi, ixil hihaur,
Blasfemioz hari haiz gaur;
Hori duk hire fedea,
Judu tzarra ez bertzea??

MANEX

Judua, ni? Errak berriz?

ADARBELTZ

Kiz, kiz, kiz, kiz!
Errok berriz...

MATTIN

Ez bietan, hamar aldiz!!

ADARBELTZ

Plan, plan, plan, ra, rataplan, plan,
Axeriak tik ereman!

Orduan Mattini paso bat emaiten dio Mañe-xek. Lotzen dira borroka. Horien berexteko, egin ahalak egiten dituzte Ganxumek eta Battittak.

Azkenean lauak lerratzen dira teatrotik lurreraino.

Xalbador agertzen da. Doi bat so eskuin, so ezker egonik, kaperan sartzen da... laster atheratzeko, loriatua, eskuetan duen ophilari ausiki-ka.

Xalbador ikustearekin lau adixkideak harritzen dira.

GANXUME

Beha, beha, nor dugun hor!

BATTITTA

Ez dea hori Xalbador?

MANEX

Nun dabila hemen gaindi?
Hori alfer zautak handi!

MATTIN

Ez ahal zoak ihesi?
Behar diagu ikusi...

ADARBELTZ

Plan, plan, plan ra, rataplan, plan,
Axeria othoitzetan.

Xalbador kaperatik atheratzen, ophilari ausi-
kika ikusi orduko.

LAUAK

Oh!

GANXUME

Nork behar zuen erran
Xalbador ohoin bat zela;
Hor Sokorriko kaperan
Ebasteko zabilala?

BATTITTA (*Mattini*)

Etzitikan ez Birjinak
Jaten hik ekharri ttoinak!

MATTIN

Bekatu bat diat egin
Hi Judas deitzearekin;
Hori Xalbadorren gatik
Pekatu beharko baitik!

*Lasterka badoatzi lauak Xalbadorren lotzerat.
Xalbadorrek ikusten ditu heldu. Ophil puska gor-
detzen du sakelan.*

MATTIN

Hola duk, zirtzil, zikhina,
Othoizten Ama Birjina?
Nik Birjinarentzat ezar
Eta Xalbador jaunak har?
Nik emana Birjinari:
Xalbadorrentzat bazkari!

XALBADOR

Ez duzu hori egia.

MATTIN

Ni nauk beraz gezurtia?
Ikusi gaitukanean,
Zer duk ba gorde sakelan?

XALBADOR

Ez dut egin deus makurrik,

Ez dut erraiten gezurrik:
Ene amattok zerutik
Ophilak igortzen dauzkit;
Sokorriko Anderea
Dut ophilen ekharlea...

MATTIN

Gutaz trufatzen haiz, naski?
Zozokeriarik aski!

Zaharo legun hunekin
Beharko diagu jakin
Xalbador, zangoak arin,
Zertan dabilan Sokorrin.

Ganxumek, Mañexek eta Battittak tinki-tinkia atxikitzen dute bethi Xalbador. Zaharoa altxatzen du Xalbadorri zafraldi baten emaiteko, noiz eta ere Jon-Doni Mikael Arkanjelua agertzen baita.

JON DONI MIKAEL

Zer hari haiz, itsusia?

MATTIN

Ophila daut ebatsia!

JON DONI MIKAEL

Ez duk egia! Umexurx horrek
ez dauk ophilik ebatsi
Ez dik deus hartu Birjina ganik
etzuenik ardietsi.

MATTIN

Ez bainintuen hari emanak.

JON DONI MIKAEL

Birjinari ba ordean!
Ama Birjinak bazakik nor den
ophil baten beharrean.
Orhoit haiz nola behatu hauen
iragan ortzegunean?
Umexurxaren ogi-eskasa
zian ordukotz gogoan.
Ophil horiek galdu haurrari
amak ziozkan igortzen,
Eta zerutik Sokorriraino
xuxen Birjinak ekhartzen.

MATTIN

Barkatzen dautak, Xalbador?

(Eskua hartzen dio)

Arkanjelua lekuko,

Bethi emanen diat hor

Ophilño bat, hiretako.

XALBADOR *(Jon Doni Mikel badoalarik)*

Eta nik hura utziko

Pobreago batendako.

Adarbeltz eta bere hiru lagunak igaiten dira, hasarre, lauek diotelarik:

Puah, puah, puah, puah!

Piarreño agertzen da, hats-hantua. Lasterka ibiliaren ibiliaz, lurrerat erortzen da, izerditan, gorritua.

MATTIN

Zer da? Zer da, Piarreño?

Hau duk planta! Egundaino!

PIARREÑO

Zer den? Akabo garella!
Gureak egin duela!

MATTIN

Akabo gu? Zer derasak?
Ez gaituk abere basak,
Ihiztariak har diton
Ihizirik hilen duten...

MANEX (*izitua*)

Sabelkoitarren armada
Patarra goiti heldu da!

BATTITTA

Sabelkoitarrek ez dituk
Guziak oro malestruk.

MATTIN

Gu, Sabelkoi horren beldur!

PIARREÑO

Xalbadorrentzat duk samur!

XALBADOR

Banoa beraz ihesi.

MATTIN

He!... Nahi nitek ikusi!
Gure lagun haiz, Xalbador,
Etzaik hurbilduko nehor!

Hots, buru has, belhauniko!
Amak gaitik lagunduko.

Bonetak khendurik, guziak erortzen dira belhauniko, aldare aintzinean.

MATTIN

O Andre Dena Maria,
Gu haurren Ama garbia,
Kinka gaixtoan baigaude,
Ager zaite gure alde.

Gerla behar omen dugu:
Othoi, zaude gure buru!

Gaixtaginen malezia,
Izan dadien hezia,
Irabazteko auzia,
Zuk egiguzu grazia.

Xutitzen dira.

GANXUME

Lagunduko othe gaitik?

BATTITTA

Zikoitzak hastio ditik!

XALBADOR

Balinbadugu fedea,
Ba, partida da gurea.

Bidetik iragaiten da Guanix, xixtuz, zaku bat bizkarrean.

MATTIN (*gogorki*)

Nor haiz, eta norat hoa?

GUANIX (*durduzatua*)

Ni... Guanix... Agerrekoa...
Batzokiraino banoa,
Han den jaun bikarioa...

MATTIN

Eta, zer duk zaku hortan?
Battitta, mia-zok bertan.

BATTITTA

Beha, beha, hau duk xantza!

XALBADOR

Ama onaren laguntza!

GAUNIX

Ezpata berri, ederrak,
Dantzariantzat beharrak!

MATTIN (*aldare alderat so*)

Milesker zuri, Maria,
Gerlarien gidaria!

Lerroan, soldado batzu bezala, jartzen dira sei haurrak, ezpata bana, xut, eskuan... Ezpata bat gelditzen da lurrean.

GAUNIX

Zazpigarrena, enetzat!

MATTIN

Ez, ez, habil Batzokirat...
Jaun bikariari errok
Gaur behar ditugula hok;
Bainan gaua baino lehen
Daizkogula eremanen.

Guanix badoa.

Sabelkoitarren haroa geroago eta hurbilago ageri da. Laster agertzen dira etsaiak: Sabelkoi, Zirikando, aitabixia, Zinkulin eta Xanfarin, sabre herdoildu zahar batzuekin. Ondotik, Adarbeltz, Sabelgorri, Galtzagorri, Tartaro, hiru hortzetako bana eskuan. Azkenik, Sabelkina, amabitxia, Ganxior, bakotxak bizpahiru bururdi bizkarrean.

SABELKOI

Hor zaituztegu, haur tzarrak,
Borthizki hezi beharrak!

MATTIN

Gu, haur tzarrak? Zeren gatik?
Zer tzarkeria eginik?

SABELKOI

Xalbador ene muthila,
Hain goxoa, hain umila...

MATTIN

Ba, goserik zinaukana,
Ethorria da gu gana...

SABELKOI

Zuek dautazue galdu...
Haren bilha gaituk heldu...

MATTIN

Xalbador guri ez galda:
Orai gure anaia da!

SABELKOI

Ikusiko diagu hoi:
Ez dakik nor den Sabelkoi?

MATTIN

Lau seme-alaben aita,
Dabilana lastoketa.

ZIRIKANDO

Egongo haiza ixilik?
Nun da holako zirtzilik?

Trufazko bertze solas bat,
Mihi hori mozten dauiat!

MATTIN

Zure sabrea kamutsa;
Eta zu, otsoputz hutsa!

ZIRIKANDO

Ni, otsoputz? Apho txarra!
To!... aspaldian beharra!

*Beharrondoko batez erroz gora aurthikitzen
du Zirikandok Mattin.*

ZIRIKANDO

Gora Sabelkoi handia!
Gora horren familia!
Sabelkoi semeak, emazue hor
Eho zazue Xalbador!

XALBADOR

Hel, Sokorriko Maria!
Emaguzu bitoria!

*Kurutzeren seinalea egiten du. Satanak gibel
doatzi. Mattin xutitu da.*

*Guanix agertzen da, hats-hantua; paper
zakuño bat badu eskuan.*

PIARREÑO

Ama, zato gure lagun,
Etsaia garhait dezagun.

GUANIX

Huna zuentzat bonbonak,
Andere batek emanak!

Andrea ez dakit nor den,
Horkoaren eite zuen.

(Kapera erakutsiz)

Manatu daut itzul nadin,
Eta nezan laster egin,
Hauk behar zinituztela,
Ongi finitzeko gerla.

(Paper zakua eskainiz)

SEI LAGUNAK

Gora, bai gora Sokorri!
Horko Amak hau igorri!

*Bonbonak iretsi orduko, gaitzeko hotsean
lotzen dira haurrak guduari, beren ezpatak azote
batzu bezala derabilzkatela.*

*Satanak gibel daude. Emazteak iziturik, oi-
ka abiatzen dira patarra beheiti. Bat bertzearen
ondotik Sabelkoien gizonak eta Sabelkoi bera
erortzen dira Pupunak eta Mainerrek hedatu
bururdien gainerat.*

*Erorien gainean plantatzen dira xutik hau-
rrak.*

JON-DONI MIKAEL *agertzen da*

Ederki zuek, eskualdun haurrak, xuxen
zaizte gudukatu.

Satanek eta Sabelkoitarrek berenak
dituzte hartu...

Bainan oraitik, Jesusen legez, behar
duzue barkhatu,

Nor nahirentzat herra daukanak egiten
baitu bekatu.

*Erori gorputzen gainetik jauzi egiten dute
haur onek.*

Ama Birjinak gaixtoetarik begiratu du
Xalbador.

Umexurx horri pena emaiten ez bedi
abia nehor.

Eroriak xutitzen laguntzen dituzte haur onek.

Orai arteko makurretarat, Jainkoaz ez
berriz eror,

Egin ahalak egin beharko, kasailarik ez
dadin sor.

*Gaixtoak eta Onak eskuak elgarri emanik
daude.*

JON-DONI MIKAEL (*behatzaileeri*)

Jaun andereak, begi onegiz
guri beha zaizte egon
Milesker eta Jainko maiteak
orori digula gau on!

*Andre Dena Mariari azken othoitz bat kanta-
tzen diote guziek:*

Sokorriko Ama, Birjina Maria,
Ordu gaixtoen itsasturien artizar argia,
Zaude bethiko, eskualdun haurren geriza gar-
bia,
Geriza garbia!

HEIATIK ZERURA

AGUR MARIA

Udaberriko iguzkiaren hats aberatsak deithurik,
Liliak horra nun sortu diren, urhe, zilharrez
eginik;

Salomon bera ez baitzabilan hoin ederki
aphaindurik,

Gure begiek ez baitukete ikusgarriago denik.

Mendian gora, harrok-artetik jali ura garbi doa;
Goiko urdina bere duela mirail ezin hautsizkoa,
Iguzkitarat irriz jausten da; —balu gizonen
gogoa,

Jakin lezake guk dakiguna: zoin aldakor den
aroa.

Itsas haizeak mendietarat hedoi gaixtoak
dakhartza;

Ilhun eta hotz, erhokerian, jostatuko da
ekhaitza:

Lili ederrer ekharria du herioaren jo beltza;
Errekan, orai, urak, goitika, baderama lohi
gaitza.

Lili bat agertu da, lurrean agertu;
Bainan ez du lurreko gaitz izpirik hartu;
Zerua bezain garbi, zerutik zen sortu,
Sortzean bezain eder, zerura da sartu.

Ithurri bat jaio da, izar ur begia,
Bere zaukana bethi Jaunaren argia;
Ekhaitzak ezin dako nahari lohia;
Hortan baitu Jesusek ukhan edaria.

Gabriel aingerua, Zeruko hitzlari,
Etxeraino zitzaion jautsi Mariari,
—Bera zagoen batez, othoitzean hari,
Erraiteko Jainkoak nola zuen nahi.

Zion: Agur Maria, bakhar emaztea
Dena garbi, argi huts, itzalik gabea
Aita zurekin duzu; harena zurea;
Zutarik sortuko da Jesus Jaun Semea.

Guk, gaixtoek diogu: Ama zerukoa,
Ama guziak baino bihotz beragoa,
Atxikaguzu othoi, zure lagungoa
Gal ez giten delarik jinen herioa.

EGUERRI

Gizona bazihoan, urhatsa luzatuz,
Asto bat zarraikola, maiz behaztopatuz;
Astoaren gainean, jarria gurbilduz,
Amatzera zoaken emazte bat gertuz.

Hiritik jali ziren: hirian ezpaitzen
Eskale beharrari atherik zabaltzen;
Ostatu, jauretxetan ez da nehor sartzen,
Ez badu norbeit dela dirutik agertzen.

Gizonak hunki gabe ama den birjina
Eta Nazareteko Josepe zurgina
Badabiltza dateken —orena da jina—
Atherbe zerbeit, sortu beharraren dina.

* * *

Borda zahar batean Jesus haurra datza,
Sehaskatzat duela othelako latza;
Bizitei beltzik bada, hura zela beltza!
Miletan hobe da zuen ezkaratza.

Ihaurgi poxirik ez; lurrean arkhina
Mutziaren alhagi dena bat egina;
Armiarmu sareek badaukate gaina;
Arteketarik hixtuz iphar aize mina.

Etzanik ere daude hiriko barnetan;
Urdailaren betheaz lo pisu zurrungan;
Gogamenik balute beren ametsetan,
Gaur sortuaz bertzerik lukete gogoan.

Ortzaldea dena den bepetan edertu;
Berria dirudien izar bat agertu,
Badarion argiak mendia du hartu;
Artzainak beldurrekin dira iratzartu.

Aingeruak argitan xuri badabiltza,
Adiaraziz oror Jinkoaren hitza;
Harrituak, artzainak ez ditazke mintza;
Ontsa dakite zer den zeruko agintza!

—Artzainak, zatozte ba peko bordaraino;
Berri handia nehork ez daki oraino;
Zori hobea zuek hiritarrek baino;
Zatozte ikusterat gure Jauna haurño!—

Menturaren menturan, zerbait nahiz jakin,
So eman gabe diren garbi ala zikin,
Artzainek gain behera dute laster egin.
Orai lorian dira mintzo Jesusekin.

Haurra baithan gaizok zutenetz sinhetsi,
Ikhasirik lurrerat zertako zen jautsi?
Eta berek zer zuten behar ardietsi?
Nola zuketan Jesus gau hartan goretsi!

* * *

Urthe muga dugu gaur. Orai balukea,
Kanpotik ikusi ta su onaren khea,
Sortu beharrarentzat amak atherbea?
Nola har ginezake Josepen galdea?

Urthe muga gaur dugu. Gau hartan bezala,
Ostatuetan bada jende kokahala.
Bordaska tzar batean Jesus sortu zela?
Urdaila bethez geroz, hordien axola!

Jesus, anai garbia, gu bethi hobendun;
Barkha zaguzu, othoi, zaude gure lagun!
Aingeruen oihua nahi dugu entzun,
Zuk hitzeman bakea gugana dezagun!

GUDUA HASTE

Entzun izan dute Raman
Rakel oihu marrumetan,
Umeak galdurikan.

Hil ditu Herodes tzarrak
Betlehem guziko haurrak
Bulharrean beharrak.

Gaixo maiteen odola
Gorri, garbi, dariola
Bildotsena bezala.

Ama gazteak auhenez,
Mensturik minaren minez,
Erho baten hobenez.

Herodes bihotz gabea,
Magoek ukhan bidea,
Duk hiretzat gordea.

Jesus, Mariaren haurra
Errege zela beharra
Zukan hire beldurra?

Haurrak bere orena dik;
Eta bazoak engoitik
Ez dakidan bidetik.

ZURGINAREN SEMEA

Zurgina baitzen Josep, aita ordezkoa,
Jesussek bazeraman bere gaztaroa
Zurgintzan hari zela. Haren zen geroa,
Bainan lanetik zaukan doi bizitzekoa.

Nork ditu goretsiko Jesusen eskuak,
Zori onen eraile esku doatsuak
Hunkiz argiratzeko gaupetik itsuak,
Elheari phizteko gor eta mutuak.

Jesus, auzo guzien ustez Nazarethen
Zurginaren semea, zurgin baizik etzen;
Ba, Jesussek erhiak latzturik zituen,
Berez, Jainkoarenak egin baino lehen.

Amak etzakiela ohe bat nun eska,
Berak ukhan baitzuen abereen aska,
Haurrendako Jesussek dagike sehaska:
Ohako legun, arin, goxo, andanaka.

Etxekoen hazteko behar baita ogi,
Maira moldatzen ere Jesusek badaki;
Artharekin dagitza mairak barne handi,
Han dezaten irina eskuz orha, garbi.

Maira baten ondotik, kutxa beharrena,
Andreak oihal xuriz betheko duena;
Jesusek zegizkien kutxen iraupena!
Hetan etzen ibilki zur jale zerrena.

Berak ez badu ere izanen herririk,
Behartuko denean nun pausa geldirik,
Ohe-zur, alkhi, mahain zer ez du lanthurik,
Bertzeak ontsatzeko, eta maiz, urririk!

Haizkoraz emaiten zuhaitzari joa,
—Jo, urra eta itza baita zurgingoa—

.....
Urrunerat ikhusten zuen herioa.

UZTAILA

Bas ihizia bertzerik nehor ikhusi gabe, bortuan,
Othoitza lagun, bortz aste bethe barurik egon
ondoan,

Jesus agertu zen irakasle; harek erranak orduan
Baitezpadako baitira bethi, eta izanen geroan.

Lurrak dirauno, eta lurrean beharko direno bizi,
Ez ditezela lotsa gizonak, are gutiago izi,
Bethiereko egiak dauzku Jesusek adiarazi,
Guziek ukhan ginezan uzta, berak erain zuen
hazi.

Bainan haziak, sortu deneko, nahi du langilen
artha,

Belhar gaixtoak itho ez dezan, gaitzik ez dakion
gertha.

Hori zakien eraile jauna ibili zen muthil keta
Egun laburrez bildu baitzuen lankide saldo bat
hauta.

Apostoluak Jesusen deia entzun eta berehala
Nagusiari, jarraiki zaizkon haurrak aitari bezala,
Lan gaitza ere baitzuten egin, emanik eman
ahala,

Alhor berrian urhez jauntzirik argiratu zen
uztaila.

Uztail beroa, uztail ederra, guahu ontzen
gituena!

Iguzkitara distiran dago xuriz ordokia dena;
Landetan gaindi dabilalarik haizearen
hasperena,

Ogi buruek diote baltsan erasirik gozoena.

Alhorrak xuri, ogiak zorhi, nehun ez ortzi
hedoirik,

Ez ahal zauku bihirik gabe geldituko
selhaururik.

Ai! zorigaixtoz landa bazterrez, zonbat dabiltzan
goserik

Iguzkipean deus ez dutela behar gorriaz
bertzerik!

Uztail bide zen eraile jaunak zuelarik zinez
erran:

—Ogiak zorhi; sartu beharrak; nehor guti nork
egin lan,

Zeruko Aita othoitzazue, uzta dena biltzekotan,
Eraileari jarraikitzaile langileak igor ditzan—

IRAKASPENA

Gutarik bakotxaren bizian, oro har,
Gau egunak nolako dira? on ala tzar?
Ardurenik zer dugu? irri ala nigar?
Eza lore bezenbat asun eta lahar?

Xoriek ez dagite hazilik, uztarik,
Eta badute zer jan, auher daudelarik;
Lilietan ez dago josten dakienik,
Nor da liliak bezain aphaindua denik.

Xorienaz bertzerik guk dugun legea;
Liliena bezala ez gure moldea;
Gizona bideari jarraik liteke
Ez balu, hots emaile, Jesusen elhea?

Zelhai batean Jesus gelditu zen behin
Eta, han zarraizkonak ikhusterekin,
Su eta khar zioten guzier hitz egin.
Ordutik dugu ere ona zer den jakin.

—Dohatsu beharrean orai zireztenak
Gaizki bekhaiztu gabe ausarki dutenak;
Aitak zuek zituzte seme gehienak
Bere Erresumako premu gai lehenak.

Dohatsu dabiltzanak gose ta egarri
Zuzena garai nahiz lurrean ezarri;
Holakoer emanen baitakotet sarri
Sekulako sosegu eta osagarri.

Dohatsu zaudeztenak oraino nigarrez,
Ezin helduz indarka, zorion beharrez;
Hariko baitzirezte irri on, samurrez,
Begiak argiturik zeruko ederrez.

Dohatsu gaitzetsiak orai ene gatik
Laidoa duzuela hemengoen ganik!
Gaixtaginen gaixtoak ez du iraupenik,
Bethiko zoriona zuentzat daukat nik.

Zelhai hartarik Jaunak aurthiki bihia
Phiztu zen bazterretan. Sortu da lilia
Geroztik bizi dena eta zoin garbia!
Ilhunpean dugula guziek argia.

HAURKINA

Zertako bada liliek:
Udaberriko begiek
Dauzkate gure begiak

Lokharri urdin xuri, gorriez, beren soinari
josiak?

Zertako bada xoriek:
Jainkoaren kantariak
Dauzkagute beharriak

Beren erasi xoragarriez, goiz arrats iratzarriak?

Zergatik ere izarrek:
Sutan urhezko phindarrek,
Dauzkate gure gogoak

Amets garbiez, egiaz alhan, argian argi,
beroak?

Gure lilien ederrak,
Xoriñoaren agurrak,
Urhe sutan den izarrak,

Baitioskute jaunaren Jaunaren ontasun eta
indarrak.

Hoberik bada lurrean,
Bizi denik gutartean,
Jainkoak egin heinean...

Haurren begiek, haurren irriek ez gauzkatea
menean?

Begietarik argia
Irrietarik egia,
Aingeru zinez garbia,

Haurrak ez badu, nork duke bada Egilearen
lehia?

Bazterrez bazter, irakasle jaun, Jesus
bazabilalarik,

Haur ttipienak amek lagunduz zethozkion
etxetarik;

—Iguzkirako baizikan ez du pinpirinak lehiarik.

Jesus eztiak erran zioten: Uzkitzue hurbiltzerat;
Neureak ditut; Nihaur jina niz hein hortakoen
biltzerat;

Zuetarik bat ez da iganen nik dutan zorionerat,
Nun ez den aphas, lehenik jautsi maite horien
heinerat.

Erran zioten ere Jesusek: Haurren etsaia badabil
Neure direnak bere jakite lizunetarat nundik bil;
Etsaiak balu, zuen artean, lan hortako norbeit
muthil,
Zorigaitz horrek! hobe zukeen sortegunean
baliz hil!

URRIKIAREN EDERRA

Emazte bat zen, lanetik ihes, gauaz dabiltzan
hoitarik

Nor nahi gertha, gizona den ber, ez baitute
ahalgerik

Erakusteko sal-gei direla; bainan erostunetarik
Badoazinak deus bildu gabe, lohiarenaz
bertzerik.

Mari Madalen girixtinoek orai othoizten duguna,
Izana da ba gizon emakoi, zarpil hordien
laguna;

Bainan ez othe ziren emazte galdua eta ohoina
Heldu beharrak ardiestera dohatsuen zoriona?

Ekhaitzak arrunt moztu ez duen udaberriko lilia
Iguzkiaren deiari dago, sekula bezain garbia;
Zazpi debruek bere baitzuten, galtzera zoan
Maria

Phiztu zen lore, Jesusen ganik ukhan orduko
argia.

Lohian lohi, bazterrez bazter, makhur, gaizki
zabilana

Argian argi, aldaratu zen barkhatzailearen
gana,

Eta gai egon, hartuz geroztik zeruko
irakaspena,

Jaunen Jaunari erakusteko urrikirik biziena.

Jesus bazkariz Bethaniako Simunen baithan zen
batez,

Emazteki bat, jakin gabeen aitzinatzen ahal
zenez,

Sartu zen eta zirudiela jina sendagailu galdez,
Jesusi hurbil heltzerekin, belhaunikatu ahuspez.

Ixil ixila, begiak aphas, berritz xutitu zelarik,
Untzi eder bat baitzuen dena ur usain gozoz
betherik,

Jesusi zankon buru gainerat ixuri ur on hartarik,
Nehor ez balu izan bezala bere ondoan
bertzerik.

Olio beraz gero Jesusi gantzutu zaizkon bi oinak
Ur gozari nahasiz nigar ephel ezti, garbienak;
Bere adatsa legunarekin xukhatu zituen denak;
Eta lekhua, ixil ixila, hustu zuen madalenak.

* * *

Etxeko jaunak, bazkaltiarrek etzakiten nola
mintza,
Judas harek, ba, zuen agertu bere gogoaren
beltza:
—Zilharrez banu auherretan hor ixuriaren
ordaintza,
Jende beharrer baginegike ausarkiago laguntza.

Jesusek aldiz: —Zer othe zion lagunak hari
baitzauden—
Pobreak bethi dituzketzue; ni ez nuzue ukhanen
Bainan munduak mundu dirauno, guziek dute
jakinen
Emazte horrek, urrikiturik, zer egin dautan gaur
hemen.

Emazte berak du gantzutuko Jesus ehortzi
beharra,

Berak lehenik adituko du Berphiztuaren
agurra...

Eta heldua da gutaraino Jaunaren hitz
iraunkorra:

Madalenaren bidez dakigun urrikiaren ederra.

ORTZEGUN SAINDU

Hamahiruak bildurik zauden mahain baten
inguruan,
Azken aldikotz hamahiruak Pazkotako
aphairuan.
Biharko, Jesus Aingeru onek hartu dukete
zeruan,
Debruek aldiz Judas ustela bereturik ifernuan.

Ilhuntziria. Bazterrak ixil. Jerusalemen bakea.
Labe gorriek igortzen dute bildotx errakien
khea.

Juduen pesta. Juduak egun legez ahantz
dezakea
Egiptoatik herrirainoko bidea zoin zen nekea?

Hamahiruak bildurik daude, Jesus Jainkoak
badaki
Ongirik baizik ez egin eta, hitz bat ez erranik
gaizki,
Gaixtaginene heriotzerat dela gu gatik joaki,
Sarriko baitu Judas lagunak tratu egina itsuski.

Hamahiruak, azken aldikotz, elgarrekin afaltiar.
Apostoluek ez dakikete zer gerthatuko den
bihar,
Eta lurrean, ez dutela, ez berriz ikusiko elgar:
Egun, Jainkoa daukan ogitik hamabiek dute
behar.

* * *

Jesusek hautsi zuen ogia, othoiz egin eta erran:
har zazue hau, neure gorputza, har zazue bai
eta jan;
Neure gorputza, lagun maiteak, zuentzat baitut
nik eman;
Nik egin dutan hau dagizue neure
orhoitzapenetan.

* * *

Gogoan hartu duguia behin zer den ogi
ahamena?
Zonbat lan eta nek'izerdiren azkenekotz den
ordaina?

Neguko xuxen bekigun belhar, hazia garbi
eraina;

Udaberrian, sarha jorratze, onak hartu arte
gaina.

Udaminean, uztailarekin, distiran ogiak zorhi;
Iguzkitarat, hor ephaileak, lur azala bezain
gorri;

Espalkariak, harat hunatka, zoinek lasterrago
kurri,

Uzta horia idorrik baita behar barnean ezarri.

Jotzeak gero, hauzoak lagun, erhauts zikhinak
iretsiz;

Egun eta gau lan borthitzari, begiak doi-doia
hetsiz,

Bihitegia ez da bethetzen gain behera lerran
jautsiz,

Igan behar da, soinak ukhurtuz frangotan
zurubi hertsiz!

Noiz janen dugu, haurrideekin, etxogi gozo
berria,

Mamia harro, axala gogor, urhea bezain gorria?
Ai, bihiñoa hil beharko da! Eiheran du hil harria.
Bihiño horren errahuts xuriak dagi gure
hazkurria!

* * *

Jesusek hartu zuen arnoa eta eman, ziolarik:
Hau da, lagunak, neure odola, hurrupazue
huntarik,
Edan guziek, ixuri baitut zainak hustuz,
agorturik,
Lurrean hanitz izan ditezin odol hunek
salbaturik.

* * *

Harri tartean ogi bihia, lako tinkoan mahatsa
Ez da lehertzen nola egingen baita Jesusen
bihotza!
Etsaien eta Judasen berri Jesusek badaki ontsa,
Eta jadanik gogoetan du heriotzearen beltza.

Badaki Jaunak lagun horiek egonen direlarik lo,
Bera beharko dela, bakarrik, gau ilhun hotzak
dirauno,
Odol minetan, hil izerditan, jasaiten hobenak
oro,
Bildotx garbia otso zikhinek dezaten gostuan
eho.

Badaki Jaunak, diru gutitan, oi! Judas horrek
saldurik,
Bere ondoko lehena daukan Petrik berak
ukhaturik,
Mendia gora iganen dela, kurutzeak leherturik,
Badaki bertze heriotzerik ez dezakela igurik.

Horiek oro badazki eta, gaur, ezti eztia dago;
Begietarik, ezpainetarik irri on bat badario.
Galbariotik oren berriak oraikoan behar du jo,
Azken aldikotz hamabieri salbatzaile onak dio:

Neure gorputza jaten duenak, neure odola
edaten,

Harek bizia badauka etadohatsurik du iraunen;
Bainan ni hartu, jan edan gabe, ibiliko dena
 hemen,
Hura egarri gose minetan da sekulako
 galduren.

* * *

Jesus Jainkoa, guretzat hilik, gure janari bizia,
Lurretik bildu ondoan, guhauk erhaustuko den
 hazia.
Zuk emaguzu hilkor gaudeno, gal ez diteken
 ogia,
Zorionean dugun ardiets zurekilako loria.

OREN BELTZA

Gaua hedatzen hari, lokhartzen bazterrak...
—Hi, hor, Judas hoin zalhu norat hoan errak?
Ala gaur heure dituk Satanen zilharrak;
Bildotsaz gaur direa jabetu beharrak?

Judasenak egin du. Badoa, badoa;
Urkha bilhurrian du jadanik lephoa...

.....
Haitz-adarretik urrun eihartu hostoa
Leizerat erori zen, herioak joa.

Geroztik leize hartan bizi da gaixtoa,
Etsimendu berean alhatuz gogoa;
Herra duela herra hazkurri ta loa,
Judasek han derama bere muthilgoa.

Jesus abiatu da bere lagunekin,
Bildotsarenak ere behar baitu egin;
Nola hiltzekotan zen gizonen ganat jin,
Bihar, mendi gainean, dezakete jakin.

Gaua jabeturik da: meneko du lurra;
Lanerat badoake gaixtagin lapurra;
Jesusen gorphutzean —Satanen agurra—
Zainak hartzen daizkola, sortu da beldurra.

Ortzaldeak dirudi dena khedarreko;
Lagunak ez ditu gai, bera da beharko
Jesus gudu gaitzean ihardukitzeko!
Hitzeman du Jesusek, ez daidike ukho.

Bainan bere lagunereginen du galde;
—Barneko ilhundura dezakea gorde?—
Othoitzean har ditzen, lokhartzeko orde,
Etsaiak ez ditzan bil hobenaren alde.

* * *

Iguzkiaren eta izarren egile dena ilhunik,
Diren guziak meneko eta berak, orai, ez lagunik
Gudukatzeko duen guduan, esku eman
dezokenik.

Argian argi, sortuz geroztik, izan da gizonen
dohain,
Leize bazterrez bethi bazoan hazinda galduen
artzain,
Otso gaixtoen, ardi zoroen orai horra nun den
ordain,
Mundu tzarreko hobenak, zorrak, oro dauzkala
bere gain.

Eta hobenen mendi guzia beharko duela jasan,
Eta lohizko ondarra dena beharko duela edan
Bere izerdiz, bere odolaz berak arrunt garbi
ditzan!
Gaixo gizona, behazozue... nola dugun hor
ikharan.

Zainen jauzteak, oldar gaitzean, aurthiki du
belhauniko.
Dohakabeak, ez baitu nehor so dagoenik
lekhuko,
Ezinbertzean, Goiko Jaunari othoitz bat eginen
dako:
—Aita neurea, zathozkit lagun! sobera dut
jasaiteko.

Nitarik urrun khenzazu, othoi, pozoinetzko
edaria?

.....
Ezin ditake. Gogoan dauka nolako duen zoria
Eta zergatik zuen hautatu gorphutz meneko
bizia;

Ordu berean Jesusek dio: Aita, bekit zuk nahia.

Hobenen pean, leher egina, gizona lurrean
datza;

Larruan barna badabilkio erretzeko sukhar
gaitza;

Eztigailutzat deus ez duela baizik haizearen
latza,

Oro izerdiz dena bustirik daukan sorhopila
hotza.

Nola etzen hil harrigarri da: sinhets gaitzago're
nola

Jeiki zen berriz eta jin erne, deusik ez balitz
bezala,

Dударик gabe, iratzarriak zauden lagun heien
bilha;

Iduritua baitzitaion, han, etsaiak heldu zirela.

Othoitzean lagun hek, Lo zauden khorrokan!
—Zer? ezin baituzue oren bat iragan
Nik errana eginez?Hots, xuti, giten joan,
Saltzalea dukegu oraiz geroz hurran.

.....
Jasanik, jasaiteko, zuhauk hoinbertze min,
Zuhaur, gudu gorrian, ifernuarekin,
Eta behar zutela, horiek, lo egin?
Jesus zure auhena etzen izan samin!

AZKEN HITZAK

Kurutze bati lau itzez dute josi Jesusen
gorputza;
Jainko Gizonak aneietarik horra zer duen
emaitza!
Sortu zelarik, ohakorik ez; aska bat zikhina,
beltza;
Hiltzerakoan, zur gogorrean arrunt buluzia
datza.

Mendi kaskoan dena elhe tzar, gaixtaginak
badabiltza,
Hoben gabeak, ixil, ixila, jasaiten du zorigaitza.

Kurutze hura xutitu zuten, ager zadien gorago;
Guziek ikhus zezaten ontsa Jesus hartarik
dilingo.
Hiltzera doan garbi baxharra, Erospenaren
bermego,
Sukharrak jana, odolez husten, Kurutzean ixil
dago.

Berak, hitz batez, suntsi litzake jaukitzen
zaizkonak oro,
Arrangurarik ez du eginen, odola hor badario.

Etsai abreak, lagun galduak Jesusek ditu
ikhusten,
Erhoen oihu, irri zikhinak Jesusek ditu entzuten;
Ikhusten gero, Bera hil gatik, guhaur zer hariko
giren,
Entzuten orai, Berak eginaz, gizonek zer
derasaten;.

Jainko semea geldirik dago, Jabe delarik ororen;
Meneko dugu —hala nahi du— meneko gure
hobenen;
Eta, Kurutze hartan josia, Jesus da guretzat
hilen.

Bainan odolez, azken hatsetan, arrunt hustu
baino lehen
Gizon sortuak bere Aitari galde bat igorri zuen:
«Aita! urrikal, barka horier; ez dakite zer
dagiten».

AMAREN ALTZOAN

Aingeruen Erregina,
Jesusen Ama Birjina;
Nundik sinhets eta nola
Zu guk ama zaitugula?

Zuk egin zinuen haurra
Hain zen ona, hain ederra!
Zeru garbiena baino
Argiago, garbiago.

Eta zure haur maitea,
Zeru lurren erregea
Altzora zautzu erori
Ezko hutsa bezain hori.

Besoetan daukazuna;
Gorphutz, zauri minek jana,
Guk, lurekoek, dugu hil,
Lurrean etzadin ibil.

Nori so zaude, Maria?
Hila da Jesus garbia.
Guk dugu hola itsustu,
Guk daizkogu zainak hustu.

Agortua du bihotza,
Sahetseko saki gaitza
Guk diogu barna egin,
Lasterrago trenka zadin.

Maria, zeri so zaude?
Zure hilak nor du alde?
Zure nigarrez gu irriz,
Lan tzar bereko gai berriz!

Nola sinhets, bainan nola
Zu gure ama zaudela?
—Ba, sinhets nezak, gizona,
Ni nuk zuen ama ona.

GUDUA BERE

Arimathiar batek, Josep baitzarizan
Ehortzi zuen hila bere baratzean.

Ohakorik, etxerik, hil oihalik gabe,
Sortu, gizon agertu eta zendu zena,
Horra beraz nun duten, hobi baten jabe,
Harri pean gordea, lothurik etzana.

Hobia berria zen, harrokan egina;
Etzen hortan oraino ehortzirik nehor,
Arkaitz batek hetsia zaukan athe gaina;
Jesus, behin bederen, pausatuko da hor.

Pharisauak jin ziren, biharamuneko,
Harmadunak beharrez, hobia zaintzeko.

Pilatusi zioten: orhoitu zirela
Lilluratzale harek nola zuen erran
Bizia galdu eta, ber bera gai zela
Hiletarik pizteko heren egunean.

Baitezpada behar zen, gau eta goiz arrats,
Hurbildanikan zaindu hobiko sargia,
Gorputza gezurtiek etzezaten ebats
Eta heda piztua zelako berria.

Horra hor soldadoen andana jarria
Hobiaren inguru. Hau da balentria!

Igandean goiz goizik, oro baino lehen,
Maria Madalena hobiraino jin zen.

Madalenen ondotik, beldur bainan erne,
Jakesen ama, eta Maria Salome
Agertu ziren hurbil... Zer eginen dute?
Hilaren gantzutzeko, nundik sar ditazke?

Aintzinago doazi... Zer izialdura?
Aldaratua zuten harri pisu hura.
Hobitik eskuin nor da?... Ximisten itxura...
Elhurra bezain xuri duela jaunzkura?

Jaunaren aingerua —bertzerik ezpaitzen
Emazte lotsatuer mintzatu zankoten:
Jesus Nazaretharra duzue bilhatzen?
Ez izi, piztua da: lekuko niz hemen.

Nun dira gezurtiak, nun hil ebasleak?
Hobiak barna dauzka gaixtoen xedeak;
Argitarat egin du Jesusen elheak,
Guretzat argi daude Zeruko bideak.

.....

Nun hindabilan, beltzik, errak, herioa?
Oraikoan galdu duk hire jabegoa;
Hire lagunen ustez bethikotzat joa
Berpiztua zabilak, bizi dik gogoa.

Inguma goxo dea, zer dio, Pilatus?
Pharisauek ez ditek arrangurarik deus?
Zauriak agerian, hor bazoak Jesus
Tomas buru gogorak ontsa ditzan ikhus.

.....

Berak erran bezala, hilik piztu zena
Dezagun sinhets,
Hitzemana derauku bere zoriona:
Dugun ardiets.

AITAREN ESKUINERAT

Gerthatu zireztea, mendirat iganik,
Udaberriz, egunak ezti direlarik,
Iguzkika, denen jaun, urhea erainik,
Itsasoan sartzera gorhail doalarik?

Aire goxo, arin; mendian bakea;
Peko etxe hoitarik xuxen doa khea;
Bainan laster gaua da, nork ikhus bidea?
Artzainek orai dute biltzen arthaldea.

Salbatorez, ardura, bazterrak lilitan.
Ordu baitzen lanerat muthilak utz zitzan
Pazkoz jauntzi loriaz gorputza distiran,
Artzainen Artzain Ona mendirat zen igan.

Arratsalde garbia, mendiko gozoa!
Azkenean egin da langilen gogoia.
Argia dariola, hedatuz besoa,
Jesus Aitaren ganat lanhoan badoa.

Galiletar gizonak, xuti hortik, jautsi;
Eta hemendik harat, ez lokhar ez etsi;
Egia baituzue oso ardietsi,
Jendeak zuen baithan behar du sinhetsi.

Aitaren eskuinean orai ez duguia
Gau batez, gure gatik sortu zen anaia?
Bai; Jakobek amestu zuen zurubia
Jesusek egiazki dauku bidalia.

ALEGIAK

AXULAR IDAZLEARI

Axular, Axular,
Eskualdun idazle
Ausart, zorrotz, hazkar
Suharra...
Geure hots emaile
—Dena su, dena khar—
Irakasle bakar,
Bakarra...

Zinuen —Axular—
Ergel, erho, nagi,
Gazte ala zahar,
Alferra
Ernarazi nahi:
Etzadien lokhar
Ez *gero*'ari jar,
Ez lerra..

Zinion —Axular—
Hertsia, labur, arrotz,
Eskuara bazen txar
 Meharra,
Zela, zuelakotz
Eskualdunen indar:
Buru, bihotz, bulhar
 Beharra.

Eta gu, nagiak,
Ikasteko lana,
Biltzeko bihiak,
Gathozi zugana...

Xinaurria zare
—Ez nagi, ez bare—
Bihiaren jabe,
Neguak jo gabe.

Eskualdun erlea,
Diozun elhea
Guretzat ez dea,
Garaiko bidea?

«Eztiz eztitzeko,
Ezkoz argitzeko»
Eskuara gurea,
Eskuara maitea?

Eskerrak Axular!
Bihi, bazka, indar,
Egun eta bihar,
Badakigu nun har;
 Zu baithan...
Lagunak ez lokhar:
Aditurik elkar,
Dugun Eskuara sar
Eder, jori, hazkar,
 Orotan!!

BELEA ETA AXERIA

Behin bazen bele bat:

Bele bat beltza,

Pika bezen ohoina,

Bainan zozoa!

Hartu zuen gasna bat,

Gasna bat gaitza,

Ardi esnez egina,

Bainan gozoa!

Zurxuri baten punttan,

Punttaren punttan,

Gure belea zagon

Nola gasna jan!

Axeri bat ttapattan,

Ttapa tta pattan,

Zurxurira jin zaion

Gosea tripan!

Egun on, bele jauna,
Ori zure soina!
Kanta hain eder balitz,
Zinez dautzut hitz:

Ez litake xoririk
Ez, ala fede,
Ederrez joan lironik
Zuri, jaun bele!

Bele jaunak orduan,
Ordu berean,
Mokoa du ideki...
Gasna erori!

Axeriak ttapattan,
Ttapa tta pattan,
Berea ez du hetsi.
Gasna iretsi!

Aho legun, muttur luz,
Zenbat axeri
Bele gaizoen gostuz
Direnak bizi!!

ERBIA ETA APOHARMATUA

Erbitto bat: beharri xut, buztan labur,
Ausik, itzul, beha, jauzi... bethi beldur,
Larretikan goizalderat,
Zangoak arin,
Jautsi zen behin
Jauregiko baratzerat.

Jauregiko baratzean jabe, ixil,
Apotharmatu handi bat nekez dabil,
Etxea baderamala...
Oraino barur,
Urhatsa labur,
Panttupa pan plun panpala!

Oinak arin,
Kaskoz berdin,
Erbi txarra irriz hasi;
Gogor, konkor,
Bainan ez gor,
Apotharmatuak erasi:
—Nitaz egiten duk irri?

Xorooa... jokutzen dauiat
Zoinek lasterrago kurri...
To, aza buru pare bat,
Debru zango luz ergela,
Hi baino ere naizela!

—He, zoin lehenka zu niri?
Burutik etzira eri?

—Jauna, erranean nago:
Banizela zu bezenbat
Heltzeko gaintto hartarat.

—Zu lehen, ni aintzinago...
Hots, arri, arri mandoko,
Bihar ez Iruñerako.

Urhatsa duela urri,
Bainan tira eta kurri,
Panttupa pun, panttupean,
Jauregia bizkarrean,
Apahormatu badoa.

Dantzaria maiz xoroa...
Bi azen irabazteko
Hiru jauzi aski eta,
Erbi jaun abiatuko
Arizan gabe josteta?

Auzik eta itzul, Xarpot eta tipul,
Mutturra phereka,
Bizkarrari hazka...
Erbiak oinetan
Ez du ez berunik,
Bizkar errainetan
Ez dakhar lagunik...

Hots, noizpeit erbia, zart! badoa,
Hala nola xixparen tiroa,
Bainan apoharmatuak irriz:
Erbi, nitaz trufa hadi berriz.
Zeren panttupa pun plun panttupan
Ordukotz heldurik baitzagon han.

Geroa dela geroa
Buru arinen leloa:
Erbi xoro horren pare
Jendetan asko badire.

AKERRA ETA AXERIA

Akerra duk, akerra dun,
Oi, aker adar makurra!
Bizkarra dik, bizkarra din
Burdina bezen gogorra!
Bizkar gainean hezurra,
Kokotsa pean bizarra.
Bizarra bai, buztana nun?
Oi, aker buztan mokorra!
Zentzua dik, zentzua din
Buztana bezen laburra!

Berhoko jaun, ohoin dela,
Axeri bat jin!
Janik sobera, duela
Sabelean min;
Holakorik ez daukala
Ukanik behin!

Akerrak, aker bezala,
Deusik ez jakin!
Berak ur eskas duela,
Bal, bal, bal, egin;
Ezinbertzean dagola
Sukharrarekin!

Aker tontok axeri tzar
Hor du sinetsi:
Putzu batetara behar
Direla jautsi.
—Amigo, baituzu adar,
Kontu ez hautsi!—

Xilo-Gaitzeko errekan,
Biak erori!
Hurrup, hurrup, ezin edan,
Akerra eri;
Pal, pal, pal, tta pa tta pan...
Sendo axeri!

Adar kakola bizar luz
Orain lanetan:
Ezker, eskuin abiatuz,
Sei zazpietan,
Ezin jali, zangoz eskuz,
Neholaz betan!

Akerra duk, akerra dun
Bethi egarri...
Axeri baithan fededun,
Da xutik jarri:
Bizkar et'adarrak lagun
Daizko ezarri!

Akerraren bizkarraren
Laguntzarekin,
herik horra non duen
Jauzi bat egin!
Ttapa! salbu nola den,
Hertzeak arin!

Akerra, be, be, bai, bal, bal.

Abantzu hila!...

Axerik, buztana xabal:

Bai esker mila!

Banoak, gaitezin afal,

Oilaxko bilha!

Akerra duk, akerra dun,

Oi, aker lausu okherra!

Belek bazitean egun

Hartan jatekoz leherra!...

Zentzua dik, zentzua din

Buztana bezen laburra!

Jainkoak balako egin

Aberats nola bizarra,

Zer gertha gero ez jakin,

Xilo-Gaitzean behera,

etzikan hartuko behin

Axeria den barbera!

TTIRRITTA ETA XINHAURRIA

Agorrilan ardura
Bero gogorak ari,
Ostopean gostura,
Ttirritta xirrikari:
Tzirri, tzirri, kitzirri,
Mari-Orratzari...
Eta iguzkitara,
Ulitzak firrindan,
Uliak farrandan,
Erleak burrunban,
Listorrak barrandan,
Uli beltzak baltsan,
Nun ez diren... saltsan!
Tzirri, tzirri, tzirritan,
Marroratzak pestan,
Ainharak lorietan!!

Hegaldunak dantzari,
Xinhaurriak lanean:
Lerro-lerro xendrari
Bero gogorrean...

Tzirri, tzirri, kitzirri,
Gor dago Xinhaurri.
Lasterka, tarrapatan:
Aitamek artoa,
Haurñoek ogia,
Mutilek lastoa,
Neskatxek garia,
Bota denak baltzan,
Tzirri, tzirri, tzirritan,
Hegaldunak jostetan,
Xinhaurriak lanetan!

Jainko Jaunak lurrerat
Izotz hormak igorri;
Xinhaurriaren ganat
Ttirritta txar ethorri;
Tirrit, tirrit... kakeri...
Ttirrita da eri,
Ttirrita eskale bat:

Hegalak dilindan
Zangoak daldaran,
Mukua darian,
Nigarra begian:

—Oi Andre Xinhaurri,
Nuzun urrikari?—
—Xirri, xirri, xirrikan
Jo dun udaminetan??
Eman hor jauzietan!!

* * *

Oinak arin arin eta buruz arinago,
Mari-mutil goseak hil, negua jin deno.

OTSO BAT ARTZAIN

Lehenago baziren otsoak:
Otso lau zangotakoak;
Jaten zituzten arthaldekoak:
Ardi eta bildots maltsoak.

Bainan ernerik zauden artzainak,
Begizatuz mendi gainak;
Eta zakurrek, agertuz hainak,
Bere zituzten oihanak.

* * *

Ardiak, mendi mazelan,
Belhar onez ase;
Bere harpe zilo zolan,
Otso tzarra gose.
Ai, abreak balu
Buruan kapelu,
Soinean soineko,
Makila eskuko,
Balakike gero

—Sabela badu hotz
Gogoa du bero—
Nola har bere gain
Ardi, marro, bildots,
Zuzen ala makur,
Abar eta egur,
Tupin eta zartain;
Eta nola molda
Saltsarekin salda:
Tupinean tripaki,
Zartainean erraki!

Eta futxo! nunbeitik,
Zeren gostuz ez dakit,
Soineko, buruko,
Makila eskuko,
Otsoak oro bildu!
Horra nun den hurbildu...

Hiru, lau, bortz artzain!
Otsoa dena zain;
Bortz, sei, zazpi zakur!
Otsoa da barur;
Ardiak maltso,
Otsoa otso!

Makilari bermaturik,
Artzain gisa xutiturik,
Hor dago: tente potente,
*Basagaitz'*ko jaun alkate!

Bainan ardiak nola bil?
Ez hola egonez ixil.

Hixtuz ez jakin,
Elherik ezin,
Gose min,
Zer egin?

Igortzen du marruma bat,
Ihurtzuria bezenbat!!

Hiru, lau, bortz artzain!
Otsoa dena zain;
Bortz, sei, zazpi zakur!
Otsoa hor barur;
Medor te, Labri te, Blak te?
Otsoa: tente potente!

Zazpi horek, bortz artzainek,
Zoin gehiagoka denek,
Ausik, urra eta jo!
Abrea zuten eho!!

Orai ez badabiltz otsoak:
Otso bi zangotakoak.
Eta dire lagunak, maltsoak,
Itxuraz, gutartekoak...

Gauden gu erne, bethi gure gain,
Ez baita behar otsorik artzain!

ASTOA ETA HIRU JABEAK

Ikazkin bat Senperen bizi zen denboran...
Legetzat hau baitzuen: irabaz arau jan,
Oihanean gaizoak gauza guti zaukan:
Hiru seme tzarrekin asto bat etxolan.

Nahiz etzuen jasan min bat ere behin,
Jaunaren orenean, heriotzea jin...
Astoaz ez jakinez orduan zer egin,
Erorkiz utzi zuen hiruentzat berdin.

Huna beraz hiruak astoaren jabe,
Osoki jabetzeko bakotxa herabe;
Etziren, hitz dauzuet, buru-minik gabe...
Erorki hoi zer zuten?... ez erhauts ez salbe!

Nolazpeit azkenean elgar entzun zuten:
Hirur egunetarik, osoki, dena den,
Astoa du bakotxak beretzat ukanen...
Joko xuxenagorik deusik etzitaken!

Zaharrenak lehenik kargatuz egurrez,
Baionara derama denbora laburrez;
Han asetzen da bera nasaiki xingarrez,
Astoa dagolarik... athean nigarrez!

Ondokoak ondotik hatzeman zuen lan;
Bainan astoak behin jaterat ez ukan:
Makilaren phereka maiz senditurikan,
Olorik ez belarrik ezin sartu tripan.

Gaizo Martin astoa zer gauza den jina!
Burutik pisu bezain zorrotik arina,
Bizkar gainak iduri teilaren izkina;
Hots, hezur eta larru goseak egina!

* * *

Hirugarrenarekin merkatura zoan,
Ezker eskuin, herrestan, soka bat lepoan;
Hura lasterkaraziz jaunak ezingoan
Usuxko zerabiltzan «debruak» ahoan!!

«Arri! debru kankaila, debruen alferra!»
Besagainka diola kaskatzen bizkarra...
Eskain liro Martinek uzker bat ederra,
Bainan gaizoak non du behar den indarra?

Errekarat astoa betbetan erori!!!
Bethikotz... Hemendik hats, handik... poxikeri...
Ona baino hobe, hiru jabeeri!!
Ondorioz utzirik hiru mila zorri!!

Gerthagarri hortarik bil irakaspena;
Hori, jaun andreak, da bakotxaren lana;
Orok ikasazue behar duzuen,
Ikusiz lauetarik zoin zen astoena!...

MANDOAREN ESPANTUAK

Mando mula bat zen
Xuria,
Xuri bezain gizen
Joria;
Ikustea baitzen
Loria;
Hots, Jaun Ertoraren
Mandoa!...

Xuri jori, lerdan,
Badoa,
Janik Etxebesten
Eta Hauzokoen
Lastoa...

Ororen muthil
Orotarik bil!!
Bainan,
Mainan,
Phereka,
Mereka,

Hain arthoski goxatua,
Zen bezala, mainatua,
Mandoak bere burua
 Zaukan,
 Ha... han,
 Sobera
 Gora!

Asto pullo beltxenari
Xuria zen aiher,
 Eta nola?
Mando denean ageri,
Asto belxak bazter!
 Hor, bertzela,
 Oldar bat, bi puzker!—
 Hanka zola
Dukete behingotz eri!

—Nor niz ni?
Ni, bai ni ?
Jauregiko behorraren,
Primetako lehenaren,
 Alaba!
Donapoleon izan den
Garañorik gaitzenaren
 Iloba!

Gauzarik ederrenak higatzen,
Mandorik pollitenak zahartzen:

Bere joritasuna,
Bere lerdentasuna,
Zituenekotz galdu,
«*Zuria*» zuten saldu.

Peloren eiheran muthil sarthu:
Bere aitaz mula han orhoitu!

BI ASTOAK

Beraz behin,
Jaun Mattin eta Jaun Pettan:
Ez dakit nungo bi asto,
Bazoazin
Biak betan...

Mattinek zama bat lasto
Bazeraman
Lorietan:

Traka-traka, traka-traka,
Nor gira gu'ka:
Handik uzker, hortik orro,
Odola harro;
Beharri buztanak gora,
Trufa sobera.

Uliak firrindan,
Bainan urrundikan,
Baitire minbera.
Trikitrikin trikutrikun,
Petan hor ilhun:

Kakoletan bortz kintal gatz,
Bizkarrean hatz;
Buztan beharriak ahal,
Belhaunez dal dal.

Uliek firrindan,
Sistaka denetan,
Badute nun bazkal.

Trikitrin, trak, trikin,
«Errak, gaixo Mattin?»
Trikutrin truk, trikun,
«Othoi, nezak, lagun?»

Mattinek, gaizo Petani
Laguntzarik ez eskaini...
Traka-traka, traka-traka,
Trufa gainerat musika:
«Zertaz duk, to, arrangura?»
Buztana bihurtuz gora,
Turrut eta zart! ahora
Egin dako *bertze hura!*

*Ibarbide'*ko errekan.

Zubirik ez,
Handik atheratzekotan,
Joan behar urez:

Pluf, plaf, eta punpalaplan!
Sekulako karmañolan,
Huna gure bi astoak,
Uli, gatz eta lastoak,
Nahas mahas igerikan,
Zoin gehiago musikan.

* * *

Orai behar dautzuet aiphatu
Azkenean zer zen hor gerthatu.
Mattini hoztu zaion odola.
Petani berriz hustu kakola,
Gatza dena urarekin urthu,
Lastoak beregain oro hartu!

Mattinen deiadarrak!
Eta haren nigarrak!
Debaldetan,
Alferretan!

Ordukotz gure Petan,
Biderat iganikan,
Hasia zen kopletan;
Bazoan arin arin,
Triki-traka, kilinklin,
Kakola hustuekin,
Muthurrari milikan,
Buztana firurikan!

IGELA, IDIA BEZENBAT NAHIZ

Igela,
Ergela,
Tripa xabal xabala,
Putzutik zagon,
Idi bati beha.

Idia
Lodia,
Tripa jori joria,
Janik bazka on,
Etzen beldur meha.

Igelak idiari:
Nola duk tripa hori?
Idiak igelari:
So' gizan bada niri!...

—Nahi dun zitzi?
Re ke ke ker, kerre kroak:

Letania Grekezkok

Behar tun utzi;

Nahi dun zorro ?

Mia putzu, mia berho,

Gau-et-egun berdin erho,

Ez egin orro!

Idiaren erraner,

Igela,

Ubela,

Ernari baitzen laster...

Ahotik,

Uzkitik,

Aingira bezain ixil;

Pokerrak

Uzkerrak

Barnerat guziak bil...

Ba, bainan... ezinbertzea:

Urratu zankon hertzea!

URTSOA ETA XINHAURRIA

Urri ondar haizearen hauskoaren

Beroa:

Andre zoro mokokari, haur ergelen

Gogoa;

Bainan ere pago, gaztain, haitz ederren

Hostoa

Ordudanik, herioko aurkituren

Da joa!

Hixtu luze saminetan horra nun den

Hegoa...

Eta, nekez, begiztatuz mendi heien

Lepoa,

Urtsoño bat —beldur dela sarearen—

Badoa,

Ur hotzketa, egarriak zeren duen

Ithoa!

Hor nunbait: Ainho ez bada, Udazubi,
Urhats bat eta urhats bi,
Sagar ala marrubi,
Neguari buruz, Andere xinhaurri;
Bethi bilha, bethi kurri,
Urerat zen erori:

Badabila,
Erdi hila,
Dena laster,
Denak alfer;
Bera ustez igerika,
Ura, nahi-t-ez, milika...
Ezinak ezin,
Harenak egin!

Etxalar galgarri hartarikan zabal,
Hegal bat eta bi hegal,
Oraintxet arras aphal,
Gure urtsoa jautsi —galtzen bada gal—
Hor, edateko gal, gal, gal,
Duelakoan ahal.

Ixil ixila,
Abantzu hila,
Azken oldarra
Laster beharra,
Ikusten du xinhaurria,
Laguntzerat ekharria,
Heltzen dio abarño bat
On dakion jal bidetzat.

Hurrap eta josta,
Itzul eta kurri,
Zenbait hezkur gero jasta,
Ttarrapattarat Xinhaurri...

Oi, bakearen loria!
Ba bainan ihiztaria
Gorderik da hurbil,
Urtsoa nahiz hil!

Orai du menean,
Harma begipean...
Tiroaren pazka!

Atx! horra nun, hatzka,
Zango bat harturik daukan...
... Bi hegalez urtsoa gan!

Ihiztariari, behar zen bezala,
Zion xinhaulriak ausiki aztala!

BI ZAKURRAK

Balujan

Bazoan

Larrua hotz ikharan,
Beharriak dilindan.

Bordaxarreko seme,
Egun barur, bihar mehe,
Sortuz geroz ez dut uste
Hertzea duela bethe.

Eta han,

Bidean,

Jauregiko *Gardian*
Joan-jin bati abian.

Gizen da hau eta hazkar,
Salda, xitxi, saltsa ondar,
Oilo, bildots, erbi, xingar,
Egun oroz baitu zer har.

Balujan

Gardian;

Usain hemen, musu han,
Itzulika musikan...

—To, gaizoa, nun habila?

—Jateko zerbaiten bilha.

—Ni ederki asean nuk.

—Neretzat ondarrik ez duk?

—Bainan, erradak, *Balujan*,

Zer duk hire kasko muñan,

Irauteko etxe hortan,

Goiz arrats uli bazketan?

Nahi duk zer jan, zer edan,

Eta lotarik egin lan?

Haugi bada nerekilan.

—Eta uste duk hirekin,

Herbail, mehar eta zikin,

Bi mila kukusoekin,

(Zauriaren gainerat min)

Nitazkela ni horrat jin?

Oi! behin, bederen behin,

Ase bat baneza egin?

—Alo, alo, jaun beldurti,
Aski diat elhe guti
Jana, idor ala busti,
Xuxen ukaiteko bethi.

—To beraz, erranak erran,
Emadak pata, *Gardian*.

Bat barur, uzkur, herabe,
Bertzea, lotsarik gabe,
Baduketen afari bat
Jauregiri galdatzerat
 Badoazi biak
 Haizatuz uliak.

 Itzulika,
 Mitzulika,
Ikusten du *Balujanek*
Lepo gaina *Gardianek*
Haragi bizi duela;
Eta dio berehala:
—Errak, lagun, zer haiz, eri?
Nork egin dauk lantto hori?
 —Nork egin

Niri min?

Uste duk badela nehor,
Balujan, Dik ala Medor,
Ni funditzeko gai denik?
Min edo zauri, ez duk hor,
Sinets nezak, bertze lanik
Lepokoarena baizik...
Hain nitek etxean maite
Nun lepotik bainaukate!

—Goraintziak etxekoer,
Ase hadi, ago eder.
Nahiago diat, barur,
Hantxet egon oraino gaur:
Kantuz, ilhargiari so...
Hoa jauregirat preso!!

XOXOA OILAXKO

Nago zertako dioten
Emana
Xoxoari, xoxoaren
Izena...

Sasi bazterrez ihesi,
Tu, tu, tui, tui, tri hi hi,
Trufaz ihiztariari,
Hegaldatu den xoxoa
Daukat ez dela zozoa.
Gaizoa, jaun ihiztari...

Xoxo bat bizkitartean,
Xoxo bat arrun erhoa,
Beltz zela oihan artean,
Utzirik hantxet berhoa,
Nonbeit aphaindu zen behin,
—Xuxen ez nakike nola—
Oilaxko baten lumekin,
Eta, oilaxko bezala,
Sartu, brist, oilotegian
Arrats ilhuntze irian.

Bainan biharamuneko,

Oilar, oilanda, oilaxko

Oro hasi direneko:

Ku ku ru ku, ko ko ri ko,

Ke ke re ke, ki ki ri ki...,

Xoxoak, baitu ahantzi

Berhoa zuela utzi,

Dio xixtuz... hain polliki!

Tu, tu nik, nik, nik, bai naski!

... Gudua pizteko aski.

—Nork egin du gutaz irri?

—Tu, tu nik, nik, nik, hi hi!

—Xixtulari, mixtulari,

Zer haiz hi?

Ala gutarteko berri

Duk nahi?

Eta sist, mokoarekin,

Eta zart, aztaparrekin.

Xoxo zozo, dohakabe,

Berhoz berho, sasiz sasi,

Nondik joanen haiz ihesi?

Lumak hintuen ebatsi:

Eder, argi, paregabe;
Hireak ordean josi!
Ai! bilhatzeko atherbe,
Ez haiz bi hegalen jabe.

Kantu, irriak ixildu...
Oilarrek aztaparrekin;
Oilaxkoek mokoekin,
Xoxoa zute biphildu!

Nexkatoko menditarra,
Hirirat, othoi, ez lerra.

BI GARRATOINAK

Aujame garratoina,
Gaskoina,
Eskuara nahiz jakin, Eta nehundik ezin,
Zer egin?...
Utzirik hor Baiona,
Hain ona,
—Phu zikhin!—
Abiatu zen behin,
Errobin,
Urez ur igerika,
Eta jin,
Mila espantuekin,
*Xopolo'*ko erreka
Bazterraino:
Biribil jaunaren
Eiherazainaren
Lurpe gelaraino.
Garratoin eskualduna
Biribil:
Muttur, larru leguna,
Uztaritzen dagona,

Eiharetarik hurbil...

Etxeko seme ona,

Nola bil

Eta nun

Baitaki,

Igande, astelegun,

Irin bezenbat bihi,

Bihi bezenbat irin,

Ogi, arto, ta zahi,

Jan ahala, zer nahi;

Pestetan, baita lagun,

Krasketun,

Krisketin,

Opil eta xitoki!

Aujame, Biribil:

Pot eman, musu bil...

Buhamia erdaraz,

Eskualduna eskuaraz:

—Bunjur,

—Agur.

—Ke boz bin?

—Hirekin?

—Nei pas ün gat!

—Etzakiat...!?
—Ni kan tapauk,
—Ona diauk...
—E tustem,
—Ba omen,
—De ke grata,
De ke karta,
—Salbu hi'ta,
Kaka meta!!
—Ke boz bin?
—Bai berdin!
—Dun, bam zen,
—Hots, goazen,
Urtasun'en etxea,
Ontasunez bethea...
Gure garraitonek gaur,
Mahats idor, arrainki,
Gasna gogor, tripaki,
Bonbona eta intzaur,
Kafe beltz ala dute,
Orotarik badute...
Orotarik jan eta,

Nahi berriz jastatu
Adan, piko merlatu...
Nau!... bainan...
Hauxe da zalaparta!
Nar ñau... Andere gatu
Biribilek aditu!

Eta han,
Biribilen laguna,
Izieldurak jana,
Aujame ihesi gan,
Bunpaka tarrapatan!!
—Bi mila galtxagorri,
Norat naizen ethorri!
Banian ba beldurra,
Gatu ala zakurra,
Nundik duken makurra,
Dagola hiritarra...

Gatuak ñau,
Zakurrak hau,
Bainan, bainan *Biribil*
Ez die oraino hil!

Jaun andereak, *Aujamettori* ehun milaka
goraintzi,
Nun ere baita, zuen beldurrez, debru gaskoina
ehortzi,
Niri bietan pot emaitekotz, sarri, bihar edo etzi,
Beharko ditu, *Errobin* barna, bere espantua
utzi!

Banoa Uztaritzerat,
Txopoloren laguntzerat!

ETXEA

Bixkar batean, iguzkitara, dago eskualdun
etxea!

Hegaztei gorri, arpegi garbi, eta zabalik athea;
Gorrian garbi: gure odola! garbian argi: bihotza!
Athea zabal: eskalek ere aurkhi dezaten
egoitza.

Eskual-Herriko bixkar batean ginen biziari sortu,
Iguzkitara dagon etxean gintuen indarrak hartu;
Oi, nola dugu geroztik utzi burhasoen atherbea?
Arrotz bat dela bixkar hartako etxaldearen
jabea!

Udazkenean, ihesi doha hegaztin ainhara
beltza,

Ez baitezake jasan gaixoak mendietan dugun
hotza;

Udaberrian, iguzki ona deneko berriz agertu,
Huna nun zaukun xori ber bera ezkaratz berean
sartu.

Xoriñoaren lur ohantzea negu luzean egon da:
Ixilik, hutsik, bainan halere nehork ez du
barreatu...

Zadien itzul, ainhara horri ez ginuen zeren
galda,
Urez haindian, bertzerik ez du gau et'egun
gogoratu.

Eskual-Herriko seme alabak, egin ainharak
bezala:

Bixkar hartarik, ezin bertzean, behar bazirezte
jautsi,

Orhoit arrotzak zuen etxea bildu nahiz
dabiltzala,

Zuen ohantze goxotik, othoi, ez bethikotz joan
ihesi!

**HAUR ELHE
HAURRENTZAT**

BAT ETA BAT!

Kantatzeko hala nola:

«Jeiki, jeiki, ene senhar gaizoa».

Bat eta bat jakizak direla bi;
Amarraina ur lasterretan garbi.
Bieri bat emotek, eta hiru;
Etxehandik moltsan badikek diru.

Bietan bi, nahi-t-ez, badituk lau;
Garizuman, xardin eta makallau.
Lauaz goiti, lehen maila baita bortz,
Pazkoz harat, beharko diagu hortz.

Biko, biko, biko berriz, horra sei,
Miko, miko, pixka, pixka baten gei;
Bethidanik, aiphatuena zazpi,
Jauregian, baditek xingar azpi.

Zazpiak Bat. Zazpi eta zortzi,
Zortzi horiek zazpiak tik ehortzi;
Bainan lauek bortzekin bederatzi,
Zortziari sor dakiola gaitzi.

Muslariek bortzekin hamarreko,
Hamarrez guk Agur Mariendako.

.....
Haurrak hea, othoitzza belhauniko;
Mahumari hegalak eroriko.

AKHERRAREN...

Akherraren adarraren makhurraren
Makhurra;

Hik bahuen, nik ez nikan akherraren
Beldurra.

Ahuntzaren esnearen gozoaren
Gozoa;

Hik ez ukhan, nik banian ophor esne
Beroa.

Pittikaren ilearen legunaren
Leguna;

Xuri ta beltz, pittika bat, gu bientzat
Fortuna.

Adar kakol, usain gaixto, heian dugun
Akherra

Garruzeko ferietan aitak saldu
Beharra.

Errape luz, esne gozo, bordan zagon
Ahuntza
Amak utzi Baigorriat, egin dezan
Ezkontza.

Jauzketari, jostakina, oi pittika
Pullita;
Enetako, hiretako, gurea duk
Battitta.

AKHELARRE

Hu, hu, hu,
Hu, hu, hu,
Huntzak egin oihu:
Akherra hor heldu.

Armiarmo,
Kakamarlo,
Apho, bare, sathor, suge
Sagarroi, pitots, basurde;
Arrano, sai, miru, bele...
Sorgin tzarrak ez loale.

Harroka pean ganbara,
Dilindan, beltz, gau inhara;
Ilhargiaren dirdira...
Akherrak hartu kadira.

Aphoak hapa,
Sathorrak hupa,
Okhilo muskerrak tok, tok, tok;
Gerrena nun dun,
Sorginak zaldun,
Gerrenan atsoak ixtaklok!

Akher zaharra goitikan,
Atso sorginak milikan,
Gazur edan,
Pikorrak jan!

Sorgina puies, Akherra khen!
Ez duk akherrik Landibarren!
Atsoak ihes, larrez larre,
Zugaramurdin Akhelarre!

ASTOA LOREDUN

Hiriburuiar asto gazte bat
Bazoan behin peko hirirat,
Baratze lorez bazeramala
Bi xistro gaitzek jasan ahala.

Liliak eder, usaina gozo,
Jendea zagon bazterretik so;
Eta Baionan, nexkatxak, irriz,
Hurbiltzen ziren, lili bat nahiz.

Oho puttiko, zer arrakasta!
Urhezko kapa duk hire basta;
Hiretzat dituk irriak, soak,
Nexkatxek hiri beren besoak.

Taka taka tak, bazoan beraz,
Behatzaileak ezin aldaraz;
Beharriak xut hatzetan pindar,
Buztan azpitik haizeak hazkar.

Etixerakoan, espantu guti,
Urhatsa labur patarra goiti;
Gure astoak nekez derama
Ura darion ongarri zama.

Bi beharriak hits eta zabal,
Buztana zikhin, zintzilik, apha!
Hatzak herrestan... putzka badoa,
Usain, urrinduz bazter osoa.

Aha putziko, hori duk planta!
Belztu zauk belztu goizeko manta;
Jendea, khexu, ihesi zoak
Phuka tinkatuz sudur ziloak.

Pullok oraino ez bazakien
Lore pullitak norentzat diren
Eta zertako zen asto sortu,
Oraikoan du zinez usmatu.

KHUIERI KHUIAKERI

Urrian harat, hegoarekin,
Sasoinekoa sasoinean jin:
Ezkurrak onthu haitz abarretan,
Khuiak ederrik artho landetan.

Petan Larrubeltz, etxeko jauna,
Ameriketan luzaz egona,
(Ikusiaren ikasia ez)
Badabila hor, landa bazterrez.

Bainan norekin othe mintzo da,
Erran-et-erran, nor du partida?
—Eso no ba bien, onbre, karako,
Karkula pa bon— eta holako.

Españolari nahas frantsesa,
Bien lotzeko, eskuara saltsa;
Urhea dir dir ahokoetan,
Yo se, yo soi-ka mintzo da Petan.

Mintzo da Petan, Petan Larrubeltz...
Khuiak ixilik; hori, gorri, beltz,
Geldi geldia, mutu eta gor,
Predikuari daudela gogor.

—Ke barbarida, khuia gaizoak,
Zuen egile okher, zozoak
Nola zaituzte hoin apha! utzi,
Bare zikhinen... (perdon)... kakuntzi.

Ezkurak aldiz, onik deus gabe,
Pikor mokor hoik tronuen jabe;
Haitz handienen besoak behar
Dantzarazteko zenbeit ezkur txar.

Gauzen egile izan banintz ni,
Jakinen nuen zer den konbeni:
Khuia buruak haitzen gainean,
Ezkur mokorrak sasi barnean.—

Erranik aski, bero, loale,
Abiatu zen gure tetele
Ez urrun zaukan oihan aldera,
Haitz baten pean lo egitera.

Etzan orduko, arima salbu,
Ezkur jaleen zurrunga badu;
Pantza daldaran, ahoa zabal,
Xistuarekin jozak atabal.

Bainan Petani, lo zagolarik,
Ezkurño batek, har gabetarik,
Jauzian jautsiz, xuxen xuxena,
Sistatu zion sudur gizena.

Larrubeltz khexu, demonioka,
Sudur puntari thorra, thorrika,
Ai, ei, ai... Bo, bo, min guti duke;
Eskolatu da behingotz, merke.

He, he, he, Petan, khuiak han ezar,
Ezkur koxkorak berho pean sar?
Hire muthurra khuiak jo balu,
Izanen hintzan, hi, khuia buru.

ULIA ETA XINHAURRIA

Uli, ulibeltz, ulitz,
(Erle hoinbertze balitz?)
Habe, leizor, leizafin,
Ausart, ohoin, gaixtagin,
Deus onik nehun ezin.
 Hots, tantiruri,
 Elgar iduri,
 Uliak uli.

Holakoetarik bat,
Airos iguzkitarat,
Ber bera soinulari,
Eta bera dantzari,
Bi hegalez firrindan,
Orai hemen, gero han...
 —Eskasa gantzan?
 Dunana jan zan!—
 Hari zer dantzan.

Hor andere Xinhaurri,
Loth, har, bil eta kurri,
Lasterka bazabilan,
Negu aintzin, dena lan.
Zerbait duenez galdu,
Ulia zaio heldu,
Kakazu hori,
Xinhaurriari
Elhe txarkari.

Itzul mitzul, erran no?
Zer dun eskas oraino?
Zikoitz mikoitz herresta,
Noiz xinhaurrien pesta?
Ai, ei, hoinbertze behar
Eta hoin txar, hoin mehar.
Pot bat edo bi
Sist edozoini,
Asea nun ni.

Pot eman ez hi bizi?
Mando batekin auzi,
Asto gainerat jauzi;
Buztana latzek hezi;
Hau sista, zera jasta...
Hori dun hire pesta?
Egun on, maite,
Balía zaite
Hotzak jin arte.

ASTOA ETA OTSOA

Benttetan arnoketa zabilan Astoko,
Bizkarrean zahagi, lephotik xahako;
Hatzak treberik eta buru nola kasko.

Hori jakina dago barrandan Otsoko.

Gau batez gerthaturik biak begiz begi,
Hasi ziren elheka, gezurra zilhegi.

Otsokok Astokori: gau on, jaun astoa;
Astokok Otsokori: to, gau on, otsoa;

—Zer daramak hoin berant eta norat hoa?

—Zahagian hiretzat txakolin gozoa.

—Otsoen jinkoak hu ni ganat ekharri;
Goseak hila nagok, ez hala egarri,
Gaurko badiat hitan: buru ta beharri,
Zerekin tripa bethe, nun bil osagarri.

—Lan hori goizalderat, onez, utz baheza?
Hor hurbil Salvatore baitugu eliza,
Hil gabe, nahi nitek entzun azken meza;
Gero jabalduko duk hobeki janiza.

Otsokok Astokori: baduk ene baia;
Astokok Otsokori: milesker, anaia.

Beraz Salbatorera ziren biak igan.
Astoa baitzen sartu bakharrik elizan,
Ostiko batez zuen athea hetsi han
Otsoak nigar eta barur egin zezan.

—Asto tzar mukuzua, musikan badakik;
Hire gezurrak oro alderat aithorzkik;
Berriz, gau beltzarekin, aurkitzen bahut nik,
Mezaren entzuteko ez dukek baimenik.

AXERIA ETA OILARRA

Orarretik
Bardotzeraino
Bada oraino
Bazter galdurik.

Errekan arrain,
Larretan herbi,
Hamar, hamabi
Axerien gain.

Ez naiz, ez, gero
Ur-oihan-zainez,
(Jaun Kargudunez)
Mintzatu gogo...

Hots, axeri bat
Bidaxundarra,
Gaskoin zaharra,
Jin zen biderat.

Eta bidetik,
Sabelean hotz,
Begiak zorrotz,
Ttapa ttapa ttik!

Horra hor nun den
Axeri hori
Oilar bañori
Bristez ohartzen.

Ez da sorhaio;
Hau matrikula,
Hura karkula,
Hurbiltzen zaio.

Janik bihi on,
Oraartarra,
Gure oilarra
Goraxko zagon.

—Oilar maitea,
Ez dakik gerla
Fini dugula?
Biba bakea!

Jauts hadi bertan
Gaiten besarka
Haugi hegalka,
Bi pot nik eman.

—Ze, Bakea guk?
Axeri gaixo,
Pottak zoin goxo!
Ago, heldu nuk.

To, berri onez
Dathotzik segur
Hantxe bi zahur;
Hi... Hala denez?

—Baia bi zakhur?
(Gogoa ilhun,
Gosea lagun),
Banoak... Agur.

SAGUEN BILZARREA

Jaun Goikoak berak daki
Gazte, zahar, handi, ttiki,
Zonbat sagu duen hilik
Etxean dugun Mininik.

Xokhoz xokho, harat hunat,
Nun dukeen ohointto bat
Gatu hauta badabila,
Erne, bainan zoin ixila.

Dirauten sagu bakharrak
Dira izigarri txarrak;
Alabainan jana xuhur:
Bethi mehe, usu barur.

Otsaileko gau batzuez
Jaun Minini, gatu legez,
Kantuz bazoan auzorat,
Lagun gisa... lagungorat.

Saguen pesta orduan!
Zer jauziak selhauruan!
Beldurrik ez, bada gauza;
Ai, hunek irauñ baleza.

Otsail bibitan gatuak,
Bakean ere saguak;
Hauiek beraz elgarrekin
Biltzarre bat zuten egin.

Predikari: *Toño Xahar*
Eta *Geazane Xingar*;
Bat arra, bertzea eme,
Biak erotik buhame.

Elhez Minini zuten jo
Larrutu, xehatu, eho;
Gatu debruak, duble ban,
Beharko dik amor eman!

Toñok errana nundik has
Guziak bat zauden arras:
Gatuari behar sarri
Joare klaska bat ezarri.

Elheak errex, lanak ez.
Hea sagurik bazenez,
Kide gazte ala zahar,
Joare berria nork ezar.

Hau eri, hura loale,
Amaño bat ume hazle,
Hunek hauxe, harek hura,
Hots, nehor ezin mentura;

Zertako ni eta ez hi?
Bat ez abiatu nahi.
Hor agertu zen Minini.
Krik, krak biltzarrea fini.

ESKUARA

Hala nola: «Anderia, gora zirade leihuan»

Iratzea mertxikaz bethe jarriko,
Zezen beltza zazpi xahalez erdiko.
Labettoa elhur xuriz gorrituko,
Eskualdunek Eskuara dute galduko.

Ur gainean ezarri dute zubia,
Hartan erein ogiko hazi garbia,
Han jin arte irin ophilño xuria,
Eskuarak ez, ez du galduko mihia.

SUGEA ETA GANIX

Gorhaila den,
Muskerra den,
Sugearen
 Umea
 Sugea.

Hotz denean,
Atherbean,
Lur barnean,
 Ohea
 Gordea.

Kurubilko,
Koropilo,
Hotza deno,
 Erdi lo
 Baitago.

Bainan behin,
Suge bat jin
Nik ez jakin
 Zer bidez;
 Goiz batez...

Bezperan eta gauaz harizan elhurak
Estalgi xuri pean zauzkala bazterrak.

Horma makhil,
Ezin dabil,
Behar du hil...
 Ganix han
 Iragan.

Jostagura,
Sukaldera,
Suge hura
 Dilindan
 Ereman.

Elhurra dantzan eta hixtuz haize hotza,
Supazterreko garrak phizten du bihotza.

Sugeari
Suak dagi
Larru garbi,
Hats, indar,
Funts... oldar.

—Ganix, kasu,
Sugeak, su,
Egin hixtu
Dela khexu.
Buztanak itzuli,
Errainek mitzuli,
Esker onez lili,
Eztena dauk jali.

—Debrien figura,
Zer duk arrangura?

Ganixek oraikoan
Gerrenaz errekitu;
Gaixtagina du, joan,
Sekulakotz kalitu.

Sugea suge;
Laguntza gabe
Utzirik, hobe.

HARTZA ETA BI KASKOINAK

Urtharril mina zela, bi kaskoin ihizin,
Elhurrez elhur, nekez, mendian zoazin;
Bepetan eta hurbil hartz bat zankoten jin.
Ihiztariek tiroka... galtzetan egin!

Jauzian hau igan zen haitz baten gainerat,
Bertzea zanpez datza gogor nola hil bat.
Eztiaren usainik etzuela daukat
Usnan egonik hartza joan baitzen han harat.

Ez emanik hartzari behar zen tiroa,
Ikhara daldaretan, lanhotsu gogoia,
Emekiño jausten da zuhaitz gainekoa
Eta etzanik dagon haren gana doa.

—Heit lagun, bizi haiza? Bai, diat atsegin
Osorik hi oraino ikustearekin;
Bainan usna musnaka hartzak dauk hitz egin?
Hoin ixilka zer zion nahi nitek jakin.

—Huna zer dautan erran hartzak beharrira:
«Gizon, adiskidetan bi mota badira,
Makhil geitzat haltzari nagusi mizpira,
Beldurti txar batekin ez jin ihizira».

ANDRENO BATEN OTHOITZA

Andreño bat hari zen
Nigarrez, nigarrez,
Gizonttoa txar baitzen
Sukharrez, sukharrez.

Bi begiek ithurri,
Hipaka, zotinka,
Etsiturik, bihurri,
Zainak ezin dauzka.

—Nola dutan maitea?
Ez galda, ez galda,
Ai, ni dohakabea!
Hilen da, hilen da.

Oi, senharretik berex,
Zer dezaket egin?
Bai, hiltzea zaut errex,
Hobe dut hil nadin!

Hel zakizkit, prest nago,
Heriotze ona;
Lur huntan, gehiago,
Utz ene laguna.

Othoitz minari xuxen,
Soin mampirik gabe,
Herio jauna jin zen,
Dailuaren jabe.

Nor dut hartu beharra,
—Idorki da mintzo—
Zuhaur ala senharra?
Zer zinion atzo?

Gure andrea zanpez
Mutu gelditu zen,
Ezinaren ezinez,
Gogor zura bezen.

Bere baitharaturik,
Noizpeit zinez hari,
Erran zion, gurturik,
Herio Hotzari:

—Noren duzun beharra
Nork duken lehia?
Hor dut ene senharra
Arrunt hil nahia!

AMIAMOKOREN BALENTRIA

Gorapenean,
Oren onean
Sorturikako
Amiamoko:
Dena zangar
Luze, mehar,
Dena lepho
Eta moko...

Hots, Amiamoko jauna,
Xitan utzirik laguna,
Ur bazterrez bazabilan
Bere bi makhilekilan.

Urak eder eta garbi,
Harea zolan ageri.

Arrainak goizik alhari,
Har, ulitx edo xixari,
Nun ez duketen janhari.
Oi, ni banintz arraintzari!

Hegi hegian,
Hor, agerian,
Xipak lorian;

Ur mehez mehe,
Garbi den hare
Xarboek bere;
Osina goiti
Kabozak jeiki;
Tropan ibilki...

Bainan brist! Zerk egin du brist:
Zilhar izpi, zilhar ximist?

Amarrain bat izipera
Harroka zilo batera

Joan da ihesi,
Baitu ikusi
Amiamoko
Zela hurbilsko.

Zangar luz geldirik zagon
Eta bere baithan zion:

Zer balio dik
Hari klask, hau klik,
Asean ase,
Goserik gabe
Jaten has hadin?
Gosetu arte,
Pausa duk hobe;
Dugun lo egin.

Moko hura hegalpean,
Lokhartu zen han berean.

Oi, ametsaren ederra!
Arrainez bazen leherra:

Bai aingira,
Bira, bira;
Txipa, xarbo,
Lerro, lerro;
Izokinxo,
Goxo, goxo;
Bai kaboza,
Goza, goza;
Bai amarrain,
Oi, zer dohain!

Ametsaren ederraren
Ederrez,
Papoaren, hustu arren,
Beharrez,
Airatu zitzaion loa.
Kanporaturik mokoa,
Lepho luz, kaxko laburra
Hasten zauku: purra, purra...

Helmenean,
Mahainean,
Ez lutsorik,
Ez lolorik...

Urak eder, urak argi,
Ur berak arrainez garbi;
Nehundik bat ez ageri...
Ametsetarik bazkari!

Zoalarik ohantzerat,
Xitan zen emea ganat,
Mokoluzek —Hau badinat!—
Beretu zuen... bare bat!

ARTZAINAREN ARRAINTZA

Pelo zagon artzain;
Aita zuen Argain;
Beraz Argain Pelo,
Lelo, leri, lelo.

Arthaldea bere,
Zorrik ez batere:
Ardiekin marro,
Laguntzat: Nabarro.

Harri batez mahain,
Bost erhiak zartain,
Gasnarekin talo,
Ongi zoan Pelo.

Pago trunkoz ohe,
Zer ditake hobe?
Pelok egiten lo,
Lelo, leri, lelo.

Bainan bethi lelo...
Noizpeit... aski talo;
Gerthatu Bidarrain,
Eta, nahiz arrain.

Xipa, xarbo, lolo,
Edo..., gure Pelo
Hasi zen arrainka,
Sakekin miaka.

Urean zelarik,
Uste gabetarik,
Gizon ez bada jaun,
Hor jin kaxketadun.

Emozkik bi talo!
Ja... Egon zen Pelo
Ezin erran hitzik,
Eman gabe pitsik.

* * *

Kaxketadunen on
Jakin badu nehok,
Han, Donapaleon,
Jakin zuen Pelok.

Geroztik baitaki,
Behingotz ba, naski,
Bidarrain ez dela
Egurgin bezala:

Arrainkia behar?
Urean sar,
Uretik har.

LEHOINA ETA ZIMINOAK

Hertzeak hutsik eta buruan ere min,
Lehoin bat jauregitik athera zen behin,
—Ginharrian erraki, gizenetik urin—
Moldez behar zuela bazkari bat egin.

Errege handienek hoi dute gaixtoa,
Baitire nola baita Peloren astoa;
Hunek, oloa nahiz, jaten du lastoa,
Heiek dukete berdin ogitzat arthoa.

Horra gure lehoina so eskuin, so ezker,
Usna hemen, usna han, orotarats laster,
Artetan hari dela orroaz bazterrer...
Bainan soak, lasterrak, ikhertzeak alfer.

Erregeren deiari abreak oro gor;
Hartz, azeri, basurde, otso, basa behor,
Gorde dira guziak, haundi eta kozkor...
Lehoina, barur minez, gelditu baitzen hor.

Noizpeit, urhatsa labur, hatsa laburrago,
Khaldarekin ezinez iraun gehiago,
Ur handira jautsi zen, etzela hil gogo
Bederen edan gabe duphatra bat trago.

* * *

Oi, bepetan lehoinak erauntsi orroa!
Haren bizkar gaineko biloen harroa!
Hantxet ikusia du zimino lerroa;
Jadanik hasi zaio goxatzen zorroa.

Zimino beltzez bazen andana pullita,
Mainhatzen hari batzu, bertzeak josteta;
Lehoinak bere baithan: hau duk jaki keta!
Neure aseak badik orai zerk axita.

Ai, ei, lehoin gaizoa gelditu zen behin
Hertzeak gurgurika, buruan bethi min;
Ziminoek, orroa entzutearekin,
Zuhaitz gorenatarat jo baitzuten arin.

Handik orai musikari,
Irri karkailetan hari,
Abarrez abar, dena jestu tzar,
Errege jaunari.

Hunek duela ithurri,
Harek ophil egin berri,
Batek zirriztan, bertzeak tiroz,
Ahorat igorri!

* * *

Gaitzitua lehoina, berea golkoan,
Zaparta, zarrapoka, zen heinbat harizan,
Dena sarraski gero, hila zelakoan,
Heldarra zariola, zanpala punp etzan.
Eta zikhintsu txarrek gezurra sinhetsi!
Hila dutela behar larrutu, ehortzi,
Huna nun diren airos haitzetarik jautsi.
Hila zelako harek hurbiltzerat utzi.

Ziminoak josta gura,
Lehoin zenak hil itxura;
Huni, pasoka, doblez joko
Jin zaion eskura.

Jokoarekin Hordago!
Hila, xutik, bizi gogo!
Ziminoena oraikoan duk
Bethikotz akhabo.

Aztaparretan hauk itho,
Buztanarekin hoik eho,
Saltsa gorrian lehoinak jan tik
Ziminoak oro.

NEGUTIK UDARAT

Xirula,

Xiruli,

Sagarren puntan mihula,

Sagarren pean mihuli,

Xiru liru la,

Xiru liru li.

Xiruli,

Xirula,

Negu bethean mihuri,

Xoxoek huntzan uztaila

Xiru liru li,

Xiru liru la.

Xirula,

Xiruli,

Gaztenondoen muskila

Iguzki joan izerdi.

Xiru liru la,

Xiru liru li.

Xiruli,
Xirula,

Nik baratzean marrubi,
Hosto pean karakoila;
Xiru liru li,
Xiru liru la.

Xirula,
Xiruli,

Khen iraka, surat olha,
Garbi, zorhi dukek goi.
Xiru liru la,
Xiru liru li.

Xiruli,
Xirula,

Marrubia larru gorri,
Soinean eder xingola.
Xiru liru li,
Xiru liru la.

Xirula,
Xiruli,

Arin emazkik, puttila,
Jauzi bat eta jauzi bi.

Xiru liru la,
Xiru liru li.

Xiruli,
Xirula,

Zinta gorri, galtza xuri,
Beirazak aiten odola.

Xiru liru li,
Xiru liru la.

Xirula,
Xiruli,

Neguak bihotz ahula,
Iguzkirat ager hadi.

Xiru liru la,
Xiru liru li.

Xiruli,
Xirula,

Emanen daiat, Panpili,
Ttunttunarekin xirula.

Xiru liru li,
Xiru liru la.

PETIRISANTSEN KANTUA

Hala nola: «Etxolan baditut bi manta»

Etxeko seme nintzan jeiki,
Dote gaitza nuen hunki;
Dotea daut ba, garbiki,
Trai tra lera lai leri,
Dotea daut ba, garbiki,
Debru zaharrak eremaki.

Lehenik, gatu bat bainaukan,
Lo zagona selhauruan,
Berak beharko krakadan,
Trai tra lera lai leran,
Berak beharko krakakadan,
Bi saguek dute dena jan.

Gero, xakur hauta: Xuriko,
Hezia, prest ihiziko,
Herbi batek deraut itho,
Trai tra lera lai lero,
Herbi batek deraut itho,
Beleri saldu eta kito.

Neure astoa bizkar hertsia,
Hauzoko sorhorat jautsi,
Ez nion khereta hetsi,
Trai tra lera lai leri,
Ez nion khereta hetsi,
Jandarmek dautatet ebatsi.

Gatu, zakur, astorik gabe,
Kukusoen nago jabe;
Soinean bi galtza pare,
Trai tra lera lai lare,
Soinean bi galtza pare,
Txarrena hobeaz ahalge.

Laur ardit nintuen sakelan,
Ezarri ditut arrandan;
Intresa topa dezadan,
Trai tra lera lai leran,
Intresa topa dezadan,
Sekuloron santa sekulan!

BOZ-OIHU, DEIADAR, NIGAR

PIARREX LABORARIA

Airea: Lurraren pean sar nindaiteke.

Eskual Herriko jaun gazte batek
laguntza bat daut galdatu,
nunbeit edozoin hiritan nahi
delakotz plazatu,
etxean akitasun gaxtorik
aski duela pairatu...

Arrapostutzat bertsuño batzu
horri baitazkot moldatu,
bertze zenbeiti, oren berean,
nahi ninduzke kantatu.

Primaderak eder heldu dituk
eskualdun herrietara:
oihan, mendi, zelai bazterrak
oro xoragarri bixtara;
lilieki irriz, xorieki kantuz
eskerrak bihurtzen zerura...

Beraz Piarrex laboraria,
zer zauk hiri jin burura,
eskualdun haurra, nola zauk jausten
nigarra begietara?

Dudarik gabe noizpeit entzun duk
hiritar lagun gaixtoa:
irri faltsu batekin erran dauk
harrek: «muthiko tontoa,
zertako lurrarekin borrokan
har izerditan ithoa?...
lurretik aberats sinesteko
behar dik izan zozoa,
haugi gurekin, hirian dukek
hirezat bizi gozoa».

Urguluntzi baten gatik aitamak
ez ahal tuk utziko!
Zahartuz geroz, hi gabe Piarrex
nola dira biziko?
Etxetik urrunduz ihesi bihotza
diotek hautsiko!
—Hik hilarazi burhasoak
auzoak ditik ehartziko...
Zer bihotz mina seme batentzat
eternitate guziko!

Etzakala sinets hirietan
direla gauza ederrak;
ez deus ederragorik ez duk
nola sort herriko bazterrak,
nola beren usain gozoezin
lozez estali beharrak...

Behazak bada zer lezaken
hiriko jaunxikilen indarrak
langilerik ez izanez alfer
gelditzen balire lurak!

Iguzkiak erakitzen duen
jusa mahats golkoetan
behar diagu maiz edan
ukaitekotz odolik zainetan;
Agorrilan, urhe disdiran
dagon ogia zelaietan
gureztat hik bildu behar duk
xeha dezaten eiharetan...
mahats ogirik ez duk ez sortzen
hiriko jauregietan!

Urthe bakar bat laboraria
geldi baledi lanetik,
asun laphar gaixtoak kanpo
zer altxa litake lurretik?
—Orro gaitzak orduan entzun
litazkek hirien barnetik...
Erhoturikan, hilak iduri
heldu hobien zolatik,
batak bertzea jan lezakeie
jendek gosearen gatik!!

Errainzkik beraz, laboraria,
hire lurak artharekin,
alhorretan egin lanak ez dauk
bihotzean emanen min.
Xutik ago, zeruari so,
besoetz azkar, gogoz arin,
ongarria hedazak airoski,
beldur ez har phildak zikin,
hiriko jaun andren janaria
duk ongarritik behar jin.

Eskual Herrian primadera bai
bethi jinen duk ederra,
buru zoro kolpe batean,
hirirat ez hadila lerra...
Mendiaren hegaletan, soizak
nola bizi den epherra,
soizak phentzeko loren gainean
erlea dagon alferra;
Othoi, Piarrex, ez utz ariman
sartzerat lurraren herra.

Eta orai, zeruko Jaun ona,
zuri dautzut galdegiten
—Amentzat haurren amodioa
zuk duzulakotz egiten—
eskualdun seme, lur langileak
bethi xuxen ibil diton,
beren ama, zuk eman lurra,
bihotzez maite dezaten,
hola eginez ez ahanzteko
zeru hortarat igaiten...!!

LABORARIA! LABORARIA!

Laboraria! Laboraria!

hiriak zauzkik ederrak?

Ederrik nehon deus ez duk nola

gure herriko bazterrak,

Nola usain on gozoenekin

lozez estali belharrak.

Behazak bada zerbeit lezaken

hiriko jaunen indarrak,

Langilerik ez izanez alfer

gelditzen balire lurrak!!

Ekhi beroak gorritzen duen

ura mahats golkoetan

Behar diagu edan odolik

atxikitzekotz zainetan;

Et'agorrilaz urhe distiran

den ogia zelhaietan,

guretzat bildu behar duk xeha

dezaukuten eiharetan,

Mahats ogirik ez baita sortzen

hiriko jauregietan.

Urthe bakhar bat laboraria
geldi baledi lanetik,
Asun beltz, othe, laphar, horra zer
jaio litaken lurretik!
Orduan orro gaitzak lituzkek
entzun hirien barnetik...
Erhoturikan, hilak iduri
heldu hobien zolatik,
Jan lezakeie batak bertzea
jendek gosearen gatik.

Errainzkik beraz, laboraria,
hire lurrak artharekin.
Pentzetan egin lanak ez dauk, ez,
bihotzean emanen min.
Hor xutik ago, zeruari so,
besoz azkar, gogoz arin;
Ongarria're hedazak nasai;
beldur ez har phildak zikin.
Xapeldun hoiien hazkurri dena
duk ongarritik behar jin!

Eskual-herrian primadera bai
bethi jinen duk ederra!
Burzoraturik hiri-alderat
ez hadila othoi lerra.
Mendi gorenen maldetan soizak
nola bizi den epherra,
Hea baratze loren gainean
erlea dagon alferra!
Laboraria! Utz hiritarrer
guretzat daukaten herra!

*Bainan ondoan oraino berriz ontu
zituen Oxobik eta xuxendu
lehenagoko hamar bertsuak. Hemen
doatzila irakurlek ikus dezaten nola
berritzen zituen bere neurthitz
xaharrak.*

Eskual-herriko jaun gazte batek
laguntza bat daut galdatu,
Edozoin moldez nonbait hirian
nahi delakotz plazatu,
Etxean omen akhiturikan
aski duela pairatu.

Arrapostutzat bertsuño batzu
horri baitazkot moldatu,
Bertze zonbaiti, oren berean,
nahi nintuzke kantatu.

Udaberriak eder heldu tuk
eskualdun herrietara:
Oihan-mendiak, zelhai bazterrak
zoin xoragarri bixtara!
Liliak irriz, xoriak kantuz,
esker bihurtzen zerura...
Beraz, Piarrex laboraria,
zer zaik hiri jin burura?
Eskualdun haurra, ez zaika jausten
nigarra begietara?

Dudarik gabe noizbait entzuk duk
hiritar lagun gaixtoa.
Irri aditu faltsu batekin
erran dauk: «Gaixo tontoa,
Zertako bada lurrari buruz
ar izerditan ithoa?
Hortik aberats sinestekotzat
behar dik izan zozoa.
Haugi gurekin, hirian dukek
hiretzat bizi gozoa!»

Urgulu zoroz ez ahal dituk
hire aitamak utziko?
Zahartuz geroz, hi gabe, haurra,
nola dituk ba biziko?
Ihesi joanez hire aitari
bihotza diok hautsiko.
Hik hil-arazi burhaso onak
auzo batek ehortsiko.
Zer bihotz-mina seme batentzat
eternitate guziko.

Ez othoi sinets hirian xoilki
direla gauza ederrak!
Ez duk deus ere ederragorik
nola sort-herri bazterrak,
Beren usain on gozoekilan
lorez estali zelhaiak...
Beha zak bada zer lezakeien
hiritarxkilen indarrak,
Langile faltan alfer eta lo
gelditzen balire lurrak?

Iguzki-suak ontu jus hura
mahats pikor molkoetan,
Behar diagu ardura edan
odolik izaitekotan.
Berdin udetan, urhe distiran
den ogia zelhaietan
Hik guretako bildu behar duk
xeha dezaten errotan...
Mahats-ogirik ez duk ez sortzen
hiriko jauregietan.

Urthe bakhar bat eogn baledi
laboraria lanetik,
Asunez kanpo, lapharrez kanpo,
zer bil litake lurretik?
Orro handiak entzun litazkek
hiri-murruen barnetik,
Erhoturikan, hilak iduri,
heldu hobien zolatik:
Batak bertzea jan lezakeie
jendek gosearen gatik.

Erainzkik, beraz, laboraria,
hire lurak artharekin:
Alhorretako lanak ez derauk
bihotzean emanen min.
Bai, xutik ago, zeruari so,
besoz azkar, gogoz arin:
Emak lanari, emak airoski:
beldur ez har phildak zikin.
Jaun-andrexpikilen janhari hauta
duk ongarritik behar jin!

Eskual-herrian uda berria
bethi jinen duk ederra:
Burzoroaldi itsu batean
hirirat othoi ez lerra...
Soizak mendiko belharretarik
nola bizi den epherra...
Soizak phentzeko loren gainean
erlea dagon alferra...
Othoi, Piarrex, ez utz ariman
sartzerat lurraren herra.

Azken oihua, zeruko Jauna,
zuri derautzut egiten,
Amentzat haurren amodioa
zuk duzulakotz emaiten.
Eskualdun seme, lur-langileak
bethi xuxen ibil ditentzen;
Bai, beren ama, zuk eman lurra
bihotzez maitha dezaten,
Hola eginez ez ahanzteko
zeru hortarat igaiten.

AMA!

Airea: Ortziraletan duzu Garruzen merkatu!

Maitatua sobera nintzelarik haurra,
ez nakien nik zer zen amaren beharra;
bortu batean orai naiz bakar bakarra,
hartaz orhoit' orduko heldu zaut nigarra.

Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik,
baitoazi xoriak ohantze gozotik,
halaber joan ninduzun amaren altzotik...
ahantzia bainute herrian engoitik!

Bainan ama gaixoak ez nu ez ahantzi:
maiz daut Eskual Herritik igortzen goraintzi:
hautsi nion bihotza, nuenean utzi;
neretzat baizik ez da halere han bizi.

Bero daukat nik ere bihotzean garra,
Jinkoak piztu zauntan eskualdun pindarra!!
ama baitut oraino minetan indarra,
ama, gau ilhunean, argidun izarra!!!

Nere bortu gainetan baniz enoatzen,
gaizkirat balinbazaut bihotza lerratzen,
zure begi garbiez, ama, naiz orhoitzen,
eta lanari gero kuraiekin lotzen!

Oi maiz ametsetarik izan dut gogoan
goxoki nindagola lehen ohakoan,
aingeruer begira, ganbera xokoan,
eta, zu hantxet irriz, ama, ner'ondoan!

Frangotan huts ohiez orhoitzen ere niz...
ama, gazte denbora berriz haste balitz!
nigar egin-arazi dautzut anhitz aldiz,
nigarrak niri zauzkit jauzten orai borthitz!

Aspaldi du naizela sor-etxetik joana,
hamargarren urthea hurbil iragana:
noiz othe naiz hemendik jinen zure gana,
ama, saristatzerat zor dautzutan lana?

Untziak noiz nu berriz horrat eremanen?
etxerako bidexka noiz dut nik iganen?
eta zutarik, ama, musu bat ukanen?
oi! ba laster dautazu agian emanen!

* * *

Aho batek eztiki diolarik: Ama!
hitz goxo bakar horrek mundu bat derama...,
ama baino hoberik zer ditake asma?
haren maithatzen beraz gaiten oro thema.

Eskualduna, 1911ko apirilaren 7an

XORI PAPO-GORRIA

Airea: Mendian zoin den eder

Legun ta xuri daude eskualdun bazterrak,
gau batez oro dauzku beretu elhurrak;
teilatu hegietan, hormaren nigarrak
ezin urthuz dagozi, hain dire gogorak...

Goizik jarria nintzen supazter xokoan,
nere gorphutz guzia gozoki beroan,
noiz ere entzun baitut tok tok tok leihoan...
papo gorriño bat zen bakarrik kanpoan!

Ixil-ixila zagon, ikharan gaixoa,
goseturik, doi-doia jasanez aroa...
Ikusi nuenean zabaltzen leihoa,
atseginez harrotu daut bere papoa!

Ideki dutaneko, xoria zaut sartu,
bera, beldurrik gabe, suari ohartu:
hantxe, garrari hurbil, odola hazkartu,
gero nik purruxkatu ogi dena hartu!

Golkoa betherik da hegaldaka hasten,
itzul airosak dauzkit airean egiten,
azkenean etzauta bururat igaiten
eta handik kantu bat lorian emaiten!!...

Azken eskerrak zauztan gaixtoak bihurtzen,
jadanikan oihanaz orroitua baitzen...
Ikusi dutanean kanporat airatzen,
iguzki ephel hits bat ari zen agertzen!

Habil, papo-gorria, habil oihanerat,
Jinkoak eman daukan herri zabalerat...
Gutarik joan direnak ihesi galtzerat,
hola itzul balite laster sor-etxerat!!

Geroztik, iguzkia jeikitzen denean,
mertxik ondo zahar bait baitut baratzean,
xori bat, pausaturik abar gorenean,
maiz hor kantuz ari zaut boz ederrenean.

Mertxikaren gainerat heldu den xoria,
buruan daukat dela lehengo eria;
gogotik eman nazkon sua, janaria,
berriz kantuz eskaintzen daut bere saria!...

Adixkideak, egun galde bat orori:
herrian elhur hotza zaukunean ari,
zuen leihoak idek papo-gorriari,
xori bakarra dugu neguan kantari!!

AGUR AMERIKETAKO ESKUALDUNERI

Airea: Ttiki ttikittik aitak et'amak

Nork erranen daut Eskualdun orok
zer odol dugun zainetan,
Guziek zerek egiten daukun
«pil pil» noizbeit bihotzetan,
egun ederrez bagaudelarik
ardi zain mendi gainetan,
edo barnean, suari beha,
negu gau ilhun hotzetan!...

Gutan nork ez du maiz edo behin
nahi borthitz bat senditu,
itsaso handik heldu oihua
duelarikan aditu...?
—Herrian segur etxerik ez da
xutik oraino gelditu,
nundik ez denik haur bat bederen
Amerikano jalgitu!

* * *

Ikusi ditut lagun maiteak
Ameriketarat joaiten;
nigarrez, bainan beldurrik gabe
itsas-untzirat igaiten.
Oi egun hetan bihotzak ixil
zoin nekez ziren egoiten!
Ama gaixoek nola zituzten
ondar musuak emaiten!!

Amen bihotzak argira zabal
orduan ikus bagintza,
ez ginezake guhaurek sinets
jasaiten duten min gaitza;
bethi geroztik heien gogoak
airez haurrekin dabilta...
lagun ohiak, zuen aldetik
atxik azkar ezagutza!

Etxean utzi ditutzuener
artetan igor berriak;
ez lotsa lanak baditu ere
gogortu zuen erhiak;
ama xaharrek maite dituzte
letretan hitzak larriak,
berek dakiten eskuara garbiz
direnean ezarriak!

* * *

Eskualdun haurrak, Ameriketan
errones zinezten sartu,
bainan lanetik zirezte laster
gizon fierrak agertu!
Eskual Herri bat lur arrotzetan
horra non den orai sortu,
zuen bidea horra non duten
bertze jendek nahi hartu.

Erroak barna sartuz geroztik
haitza bere hartan behar,
zabal eta xut handitzekotan
luzaz beira dezan indar:
adixkideak, etxean ukan
irakaspén zuzenak har,
makurrik gabe hor ibiltzekotz
egun bezain ontsa bihar!

... Gu berexteko zerbeit direa
itsaso, leihor, ibaiak?
Anaitasuna nondik dezake
galaraz itsas handiak??
Ez... Eskualdunak, eskualdun gauden
guziz elgar atxikiak,
Frantzian orduz nola baikinén,
Ameriketán anaiak!

Goraki beraz nahi dut erran:
agur, agur, Eskualdunak,
dantzari lerden, airos kantari,
nik ezin ahantz lagunak!

Oi nahiago zinuzkete ba
haurriden musu legunak...
bainan gogotik onhar-zkitzue
nere bertsu bihotzdunak!

Eskualduna, 1991ko agorrilaren 25ean

KANTAZAK, OTTIA!

Airea: Oilarra kukuruka

Bazterretan ilhuna delarik hedatzen,
Etxeko supazterra denean argitzen,
Hantxe bere kantuer ottia da lotzen,
Soseguz dituela jendeak bethetzen...

—Oi kantazak, ottia, supazter xokoan!
Atsegin zer bat dautak emaiten gogoan;
asko dabiltzalarik ihesi kanpoan,
etxeko seme hago sugaien ondoan!

... Idiek deramate herrestan goldea,
Haziarentzat xuxen idekiz bidea;
Egun oroz han dute, han, adixdidea:
Ottia kantuz ari lurrian gordea...

Alhor-xiloetarik kantazak, ottia!
Hirira nahi bada joan laboraria;
Nigarretan eginez kopla bat ezitia,
Zer litaken errakok lurraren zauria...

... Nola Kalifornian artzain eskualdunak,
Halaber Argentinan lexero lagunak
Iragaiten ditu ba gostuan egunak
Entzunez ottiaren kantu bihotzdunak.

—Kantazak horgo mendi, bortu ta pentzetan;
Herriaz Eskualdunen mintzo haizenetan,
Sor-etxea diotek lotzen gogoetan,
Burhasoen orhoitza pizten bihotzetan!

Hots, ottia, kantazak, ez dadila ixil,
Hitarik dugun ikas nola guhaur ibil!
Ez gelditurik ere sor xokoer hurbil,
Harat behar deneko gaiten guziak bil!

Eskualduna, 1911ko buruilaren lehenean

OIHARZUNAK MENDIAN ZER DION

Airea: Sor lekua utziz geroz

Bizia niri baitzautan
ezin jasanezko zama,
Auhene-minez betherik dut
erran: «Zer egin? Zer asma?
Jinko Jaun zuzenik othe da?
Mundu hau zerek derama?»
... Oiharzunak erreka zolan
ihardetsi deraut: «ama!»

«Ama!» zion oiharzunak
hegaldatuz inguruan—
Ezti zitzauzkitan minak
zintudalarik munduan.
Orai nun zaude jakiteko
nigarrez hemen zer dudan?
... Oiharzunak aldiz airoski
dio: «zeruan, zeruan!»

Ama! zeruan bazaude,
Jaunak zaitu hor emana.
Ez bazitazke jauts hortik
zure semearen gana,
Igor dezadazu bederen
gizonen zain dabilana...
... Oiharzunaren oihua zen
orotarik: «Iana, Iana!»

Zeruko Jinkoa, zer dut
hoi behar nere minekin?
Badut aski pairaturik
hemengo biziarekin!
Lan horrek nu eta xahutzen
bere dohain tzarrenekin...
... Oiharzunak bortuan gora
zion: «Enekin, enekin!»

Zurekin? oi eskuz esku?
zatozkit ba laster, Jauna!
Zorigaitzak jo dituen
gizon flakoen laguna...
Zer! Orai zu zaitut entzuten
aditzean oiharzuna,
Haizearekin bazterretan
diolarik: «Huna, huna!»

* * *

Urrun etzatera zoan
odoletan iguzkia,
Osoki garra galdurik,
goizdanik baitzen jeikia!
Eta nik jakin dut orduan
lur huntan zer den egia:
Behar dugula noizpeit orok
nigarrez busti begia!

Bainan iguzkia nola
bethi berriz pizten baita,
Gu berma gaiten othoiztuz
zeruetan dugun Aita.
Hots, auhen-minetan dezagun
bihotz-bihotzetik kanta:
Garraituren dugu segurki
zorigaitzaren zaparta!

* * *

Lehen izarrek argitzen
zuten zeru-gain urdina,
Nik igorri dutanean
eskualdunen irrintzina,
Haren hegalekin bortuan
aira zadin ene mina...
... Arrats hartan zenbat goxo zen
oiharzun airos arina!

Eskualduna, 1911ko buruhilaren 8an

OTXALDERI

Bidarraiko donadoen airean

Zonbat aldiz othe duk denboran, Otxalde,
Kantatu bihotzetik Eskualdunen alde!...
Segur nor ere baita Madrilen alkalde,
Ez dik sekulan ukan hik bezenbat galde!

Eskual Herri maiteko besta zaharretan,
Koplarientzat egin biltzar ederretan,
Bahuen aditzale plaza-bazterretan,
Hiri so baitzagozin irri-nigarretan!

Xoriburu guziez aise haiz jostatu,
Zikoitz alfer zoroiez borthizki trufatu;
Bainan Eskualdun ona zinez duk aipatu,
Hire laguntzat hura bethi duk hautatu.

Behin eman hintuen «Gilenen» kantuak:
Nola kilo-lanetan zaduzkan kontuak...
Egun hartan neskatxak, sartuz espantuak,
Ihesi joan zituan, ahalgez hantuak!

Guziak zirelarik beren ustez abil,
Huna zer hion hetaz: ezkontzekotz umil,
Jaun bat ukan orduko gain-gainetik zarpil,
«Galtzetako ziloak erdirat ezin bil!»

Bazela're bertzerik noizpeit haiz ohartu:
Ehintzena goiz batez ostatuan sartu,
Jan, edan eta gero... moltsa huts gerthatu...
Saritzat andereak zonbat zaukan hartu?

Ez bide lukek orai gertha holakorik;
Bakarrik dirudunak dagozik aserik.
Kantuek ez baitute biltzen oilaskorik,
Kantuekin hintazke laster hil goserik!

Bidarraitar donado lagun gehienak
Engoitik hirekin tuk lur-pean etzanak:
Hobirat emefiño bizi dutenak
Heldu zauzkik erranez othoitz hoberenak!...

* * *

Bidarrain sortua nuk mendien artean,
Hik ezagutu dukan etxeño batean.
Hire koplak ikasi ditiat haurrean,
Barna sarturik zaudek ene bihotzean.

Barka dauzkidak beraz galde bat edo bi:
Aphezak baitzuen maiz oilar, bildotx, erbi,
Denboran hik omen duk lagundu Zaldubi.
... Zerutik halaber laguntzak... Oxobi!

Eskualduna, 1911ko buruilaren 8an

GAITEN ESKUARAZ MINTZA

Airea: Salvatore gora da

Jakintsunek hedatzen dute gezur frango;
Batek ba dionean, bertzek «ez» errango;
Bainan guziek zer hau daukate behingo;
Mintzaietan eskuara lehen-lehen dago.

Arrotz buru gogor hoik, zoin gehiagoka,
Horra non hari diren elgarrekin joka,
Liburu-kasetetan borthizki mokoka,
Ezinez hein onean bospasei hitz koka!

Eta behar ginuke guhaurek ahantzi,
Berentzat har dezaten erdalduner utzi...?
Eskuara dutelakotz hoiek nahi jauntzi,
Zer! dugula behar guk ahalgez erauntzi?

—Ai, lagunak, ez sinets gaskoin nahasia,
Eskuarari baitio gudu bat hasia,
Geldirik ez dagoke horren jelosia,
Bizikor ikustean bere nagusia.

Gaskoinak eskuara du nahi-t-ez nagusi,
Zinez horra zertako zaion hain itsusi!
Bizpalau mintzai ditu batetara josi;
Eskuararentzat guk ez dugu deus erosi.

* * *

Eskuara garbi nahiz guretzat beiratu,
Arbasoek lan gaitzak dituzte pairatu;
Etsai borthitzenekin dire gudukatu,
Garraitu baino lehen ez dute barkatu.

... Lokartuak dagozi hil-herri hotzetan...
Heien irakaspentak sartuz bihotzetan,
Orai dugun hor egin zazkiten hitzetan
Othoitzño bat bederen igande goizetan!

Gutan badea norbeit ahanzi duenik,
Haur, norek hazia den bere bulharretik?
Elhetan goxoenak ororen gainetik
Amak eskuaraz erran zauzkigun lehenik!

* * *

Esnea zurgatzean eskuara dut edan,
Eskuaraz mintzo're zaut odola zainetan.
Munduko jeloskorrak has bite, has, trufan,
Merke nahi badute zafraldi bat ukan!

Berma hor, haurrideak! Ohoinak dabilta
Ebastekotan gure bihotzaren giltza!!
Dezagun orok egin bihotzez agintza:
Elgarrekin eskuaraz gaiten bethi mintza!

Eskualduna, 1911ko buruilaren 15ean

NERE HERRIKO BESTA

Airea: Adio izar ederra

Iguzkia doi-doia sortzen da zerutik,
Izkilak «tanga-tanga» dio're dorretik:
 «Guziak xutik,
 Jeikiz ohetik,
 Ordu da engoitik!
Dugun orok egun hau iragan gogotik!»

Etxek-andre biphilak elizara jausten,
Bidean dituztela zaiak erakusten...
 Meza entzuten,
 Handikan xuxen
 Etxeraino jiten;
Ez da berdin goizegi lanean has diten!

Gero bigarren mezan ai zer boz larriak,
Ikaran dauzkatela bazter hil-herriak!
 Eskual-ohiak,
 Iratzarriak,
 Bilduz beharriak,
Kantuen aditzeko dagozi jarriak!

Eguerdiko mahainak ziren ezarriak!

Jaki hoberenekin arrunt estaliak!

Bildotx guriak,

Oilo larriak,

Amarrain garbiak!

Eskerrak merezi tu etxek'anderiak!

Edariez oraino ez dut deus erranik,

Alta sei, zazpi trago baditut edanik!

Ala gorritik,

Ala xuritik,

Bainan etxekotik!

Ez dakit erretorak baduken hoberik!

Artharekin daukagu plaza bat herrian,

Orai hala baitago nola zen berrian!

Egun lorian,

Lauak irian

Oror agerian

Zer partida daukuten ereman airian!

Zaiadun beltz mehatx bat egon da nagusi,
Pilotari hoberik ez baitut ikusi.

Aphez bat hertsia,
Hor zauku jautsi,
Ez baitzait itsusi:

Ez du horrek oilaxko anhitzik iretsi!

Gero gazte zaharrek gudu bat ginuen,
Eskualdun jauzietan zoinek garraituren!

Beha zoin xuxen
Guziak gauden,
Airos eta lerdan!

Zaharrak, jujen ustez, egon dire lehen!

Ostatu zokoetan, koplariak aldiz,
Ditxotan ari dire hunek hura murriz!

Begiak «diz-diz»,
Mihi puntan hitz,
Irabazi nahiz...

Guziek badakite nola gogoia pitz!

Izarño bat badoa hantxet argitzerat,
Jinkoaren begia behaka lurrerat...

Goazen etxerat

Loz asetzerat...

Hots, haurrak barnerat!

Goizik bihar joaiteko zoin bere lanerat!

Eskualduna, 1911ko buruilaren 22an

ZAZPIAK BAT

Airea: Ume eder bat ikusi nuben

Nehork ez daki lehen zer ziren
Eskualdun aita larriak;
Den jakintsunak ezin tu jakin
Orduz iragan berriak;
Ditaken toki garbienean
noiz danik diren jarriak,
Nondik dituen eki-haizeak
lur huntarat ekarriak.

Frantzian hiru: Baxenabarre
Lapurdi, ta Xuberoa;
Espainian lau: Bizkai, Alaba,
Nabarra, ta Gipuzkoa.
Zazpi herriek zer bat daukate
sortu danik betikoa:
Librotasuna beiratzekotan
bihotza guziz beroa!

Erromanoak zagozilarik
orotan hurbil nagusi.
Orai duela hogoi bat mende
gutaraino ziren jautsi;
Aise zituzten bertze jendeak
bere hartarat iretsi,
Eskualdun haurrak bezalakorik
nehon etzuten ikusi.

Eskualdun gaitza, beldurrik gabe,
buru has zagon guduan,
Borthizki joka, begiak sutan,
ezpata xoil bat eskuan;
Ikharan oro zauzkatelarik
irrintzinek inguruan!...
Erromanoek bakea laster
utzi zakoten orduan!

Gudukariak multzoka dire
geroztik hunat agertu.
Guziak aitek peñen gainetik
zalu dituzte lehertu.
«Karloman» bera nigar eginez
Frantzian barna da sartu,
Iloba «Rolan» hil dakotela
baita bidean ohartu...

Moroek aldiz gure fedea
nahi zaukuten ebatsi;
Bertzer bezala, heier zer ziren
arbasoek erakutsi:
Bere zituzten lur-eremuak
izan gatik ere hertsu,
Erdaldun batek etzuela, ez,
hango mugetarik hautsi!

* * *

Eskual Herriak horra non zuen
zonbeit menderen bakea;
Zazpi ahizpak airos zagozin,
iganik bide nekea;
Familieta bat zen orduan
haur guzientzat legea:
Den ttipienak etzuelarik
ezagutzen ahalgea.

Elgarretarik gaituztelakotz
gaixtakeriaz berextu,
Erdaldun askok diote beraz
odolez girela hustu...
Egin bezate, samur gorrian,
sugeak bezenbat hixtu,
Gure bihotza bethi ber-bera
thona batek ez du histu!

Gure gogoak berextekotan
eman dute Bidasoa
Ai, zabaldurik ere nolazpeit
gur'artean itsasoa,
Batzuer eta bertze haurrider
ebats zezaketen soa,
Bainan bihotza ginuen orok
beiratuko bat osoa!!

Zazpi ahizpak oraino mintzo
dire hitz eder beretan;
Norbeit eskuaraz jabetu nahiz
ager baledi lanetan,
Gudukatzeko xuti litazke
heien haur guziak betan,
Aita zaharren irrintzin gaitzak
adiaraziz airetan!

Odol beretik sortu semeak
elgarrentzat anai gauden,
Ait'amen aitek utzi legeak
beiratzeko bethi lerden;
Ez dugu behin arrotzetarik
dugun bezenbat ukanen:
Xuxen ibiliz guk tugu bertzer
irakaspenak emanen!

Gu bezain jende zaharrik orai
munduan zonbat da, zonbat?
Geroan ere nork iraunen du
berdin hola guk bezenbat?
Aitak lanari zoazkon gisa
bagira lotzen orobat,
Herritar orok eginez oihu:
«Bethikotzat ZAZPIAK BAT!!»

Eskualduna, 1911ko urriaren 13an

XARDINA SALTZALEA

Airea: Kattalin ttuku, ttuku

Untzia jin deneko itsas-bazterrera,
Gaxuxak erosi tu bi saskiñotara;
Biak altxaturikan airoski burura,
Beha zoin laster doan karrika behera.

Zaiak estekaturik goraxko gerrian,
Zango-sagarrak ditu arras agerian;
Etxean bezain aise dabila hirian,
Irrintzin bat eskainiz guzier lorian!

Itzuliak eginik, «Au bon vin» ethorri,
Zintzurra idor eta sudurttoa gorri:
«Arras akitua naiz, behar dut sokhorri,
Onetik nahi nuke barnerat igorri...».

Barnearen phizteko, hustu-ta basoak,
Mokoka hasten bada, zer elhe goxoak!...
—Amak, gordazkitzue zuen haur gaixoak,
Garbi dauden bederen horien gogoak!!

Mihia badu ere sobera zorrotza,
Zuzen gelditzen zaio nonbeit han bihotza...
Arnoa dukenean, hastio ur hotza
Ez da nehon ez dena Gaxuxaren gaitza!!

Eskalerik badea, guziz beharrean,
Dabilzaner othoizka bide bazterrean?
Gaxuxak pausaturik saskia lurrean,
Xardinak eman dazko laster ahurrean.

... Emanak othe ditu bertzer harrapatzen?
Etxekoeri bethi kario du saltzen!
Alferretan andrea mokoka da artzen:
Ez dako behin ere sos bat atheratzen!!

Iguzkia zerutik aphaltzen denean,
Oraino're Gaxuxa karrika gainean;
Hasi zuen bezala boz ederrenean,
Eguna finitzen du irrintzin batean!

Gaxuxa moko biphil, Gaxuxa kokina,
Badinat Jinkoari othoitz bat egina:
Beira dezaunan luzaz hire zintzur fina
Guhauri merkexago igorritz xardina.

GOIZ-ALDE BAT ESKUAL-HERRIAN

Airea: Gazte gira gazte hogoi-bat urthetan

Goizik bainindagon zeruer begira,
Ikusi-ta sortzen iguzki distira,
Etxetik naiz athera,
Bihotza alegera,
Egun berriari agur egitera. (*berriz*)

Betbetan xoriak dira iratzartzen,
Hekalaz harrotuz lorian airatzen,
Bozkarioz bethetzen,
Beren kantuer lotzen,
Zoin gehiagoka orai zauzkit artzen!

Banazka hil eta gain hartan izarrak,
Urhearen pare dagotzi bazterrak...
Iguzkiaren garrak
Egin ditu lasterrak...
Urhean daduzka mendien bizkarrak.

Buru-has orduan naiz belhaunikatu,
Bertsu hoberenak ditut gogoratu,
Berehala moldatu,
Gora xaramelatu,
Jinkoari dazkot lehenak kantatu!

... «Eskerrak, Jabea, bihotz-bihotzetik,
Goiz hau dugulakotz zuhauren eskutik,
Xoriak oihanetik,
Ari dira gogotik,
Halaber zoazkit bertsu hauk ahotik...

... Agur zuer ere, bazter eskualdunak,
Oihan, zeru, pentze, mendixka legunak!
—Laborari lagunak,
Osoki bihotzdunak,
Ditzagun iragan hemen gur'egunak!

Etxekoak, laster alhorren gainerat!
Iguzkiak gaitu galdatzen lanerat:
Oi lan ederrenerat
Guziz hoberenerat,
Munduari jana biltzen dakonerat!!»

* * *

Etxetan atheak dituzte zabaltzen,
Argia gaindika zakotela sartzen.

Haro bat dut aditzen

Orotarik airatzen,

Laborantza baita lurretan mintzatzen!

Oi laborantzaren boz eder, azkarra!

Goizari diola egiten agurra,

Izarñoen nigarra

Ihinztatuz belharra,

Irriz dagolarik, iduri zilarra!...

AROTZAREN KANTUAK

Airea: Amikuzeko Gilen

Elizatik «Anjelus» heldu zautanean,
Kartsuki zeinaturik hasten naiz lanean
Omor'onean...

Goizetik arratserat koplak ezpainean.

Athor-has gerriraino, mailu bat eskuan,
Burdina dut bihurtzen gorriturik suan,
Behar moduan!...

Ni bezain dohatsurik ez da bat munduan.

Igandetan xoilki naiz etxetik lerratzen,
Astelehen goizeko lanari paratzen,
Han amarratzen!...

Familia nasaiki hola dut arthatzen.

Ingudia jotzean ez nago bakarra:
Ondoan kantuz ari zaut suaren garra,
Dantzan pindarra!...

Hala nola zeruan ihesdun izarra.

Gogotik zerbitzatzen dut lur-langilea,
Eder zaut egoitea haren aixkidea,
Lagun maitea,
Elgar lothurik igan dezagun bidea!...

Haintzurriari nik dakot leguntzen kokotza,
Nik ere dut moldatzen goldearen hortza,
Ontsa zorrotza,
Barnatik ausik dezan ildoan lur hotza.

Nahiz ukaiten dutan maiz bisaia beltza,
Eta larrua badut eskuetan latza,
Ez da zer gaitza!...
Nor nahik bezain garbi baitaukat bihotza.

Izerdia jauts bedi turrustan besotik,
Bardin airos doazi kantuak ahotik,
«Panpen» ondotik!
Jozak, nere mailua, jozak hor gogotik.

Eskerrak Jinkoari bihurtzeko, jozak;
Ingudiaren boza zerurat igor zak,
Urrun zabal zak!
Izkila baten gisa pentzez gain heda zak.

* * *

Lur sainduan nahi dut azken lokartzea,
Eta moldatu dutan burdin kurutzeara
Han finkatzea!
... Horrekin segur bainaiz zeruan sartzea!

Eskualduna, 1911ko urriaren 27an

*Geroztik bertze molde batean antolatu ditu
«Arotzaren Kantuak» Oxobi zenak.*

Elizatik Anjelus heldu zautanean,
Kartsuki zeinaturik hasten naiz lanean,
Omor'onean!...
Goizetik arratserat koplak ezpainean.

Athor-has gerriraino, mailu bat eskuan,
Burdina dut biurtzen gorriturik suan,
Behar moduan!...
Ni bezain dohatsurik ez da bat munduan.

Aroztegia beha ez denez ederra:
Ondoan kantuz ari zaut suaren garra,
Dantzan pindarra,
Hala nola zeruan iheskar'izarra...

Igandetan xoilki naiz plazarat agertzen,
Berriz aste guziko su-lanari lotzen,
Ongi lehertzen!...
Nere zazpi haurñoez holaxet orhoitzen.

Gogotik zerbitzatzen dut lur-langilea:
Saristatzen badaki tresnen egilea...
Adixkidea,
Elgar lagunduz igan dezagun bidea!

Nere suan nik dakot moldatzen aintzurra,
Nihaurk arthatzen ere —nola den beharra—
Golde nabarra,
Ildoan ausik dezan mamiraino lurra.

Ikusten badautate maiz bisaia beltza,
Eskuetan larrua badut ere latza,
Ez da zer gaitza!...
Nor nahik bezain garbi daukat nik bihotza!

Izerdia jauts bedi turrustan besotik,
Neurtitzak badoatzi halaber ahotik,

Pan-pen ondotik!...

Jozak, ene mailua, jozak hor gogotik!!

Alferrak higiaraz ditzan hire bozak,
Ingudiaren deia pentzez gain heda zak,

Urrun zabal zak!

Eskerrak Jinkoari bihurtzeko jozak!!

Hil eta lur saindurat nute botatuko,
Burdin-kurutzeño bat dute moldatuko,

Han finkatuko...

Lagun hori baizik ez da behar zeruko.

BAKARTASUNEAN NIGARREZ

Belatsaren airean

Ikusi dut belatsa frangotan,
xori bati lotzekotan,
Hegaldatzen peña bazterretan,
hura nahiz ahurretan.

Gaixo hegaztina!
Hegaztin arina!
Oihan barnean erregina!
Norat hintzan ihesi jina,
Gibel utzirik atsegina,
Hegaztina?

Belatsak lotu du xoria, peña borthitz gain
hartan
eta, gero, berak airoski jan,
xehatuz aztaparretan...

* * *

Urradura badut bihotzean,
gudu hoier ohartzean:
Nexkato bat bainuen etxean,
galdu dut hiri beltzean!

Nere haur maitea,
Haur eder gaztea,
Zabal daukat etxek'athea:
Onhar-zazu nere galdea
Utz othoi karrika-bidea,
Haur maitea!

Harek ez ukanen enetzat elheño bat mihian?
han dabila Jaunak ez nahian,
bihotza dauka lohian.

* * *

Haur hoi eman orduko mundura,
igan zen ama zerura...
Orhoitzen naiz gaixoaz ardura,
ez da nitaz arrangura...

Ama kartsuena,
Zeruan zaudena,
Othoi, zathozkit haurra gana!
Hirira zaut ihesi joana,
Orai naukan ontasun dena,
Zuk emana!

Amaren othoitza indartsu baita behar orduan,
Jaunak hartuz hiruak ondoan
Oi! bil gitzala zeruan!

SAGARDOIAK

Xuri ta gorri,
Sagardoier Jaunak loreak igorri:
Xuri ta gorri,
Niri gogoetak multzoan ethorri!

Lore hoik zoin diren goxoak begier!
Zangopetan beraz hoitarik ez leher!
—Oi haize samina lilieri aiher:
Eraiten ditu're bideko lohier,
Xuri ta gorri!

Lore hoik iduri nik maite dutana:
Haren alde daukat erorkiz ukana!
—Beldur naiz joan dadin hiritarren gana,
Ez baitzaio laket pentzetako lana,
Xuri ta gorri!

Lore hoik iduri eskualdun etxeak,
Daduzkagunean guk aphainduxeak!
—Hainitzek dituzte jasan uhaldeak:
Heien arthatzeko non dire jendeak,
Xuri ta gorri!

Lore hoik iduri dantzariak arin,
Ponet zinta gorri, galtza xuriekin...
—Nago gazteriak norat duen egin;
Eskualdun pestarik orai ez da behin,
Xuri ta gorri!

Xuri-gorri: badu loreak batasun:
Eder gazte dago, ukanez osasun...
—Eskualdunak, othoi! Bethi gauden lagun,
Xuri-gorriek, hots! bat egin dezagun!
Xuri ta gorri!

Xuri ta gorri,
Nere lehiak nik zerurat igorri!
Xuri ta gorri:
Loreñoetarik sagarrak ethorri!

ARROSAK

Egun hotz batez abar kixkil bat nuen baratzean
sartu:

Iguzki deian, hartarik atzo lehen arrosa zaut
sortu!

Abar gaixoa! — Haixturrez nakon borthizki
moztu burua...

Zer den hargatik? — Zauri hartara noizpeit
jautsirik zerua,

Zauriño harren nigarretarik erne jaio da phirua:
Irriz gozoki arrosa deraut eskaintzen bere
larrua!

Oi zer larrua! Argi dirudi, halaber gorri xuhaila...
Arrosa hostoz izan behar da zeruetako dafaila...

Oi ez banaki Aingerutxoak gorphutzik gabe
daudela,

Erran niro bai heien odolez arrosa bethea dela!

Eskual-Herria! Zu negupean
ez othe zira bada jarriko?
—Odol eskasez ez baditake,
Jinkoa! horra nere bihotza!

Erdi deneko lehen phirua, jaiotzen hasi
bertzeak:
Orai Jinkoak eman geriza: hostoekin arrantzeak.
Balinbadu're frango jeloskor behatzaile
baratzeak,
Ez ditazke hoik liliari loth, baitauzka borthitz
itzeak!

Arrosañoek derakarkoten usain onak zoraturik,
Inharak harat hunat dabilta, bi hegalak
zabaldurik,
Kantuz... ihizi gaixtagin zenbeit daukatenean
harturik,—
Marmutz ulitxek ene loretik ez baitute zer
igurik!

Otsailaz norek erranen zuen landatu nuen
abarra

Jalgiko zela, nasai, aberats,... arros'ondo bat
azkarra!

Aspaldi danik zaudena,
Berriz orduan zinena?
Zaintsu pitz Eskual-aihena.
Harentzat huts-azu dena!!

USTARITZE

J.B. Vincenty adixkideari

Orhoitzapen handiak dauzka izen horrek...
Mintzatzen balakite horko haitz gogorrek,
Xuxen ikas ginio guk Eskualdun haurrek
Zer bihotzak ziuzten Eskualdun zaharrek!

Haitz lodi baten pean herriko lehenak
Bazagozin buru has —guzien lagunak—
Jinkoari galdatuz onhar zitzan lanak,
Lege batzu zituzten finkatzen zuzenak!

Zorrik nehoi gabe zauden langile hotz,
Batasunaren alde ziren dena bihotz.
Eskualdunak Eskualdun nahian bethikotz
Bazauzkaten gogoia ta begiak zorrotz!

Ixil nindoalarik haitz hekien pean
Gogoeta hunek nu jo nahigabeanean:
Eskual Herrian gaindi, oraiko mendean,
Nor othe da zaharrez orhoit gutartean?

Aitek erainik, badu aspaldi-aspaldi,
Hazi ona ez dauke alfer bethi geldi,
Gureaz jabetzeko noizko gure aldi?
Biltzar heien orena laster jin baladi?

«ESKUALTZALE» BATI

Airea: Ai, ai, ai, mutilla...

Eskualdun batek agur eskualtzale bati.
Aiphatu nahi dazkot bospasei hitz ezti.
Samurtzen bazaut ere dut axola guti...
Ai, ei, ai mutila, dut axola guti!

Debrua ethorri zen behin Baionara,
Laster ikasi nahiz dakigun eskuara,
Lasterrago joan baitzen berriz ifernura...

Zuk naski debruari nagusitzekotan,
Lasterka bazabiltza bas-herri askotan,
Zure ustez eskuara mintzatuz nunbeit han!

Asto batek norbaiti jan zion bizarra,
Astokerian ustez eta zen belharra:
Ez duzu zuk eginen holako lan tzarra!

Bainan edozoin baita hutsean gerthatzen,
—den zaldi hoberena da noizpeit lerratzen—
Zenbeit kontseilu merke dauzkitzut eskaintzen!

* * *

Galdatu-ta bidea eskuin den al'ezker,
Onts'ikasiak baitu erraiten mil'esker,
Othoi guardi'emazu ez aipha «bil uzker!»

Frangor *murde* zaiote jaun bezain ederra;
Bainan zuk ikustean gizon bat zaharra,
Ez oiuhu egin gero: «Agur, urde tzarra!»

Has litake gizona: «Baia, debru Pelo!»
(eta hantxe berean emanik bi talo)
«Hail, hoiekin egin-zak afari eta lo!»

Atzo jina zirela niri erran nahiz,
Erraiten badautazu «atso ethorri niz»
Nola nahuzu bada ez nadin has irriz?

* * *

Elgar egite duten holako zonbat hitz!
Ikasten ez baitira eginez halabiz.
Hozturik badauzkate kasko bero hainitz.

Jauna, balinbaduzu sinesterik nitan,
Eskualdunen eskuara jakitekotz plantan,
Artzain jarriko zira lau-bortz urthe Bankan.

Frantses horrek baditu Bankarrak lotsatzen,
Bankarrek badakite eskuaraz mintzatzen:
Heiekin egoitea derautzut eskaintzen.

Bankan ez badukezu irakas Eskuara,
Bertze nehun ez duzu sarturen burura...
Debruaren ondotik joan zitela fuera!

DONADOAREN ANDREGAIA

Airea: Kaiku

Hasiak zaizkit auzoak oro: «Zertako ez haiz
ezkontzen?»

Ihardeste hau aspaldixkoan nik baitiotet
itzultzen:

Donado

Banago

Erran nahi da nexkatoetan bat ez dutala
kausitzen

Nitaraino denik heltzen, nitaraino denik heltzen.

Mutikoak nexkatxer ez ditel'ager:

Nexkatxak xume dira jarriko laster.

Zoin den zoroa

Bihotz beroa!

Bethi gogoa

Auhenek joa!

Mutikoak, mutikoak, mutikoak ez ager,

Xume-xume nexkatxak jar ditene laster!

Andreak etxea behar luke nola baitu barakoilak,
Bainan kanporat ez higitzekotz, jan bailezoke
herdoilak.

* * *

Andreak elhea behar luke nola baitu
oiharzunak,
Ba bainan azken hitzaren jabe uztekoz bethi
lagunak.

* * *

Elizaren tanga bezain xuxen behar litake
lanetan,
Bainan orena ez den bezala, ixilik arrotz
barnetan!

URTHATS

Eskual-herrian, harat hunat-ka, haur xumeak
badabiltza,
Etxeko andrer, kartsu-kartsuki, erranez beren
othoitzza...
Athe barnetik, haurren oihuer itzuli deneko
giltza,
Bixkotx intzaurrak purrustan heldu... kuku
dadila zikoitza!
«Urthe on!» irriz dute gaixoek ihardesten: sari
gaitza,
Hoiiek erranak, ororen alde, Jinkoak egin balitza!

Bortu gaineran kantuz artzainak diozka bere
ametsak,
Kantuarekin airarazteko nahigabe-zorigaitzak...
Lagun xoil bat ez norek lausenga baizik eta
mendi gaitzak,
Noizean behin harroketarik hixtuka xori
belatsak...
Bakar-bakarrik iragaiten tu gau egun batzu
kiretsak...
«Urthe on» hiri bihotze-erditik! Gaizo laguna,
onetsak!

Guziak aurthen lagun ditzala nasaiki zeruko
Jaunak:

Lurrera beha dagozin aita xahar ile xuridunak,
Tokirik ez da nondik ez diren noizbeit igan

Eskualdunak:

Salbaien apez, artzain, soldado, berdin oro
bihotzdunak!

Orotan gora diola beraz «Urthe bat on»
oiharzunak.

HAURNOAK

Hamar manamenduen airean

Jesus eztiak zion lurrean zelarik:
«Othoi, haurño gaixoak ez urrunt nitarik...
Nere zeru garbiko nahi dut hoitarik...»
Eta haurrak zoazkon laster orotarik.

Neguan hutsik zoin den idor ohantzea,
Eta lorerik gabe ilhun baratzea!
Halaber aitamentzat haur baten galtzea
Doi-doia dezaketen jasan... kurutzear!

Bainan urtzearekin elhurrak mendian,
Xoriek dute berriz kantatzen kafian...
Heien kantu goxoak arbolen erdian
Haurñoak irriz ditu garraitzen lorian!

* * *

Sutan da zorionez amaren bihotza,
Orhoitzapen kiretsak ihesi dabilta...
Hazten duen umeak, jinik ezagutza,
«Ama» gaur erran dio: bere lehen hitza!

Aitari zakonean kopeta goibeltzen,
Haurra bere baitarik hari da urbiltzen:
Eskuñoez bisaia dako pherekatzen,
Eta horra non diren auhenak airatzen!

Primaderan eder da segur iguzkia;
Hainitzez ederrago haurraren begia.
Arima bat daukula agertzen garbia,
Hartan xoilki baitago Jaunaren egia!

Oi! haur ttipi gaixoen begi beltz urdinak,
Artarekin zeruan Jinkoak eginak!
Haurren ezpain gorrien hasperen arinak,
Bakarrak eztitzeko burhasoen minak!

* * *

Aingeru jautsi dira zerutik behera:
Norbeit jaidura tzar bat jin-eta burura,
Horien zikintzera baladi mentura,
Harek kolpa lezake Jesus ona bera.

Zeren huna zer daukun Jesusek errana:
«Haurrer kentzea baino duten zoriona,
Ehun aldiz hobe duk, sinetsak, gizona!
Ehorztea bizirik itsasoan barna!»

ESKUALDUN JOKOAREN ALDE

Batzuer eta bertzer entzun dut frangotan
Dabilzala gazteak anhixko zokotan,
Hutsik eskualdun plazak utzirik orotan;
Laster ez dela nehor ariko pilotan.

Arrunt galtzera doa beraz Eskalduna,
Saltzen duenaz geroz zaukan ontasuna!
Pilota! bethi danik horren osasuna,
Pilota! Jabe dadin egon erdalduna?

... Egia da, partidak zenbeit urte huntan
Itsuski doatzila, guziz hirietan!
Hamar bat pilotari tugu ferietan,
Arrotz ezdeus batzuen diruaren puntan...

Guzietan urhea nagusi dago-ta!
Urkaturen eztiki dauku're pilota...
—Etxean geldi hadi, lagun kaxkarota!
Oi, ez pilotarekin ohorea bota!

... Herrixketan beharrik dugu igandea...
Astean badabila goiz arrats goldea,
Zinez gero pilotan ari da jendea.
Gaiten pausa delarik Jaunaren galdea!

Ez da gure plazetan dirua nagusi,
Gezurra baitzaiote guzier itsusi.
Ez bazira gutarat igan edo jautsi,
Pilotan ez dukegu deus onik ikusi!

* * *

Horra non lothu diren: anaiak iduri,
Athorrak eta galtzak orok berdin xuri...
Orai miatzen dute pilota den guri...
—Zer izerdiak behar dituzten ixuri!

Plaza bazter guziak dire jendez beltzak,
Halere bakan arras jaun andre arrotzak...
Hor daudenak ikusten, jujale bortitzak!
Airean ez doatzi zahar hoién hitzak!

Oizu!... Beha gazteak ez diren bermatzen,
Ez dutenez pilota han harat airatzen;
Zirti! Zarta! Zer joak! Bat ez da lerratzen...
—Jesus! Etzazkotea eskuak urratzen?

Hots! Herriño guzia hor dago bildua,
Pilotarier beha behin ixildua,
Bihotza gehienek arras pil-pil-dua,
Ikaran, nor den behar egon biphildua!

Akabo!... Entzuten da irrintzin ederrik;
Asko moltsek ez dute gordatzen epherrik!
Bainan bihotz batean ez demendren herrik,
Ez eta solasetan sobera... bipherrik!

... Bihotzez eta gogoz on Eskualdun zena:
Harek du jokoetan hartu hoberena!
Gutartean pilota dagola den-dena,
Zaharretzat bezala, josteta lehena.

* * *

Eskualdun haur lagunak, jo bethi pilotan!
Ihesi harat-hunat ez ibil orotan.
Begote frantximantak hiriko plazetan,
Gauden guhaur herrian igand'arratsetan!

MARI-KATALIN

Airea: Iragan besta biharamunean

Errekanbordako Mari-Katalin

Barda Parisetik etxera da jin:

Buruan, jasan ahala, saski bat lore:

xuri, gorri, beltz, urdin:

Beso, lepho, bapo bulharrak arin...

Hiritar andreek dituzte berdin!

Behazu Katalin etxerakoan,

Zoin urhats hertsia eginez doan!

Zer debru! Senhar-gai batek eman dakoia

bi belhaunen ondoan

Behorrer lotzen duguna zangoan

Urrunegi hel ez diten kanpoan?

Mari-Katalinen anai gaztena,

Ez baita, hori, Parisen egona,

Xut dago, xapelari so: mokor gorri bat

ez othe den bonbona...

Horra non, aztaparraturik dena,

Hup! klik! iresten duen ahamena!

Gero Mari-Katalinen orroak!

Zer nahi derasa neska harroak...

Bainan deus ez ihardesten bere xokotik

gaizo Pello ñarroak;

Biharko zer dion hunen zorroak

Jakinen du aza baten erroak!

Bideak duke Katalin lehertu...

Ez da bethi goiz mezarat agertu,

Ta berriz oilar ez-deus bat zakotelakotz

bet-betan alditxartu,

Oilarra beharrez eltzean sartu,

Jaunaren orena bere du hartu.

Belhaunak ez higaturik elizan,

Katalin ager zitaken ba plazan!

Xapeldun arrotz eihartu jaunxkil batekin

zaukun hasi're dantzan...

Ez bide zen aspaldian arizan,

Oinak ikur-makurka baitzabiltzan!

Zor zioten lagunek zimikoa:
Soineko zolan haixturren pikoa...

Katalin ohartu gabe, tarratan doa
urradura mikoa!

Han izan ez balu zai 'azpikoa,
Lotzen zakon, lotzen, beheitikoa!

* * *

Asteleheneko Mari-Katalin,
Soineko nasai, buruan mantalin,
Joan da, joan, Paris alderat, herritik urrun,
egoitekotan behin...

Goraintzi diote gazteek egin,
Heien jostarazterat itzul dadin!

KANBO, UDAZKEN ARRATSALDE BATEZ

I

Urtsu mendiko maldak, gorriz aphaindurik,
Iguzki gozoari dir-dir badagozi...
Ardiak lerro-lerro, luzaz alhaturik,
Gau etsaiaren ihes bordara doazi.

Xoratua bazterrer beha nago xutik.
Zorigaitzik badenetz ere dut ahantzi
... Iguzkiak, emeki jaustean zerutik,
Eskainiz azken garra, derasa goraintzi.

Ostoa gorri dute gazten haitztegiek:
Urhezkoak direla daukate begiek.
—Kanbon da laketurik jartzen udazkena!

Haizeak dakarzkigu hasperen eztiak;
Bulharrak bethe nahiz dabilta eriak.
—Eskual baratzeetan Kanbo da lehena.

II

Anjelus hedaturik gaur azken aldikotz,
Oraixet ixildu da dorrean izkila...
Gaua jautsi denean, ez bero ez ta hotz;
Haize hegoak dauka epheltsu hazila.

Xakur batek hau! hau!-ka piztuz gau ixila,
Erakutsi nahi du baduela bihotz.
Bere dituen gauzak oso beiratzekotz
Ohoina beraz handik urrun joan dadila!

Haur,... aberekin orai etxera nindoan...
Behiez orhoitu-ta, jarri naiz leihoan:
Ez dut entzun joaren xilintx on arina!

... Jendeak aireketa zabiltzan kanpoan,
Heien ahotik hitz bat eskuaraz etzoan...
Zorigaitz! Kanboraino hiria da jina!

1692-en URTEKO GUDU BAT

Airea: Jeiki, jeiki etxenkoak

Jeiki, jeiki, Eskualdunak, argi da farra-farra!
Itsasotik entzuten dut zilarrezko deidarra,
Dirdiran ikusten ere Olandresen ibarra...

* * *

Iraganik badirela berrehun hogoi urte,
Eskualdun arraintzariak gudu bat egin dute:
Egun haren aiphatzeko bainuke nik aldarte!

Elhur leihor ondoetan gureak ziren ari,
Lau untzi on berriekin jarraikiz arrainari,
Harizmendi Bidartarra guzien aintzindari.

Bet-betan zakot'agertzen untzi oste bat gaitza...
Norbeit garrait dezaketen Olandresak dabilta,
Gudua baita nahi-t-ez etsai hoiem emaitza.

Zer egin? Arraintzariak han zituzten, han, lanak...
Beharrik, eskuak hutsik ez baitziren iganak!
Baia ba? Karraskan horra lehen tiroak emanak!

Itsasoko uhin beltzak jin ziren gorrituak...
Beren lau untzietarik gureak ez itsuak:
Erhauts zeramatzan oro tiro gaitzen kotsuak!

Etsai untziak badire berrogoi-ta hamabortz,
Bainan otsoeri buruz xakurrek izanki hortz:
«Lau untziez jabetzekotz ditzatela han ehortz!»

Etsaiek uste gabeen gudu gaiak aurkitu!
Ahal bortitzenak laster baitzazkoten ttipitu,
Berak hasi, berak ziren baitezpada gelditu.

* * *

Nork erran du Eskualdunek ez dutela bihotzik?
—Miatu eta bazenetz etsaiekin arrotzik,
Danoisak utzi ziuzten egin gabe min zotzik!

Olandresak ba gogotik larruraino biphildu,
Ez baitzuten ohoin heiek saria baizik bildu!
Geroztik aphas behingo ziren omen ixildu...

Hortarik irakaspén bat guziek har dezagun:
Bihotz onekoen alde gauden gu bethi lagun,
Bainan xede tzarrekoak utz berex ezezagun!

* * *

Baionatik Donostira, eskual hil-herrietan,
Arraintzarien hezurak dagozi hobietan.
Nor da han belhaunikatzen nigarra begietan?

Ur-lamiñek hedatzean gauaz beren distira,
Itsasoaren azantzak iduri du intzira:
Gorputz direnak lituzke nahi piztu bizira...

BI ETSAIEN ZUHUR-HITZAK

Airea: Goizian goiz jeikirik

Ikazkin, Eiherazain elgarrekin joka...
Huna zer derasaten bortizki mokoka!

—Ohointza lodienak hiretzat arinak:
Zuri guziak segur ez dituk irinak!

—Zerk samur-arazten hu? Zikinaren hatzak?
Etzauzkak beltz guziak berekin ikatzak!

—Xitoek amarekin ikasten kabazkan:
Xerrier zer diotek jan-arazten askan?

—Gaizoa! Banikek, to, hiri zer ihardets...
Bethi xerri goseak ezkurretan amets!

—Eske mando batekin ez nuk ez ikusi;
Bas-oilarttoa zagok etxean nagusi!

—Agertu nahiz oilar, baduk egun elhe!
Hobe duk hire bordan egoitea bele!

Adixkidetasunak hola dira urtzen:
Bakotxak bere bergaz bertzeak negurtzen!

OXALDE

NORTSU ZEN, ETA ZERTSU BIZITZE ERE- MAN ZUEN

Mila zortzi ehun eta hamalauko Buruilaren hogoita bortzean, Bidarri Manguian sortu zen haur bat. Muttikoa. Aita Joannes Oxalde, guarda; ama Joana Etxexuri.

Herriko auzapezaren aintzinerat agertu zelarik seme bat sortu zitzaiola jakinarazteko, aitak berekin zituen bi lekhukoak: Joannes Lixero, Arzalexipiko nausi xaharra eta Bertrand Labat Konstantinean zagon Bidarriko errienta.

Bidarriko mera urthe hartan: Jean Duhalde.

Aitaren izen bera: Joannes eman zioten sortu berriari.

Haur horren bathaioko ageririk ezin ikusi dugu, Bidarriko eliza liburu xahar gehienak galduak baitira.

Ttipian nolako izan zen Oxalde eta zer gaztaro ereman zuen, deus ez dakigu, berak zahartu eta , aithortu duenaz bertzerik:

Ene aitamek hasteko
Kargua zuten hazteko,
Jainko legean sartzeko;
Egin ahalak egin dituzte
ni gizon atheratzeko,
Hetaz etsenplu hartzeko,
Kostuma txarrak uzteko,
Ez zauntala dolutuko.

Bainan guziez nik irri...
Ez nintzan behatu nahi
Heien kontseilu oneri.
Asko abisu eman derautet
ni uros nahiz ezarri:
Trufatzen nintzan orori,
Ohartua munduari,
Hartara behar erori.

Gazterik nintzan airatu,
Libertizionia maitatu,
Gogo hartan finkatu;
Gaztetasuna behar baitugu
zoin gur'aldian pasatu,
Nik ez dut hanitz gozatu,
Laster bainuen trenkatu,
Kordak lephotik nu hartu.

Zer nahi gisaz, ez bide zuen, eskolako alkie-tan, galtzipurdi hanitzik higatu.

Guarda izan gatik eta zeno ere, debrien lanak zituen frantses hori ezin mastekatuz.

Hemezortzi urthetan Aiherren zen gure bida-rraitarra. Muthil ala pakant, badakigu ilhagintzan ere hari zela hor. Orduko paperek diote Oxaldez: *labourer* eta *duranguier*.

Mila zortzi ehun eta hogoi-ta hamaseieko Hazilaren hogoi-ta seian, hogoi-ta bi urthe baizik etzituela, ezkondu zen bera baino lau urthez gazteagoko Marie Peidouvan batekin.

«Kordak lephotik nu hartu».

Urthe hartan Aiherreko erretor zen Londaitz jaunaren ageria hor dugu berme ezkontza hori bai muthikoak bai nextak burhasoen baimenare-kin egin zutela.

Mila zortzi ehun eta hogoi-ta hemezortziko Urriaren lehenean, guardetan onhartu zuten gure Oxalde. Ez bide zuen hunek kargu hori berehalakoan ardietsi. Urthe bat osoa espiungo-an harizana zen aihertar kontrabandistak Lek-horneko gardenen liotinantari saltzen zituela.

Salatari, malatari, guarda... bizkar milikari;
ofizio hitsa eskualdun gazte batentzat. Lan itsu-
sia.

Egia erran, zazpi ahalak egin zituen delako
liotinantak bere salataria guardetan sar arazi
beharrez.

Handik hogoi urtheren buruan, Gerezieta
Garroan, etxeko jaunari herritar gazteriak egin
pesta batez, bertsu hauk eman zituen Oxaldek:

*Gazteriak bertsulari ezarri du Oxalde
Bera ere ez ahal zen amodiorik gabe;
Leheneko Jaun Baronak egin zion fagore
Guarda plazatu baitzuen zazpi egunik barne.*

Ni beldur etzela, estalpe guzien gatik, guar-
dagorat sekula helduko Joannes, ez balitz bera
guarda seme gerthatu.

Hogoi-ta lau urthetan ez omen zen guarda
berria soberarik gaizki. Askitto luzea: metre bat
eta hiruetan hogoi-ta hemezortzi; kopeta gora;
buru bekhainetako ile biloak gaztaintara; begiak
gris; sudurra ontsa egina; ahoa zabalik; kokotsa
biribil; arpegi xuxena; kolorez beltxaran gorri;

gorputzean arrangurarik ez. Damurik zuen kara hura... nola erran?... hala hulakoa. Frantses erdarak dio: *représentation passable*.

Zen bezala, Oxaldek bazituen ordukotz: hogoi urthetako emazte bat, bi haur eta guardagoko irabazia: urthean sei ehun libera. Ondoko egunetan beharko baitzuen dohakabeak frogatu kordak zinez lephotik hartua zuela.

Bazterren berri jakin zezan, igorri zuten berehala Larzabale Zibitzerat. Handik, hilabete baten buruko, Legarrerat. Bere kapitaina Paskonean zuela, Legarren egon zen hiru urthe eta bederatzi hilabete Legarretik gero Bidarri Begiderrenerat. Bidarrin, bortz urthez, beretarik eginik, joan behartu zitzaion Heletarat; Heleta jastatu orduko, Saralat. Saran berrogoi-ta hamar libe-raz emendatu zioten urtheko paga. Eta jo Lekhornerat! Lekhornen baitzuen gehienik iraun: zazpi urtheren ingurua; Lekhornen ere baitzen heldu irabazi handienerat: 800 libera; eta Lekhornen baitzako emazte gaixoak hamekagarren haurra egin, berrogoi urthetan.

Hamekagarren haur horrek doi doia bederatzi hilabete zituela, Athizane Losterenia hustu

behar, Makean gora igaiteko. Azken aldaira Makeatik Beskoitzeko ur gazietarat.

Goxoak ahal ziren hoinbertzetarainoko harat-hunatak duela ehun urthe. Eta holako haurreria-ekin!

Oraiko legeak eta errextasunak ukhan balitu ba Oxaldek, fortuna egiteko parada bazukeen; eta delako Prix Cognacq ederrenaren irabaztekoa ere. Kukuak ondikotz bertzela joa zakon. Haurrek:

*Athalatzean jarri eta iguzkia janari
eta bera zorrez ithoa.*

Guardagoa utzi zuelarik Beskoitzen, berrogoi-ta hameka urthe zituen Oxaldek. Geroan, kantuz baitzerasan:

*Zer egin dudan munduan
Idukia dut buruan
Emaiteko liburuan
Hogoi eta hamalau urthe eman ditut zerbitzuan,
Fidel Gobernamentuan;
Errenta orai eskuan,
Jin baitzaut behar orduan;*

konduetan nola hari zen guardondoa ez dakit; bainan, guardetan sartu 1838-ko Urriaren lehenan, guardagoa utzi 1866-eko Otsailaren lehenan, ez da arte hortan hogoi ta zazpi urthe eta lau hilabetez gehiagokorik. Ala, errentaren emendatzeko, faturgoa egin zuen zazpi urthez Beskoitzen?

Aiherren ikasi lana etzuen, guarda izana gatik, behin ere arras bazterrerat utzi. Oraikoan, lan hortako, berak aizina gehixago; hiru haur bederen ilhagintzan frango pulliki hari, gasnarekin ogia bazuketen etxean. Aro txarraren ondotik iguzki pindar bat. Zorrak arrunt garbitu zituenetz errentadunak, hori nehork ez dauku salatu.

Etzela oraino pesta egitekorik badakigu. Eta Mugerre Barrandegiko Manex zenak baluke zer khonda, bizi baliz. Bertze beskoitztar, elizabertar, mugertar hanitz bezala, itzaingoan ibilki zen Manex hori: Ur gazietarik Baionarat gatza, Baionatik Beskoitzeko labetarat lur-ikatzza, kharraio itzulian hamar liberetaraino egiten ahal zuen.

Beskoitze Harretxean Oxalde: kintsenarekin, Mugerren dioten bezala, ezin hel bethi. Manex Barrandegik bihotz onez laguntzen zuen.

Manexen semea, Gaztenaburuko Joanes orhoit da behin baino gehiagotan ikhusirik Oxalde, sosik ez eta, ordainez aitari espartin pare bat ekhartzen.

Zerbitzua utzi baino urthetsu bat lehentxago Beskoitzeko guardak behar baitzuen jakin arazi noren bitartez nahiko zukeen ondoko egunetan errenta eskuratu, Hazparneko zerga biltzalea edo *perzeturra* zuen bere gizon egin.

Eta, geroxago, guardondoa bera Hazparnen zen kokatu.

Ameriketari gairat ere ibili zena Oxalde? Hala dio Jose Mendiage hazpandar amerikano bertsulariaren kantu batek:

*Gualegairat jin zauku guarda bat Oxalde.
Bi bertsu emaitako ez da herabe...*

Hori egia dela finkatu dauku Fermin Bidarriko harotzak. Bakharririk etzankon Oxalderi lakhetzen han; eta Hazparnetik errenta ez heldu; laster

itzuli zen herrirat, emaztea eta haurrak Gualegaien utzirik.

Herriko-etxeko agerietan, Bidarrin, irakur dezakezue:

«... Oxalde Joanes, âgé de 83 ans, époux de Marie Pédouan, domicilié en Amérique».

«Bidarritarra nuzu, bai nahi ere» zion Narroeneko seme batek. Bidarritarra zela ez du behin ere ukhatu Mainguian sortu guarda semeak.

Gazterik zen airatu, ba; kordari lothua, bazterra frango beharko zuen kurritu, urthe on baino txar gehiagoz miseria kantatuz bazeramala bizia; ondarrerat, Bidarriko lurak bildu eta bere-tu.

Berrogoi-ta hamar urthetan osagarria galdu-xea zuen Beskoitzeko guarda on zen hiruetan hogoi-ta hamabortzetarat heldu eta Bidarritik Hazparnerainoko joan-jina oinez egiteko.

Hazparnen bizi da oraino adin hartan Oxalde ezagutu duen xahar bat: Joanes Mendilahatsu.

Ez du hain aspaldi Gerezietako Elissalde jaun erretorrari hazpandar horrek emaiten ziola, eta zoin pulliki, bertsulari zenaren berri:

«Hilabethean behin merkaturat jiten zen Bidarritik Oxalde, bethi oinez, bere 70-75 urt-heen gatik. Ageri zuen etzela esku langiletarik; bazuken eskugain zerbait (Perzeturraren bitartez hunkitzen zuen errenta).

»Gizon larri bat zen; espalda bat bertzea baino beheraxago; ile xuri luzeak; xamarra brida gorriekin; galtzak portaliekin; galtzerdi gorriak, espartin xuriak; makhila bethi eskuan. Bisaia gorri bat, begi grisekin. Gizon alegera, etzen kantutik ixiltzen. Boza xuxen ahal bat.

»Zonbat aldiz ez nitzaio beha egon, zonbat aldiz ez dut Zelhairano segitu, bidean ikusten zituen guziera koplakan aditzeko».

Bidari Sastrienean hil zen Oxalde mila zortzi ehun eta laueta hogoi-ta hamazazpiko Abendoren hamahiruan, guardondo errenta hogoi-ta hameka, hamabi urthez gozaturik.

Haren ehorzteaz bakhar dira orhoit Bidarrin.

Lau guardek ereman zuten gorputza aphiario azpiraino. Han haatik...

Hargindegi jaun bikarioa eta Antxordoki jaun mera ez bide ziren soberarik akort. Biak thema-

tsu eta, baizik eta hau, baizik eta hura, egun hartan biak itsuski thematu.

Arratsaldearekin, bortzak irian, ehortzi zuten Oxalde, apezik gabe.

Nunbeitik ere, hobirainokoan kukuak makur jo!

Ez da orai Oxaldez orhoitzapenik deus ageri Bidarriko hil -herrietan.

OXALDE GUARDA

Guarda bihurrik izan bada Eskual-Herrian, Oxalde hala zen, eta bihurrienetarik. Zer nahi duzue. Bidarritarra, gazterik airatua, pilota maite, arnoa ez hastio, bertsulari famatua eta, ni beldur, kontrabanda odolean, nundik zatekeen bertzela?

Ez da harritzeko egon den brigada guzietan, ttipienetarik handienerat aintzindariak oro nardaturik baitzauzkan.

Elhe tzar, mozkortze, mehatxu, lazakeri, borrokaldi, arrangurarik ez da guarda gazteaz etzutenik.

Barrandan zelarik, barrandari laguna utziko zuen hor tente potente, bera bristez joanen zela norat othe-zertarat othe? Zoazte zuek!

Barrandako behar eta barrandegirat helduko zen hirur orenen berantarekin.

Mugazale tratularietan ezaguna frango, kide sobera.

Bazen bertzerik ere eta itsusiagorik. Askitto edana, tzarrean, zen batez ezituena Roumagnère brigadiera eta Haranburu guarda, biak tiroz hiltzer!

Khonda ginitzakeen bertze hanitzen artetik, huna gerthakari bat, askiko baitugu ikusteko zer xoria ahal zen Oxalde guarda.

Arratsalde batez beraz, zerbitzuko zen, Sabuki guarda lagun, Bidarri Pinpalordokiko gaztandeiaren gibelean, Erratzuko mugatik ez hain urrun.

Ilhuntsanean, ohartzen da Sabuki jo harat jo hunat badabilkiola Oxalde, sabelari bi eskuz lot-hua, atx eta aika.

—Gizona! Zer duk? Ehuen ba iduri doidoia hoin eri hintzala.

—Zer dutan? Nik dutana hik bahu, bahakike zer den... ai, ei, ai, ai, ai! eta gaixo gizona zanpez erortzen da ipurdiz gora.

Hauxe da debrukeria! Sabukik ez jakin zeri loth, norat itzul; sekulako intziretan Oxalde, intziren artetik okhala, eta goitikarik ezin egin.

Ahal duen bezala berriz xutitzen da eria, lagunari diolarik: Etzakiat baa... oi, atx, atx, eta sabela thorra, thorra... hau bihotztarraz bertzerik duk... haa, haaa... to, ez duk probetxurik hantxetako ithurriraino banoak, ur zorta bat edan eta nunbeitik libratuko nuk behar bada.

—Hail, hail; bainan ehadila sobera egon, sarzeko tenoria diagu.

Hinkili hankala badoalarik, hertzeak arin eta berea golkoan, Oxaldek: oren aldi baten buruko ez baniz hor, eneak egina dikek.

Bera gelditu zen Sabuki, nahi-t-ez pil pil. Oren erdia, oren bat, oren bat et erdi, laguna ez ageri.

—Alimalea, zakuan sartu nik. Brien fiura, pullitak gituk... Ala... etzautak leher egin bederen?

Eta, bar, bar, bar bere buruarekin, ithurri alderat badoa Sabuki ere.

Ithurrian ez baitzen ez Oxalderik ez Oxalderen hatzik!

Bulegorat noizpeit agertu zelarik Sabuki, beranta eta lagunaren galtzea nola xuritu zituen Harriet brigadierarekin, hori ez nakike; dakitana, geroxago, goiz alderat sartu baitzen ere Oxalde, histuak eta mistuak zirela Begiderrenean. Oxalderi zer nahi erran zankon Harrietek. Ba bainan brigadieraren erasiak gaizki hartu Oxaldek; Oxalderi gaitzitu; hi bahiz, ni banuk, hau ere hasi, hasi eta nahasi: elhe tzar eta oiuhu, oiuhu eta jestu, bertze guardarik ez balitz gerthatu han, borroka partida bat behar zuten egin itsusia.

Eztabada hori etzen nor nahik tupustean trenkatzekoa. Nausiak ikusiko.

Harrieten arrangurek laster kurritu zuten Baionaraino.

Huna, hitzez hitz, orduan Uztaritzen zagon guarden Inspeturrari zer izkiriatu zion Baionako nausiak:

«La légèreté et l'insubordination du préposé Oxalde qui a donné lieu M. au rapport que vous m'avez adressé le 18 du courant (avril 1845), lui

ont valu déjà en 1842 des punitions et de sévères avertissements.

»Je ne doute pas que dans la circonstance qui fait l'objet du rapport dont il s'agit, ce préposé n'ait manqué de nouveau à son chef. Je veux bien toutefois, par pitié pour sa famille, adopter vos conclusions et lui laisser sa commission. Il sera donc, comme vous l'avez proposé, puni d'un numéro d'annotation. Mais il faut qu'Oxalde soit maintenu à Beguieder et que sa conduite y soit, de la part du Brigadier et du Lieutenant l'objet d'une surveillance adroite et attentive, afin que s'il est prouvé qu'il approvisionne son ménage en Espagne, sa révocation serve promptement d'exemple».

«Par pitié pour sa famille». Emaztea, haurrak urrikari zituztelakotz.

Beharrik zen Oxalde aita familiako; beharrik zituen on eta luzakor, okhaztaturik zauzkan aintzindari gehienak. Etzuen bertzela bi urtherik iraunen guardagoan.

Roumagnerekilako haitada hartan ere ez balitu Oxaldek Paskoeneko kapitain bat eta Uztaritzeko inspetur bat onak baino hobeak izan,

etzukeen trixteak espakurik. Behazue Baionako nausiari nola mintzatu zitzaion delako inspeturra:

«En lisant la lettre du Capitaine de Pascoenia qui demande grâce non pas pour Oxalde, mais pour sa femme qui est fort malade et pour ses quatre enfants, vous jugerez si la douloureuse position de la mère de famille n'est pas par elle-même assez digne de pitié pour appeler sur l'employé coupable un reste d'intérêt, un dernier pardon.

»Oxalde a 28 ans. Sa femme en a 24. L'aîné de ses quatre enfants n'a pas accompli sa cinquième année.

»S'il y a révocation, ce sera una famille vouée à la mendicité et exposée à mourir de faim».

Horiek hola, egiak berea behar du. Xahartzek arnoa ontzen duela diote. Oxalderi ere ondarrerat eztatzen hasi sukarra. Geroago eta gutiago arrangura zuten aintzindariak. Traka hura bethi hala hulakoa, bainan gure guarda xuxenago zoan, pruntagoa zen bere zerbitzuan;

berant bazen berant, guardagoari emanxea hots. Oraikotik errenta gal beldurrik etzukeen.

Bainan nork amestuko zuen Otxalde hori aipamen ederrenez ohoratuko zuela garden aintzindari lehenak? Hala gerthatu zen bada eta huna zer kariaz.

Urthe hartan (1854) Athizane Garamendixipian bizi zen Oxalde. Gereziatar bati zazpi mila libera ebatsi zaizkoten. Orduko tratuetan zerbeit zen gero zazpi mila liberakoa. Gereziatar gaixoa, loa galdurik, goiti beheiti, ezker, eskuin bazabilan, bere dirua ezin eskuratuz. Kasketadunak, ttutt hemen eta ttutt han, bethi berdin gibel, amor emaiteko heinean.

Guziak baino sorginagoa izan zen Oxalde. Dirua harek hatzeman eta jabeari harek itzuli. Eta horra nola zuen Oxaldek ohorezko aipamena irabazi. Arno trago ederrik ere ba, araz!

Guardagoko bi, hirur azken urtheetan osagarria galduxa zuela diote paperek «santé délabrée» eta holako. Hori haatik?... Baginaude ez othe zuen, errenta lehen bai lehen hunkitzekotan, eriarena egiten azeriak?

Guardondo errenta hogoi-ta hamabi urthez behar zuen gozatu. Zer zautzue?

OXALDE BERTSULARI

Gaitzeko arrakasta zuen Oxalde bertsulariak. Herriko pesta, tobera, eztei, pilota partida, berrogoi urthez, ez da Baigorritik Maulerat, aip-hagarri bilkurarik izan Eskual Herrian Oxalde bertsularia gabe. Orain duela mendetsu bat drixolari jaunen jaun bazabilan. Eta hala zela berak bazakkeen orobat. Lehengo arrakastaren araberrako famak hein batean dirauku oraino:

*Emak hor, Oxalde
Eskualdunen alde.*

Ez bide zauku nehor samurtuko Hiriart-Urruty zenaren lerro hauk ezartzen baditugu hemen. Nehor gutik lezaguken polikiago khonda gure bertsularien atheraldi pollit bat:

«Nork ez du ezagutu Oxalde zena? Baxenabartar kobleri aiphatua, hogoi-ta bortz aldi

Eskualdun pesta bilkhuretari irri onik egin-arazi duena bertze orduz. Bidarritarra zen eiki. Orzaize alde hortakoa bethi. Dena den, doi-doia niz orhoit (aspaldi du!) pilota partida batean ikhusirik eta entzunik kantuz ari, ari; gantzaz baino buruz aberatsago iduritu baitzitzautan.

Behin beraz Oxalde hori, pilota partidetan biziki lakhet baitzitzaien, badoa Doniane Garazin errebot partida baten ikhustera.

Gaitzeko partida omen zen; mundu bat harat bildua. Pilotarietarik bat zen español Mantxota famatua: pilota ezkeraz halako firrinda errebes batean zerabilana, eta zer indarrarekin! Gizonaren hil-gogorra lurrerat botatzeko aski. Ikharan behar zinen egon, ez baitzen ageri norat zagon haren kolpe bihurria.

Hor, partidaren erditan, pilotariak su dariotelarik, izigarriko kaska batez jotzen du Mantxotak buru kaskoan erdiz-erdi Oxalde. Harrabots bat itsusia egin omen zuen. Gaixo gizona!

Oro harrituak. "Nor da? Oxalde da!"

Trumilka badoa jendea, hila othe den ala bizi?

Batek altxa, bertzeak thorra. Zer egin, zer eman, nehork ez jakin. Gizon eta emazte, mediku, aphez, oro laguntza emaile edo bilhari, hantxet izialdurarekin piltzarra bezen zuri dabiltzalarik, Oxaldek, ororen artetik, begiak ideki ere gabe, bainan pixkorki oihu: “Zer tutzue dolamen hoik: ai eta ai? Ala nik baino gehiago minhartu duzue? —Nahuzue arizan koplan, zoin gehiagoka?”»

Hitz laburrez horra nun duzuen, gogo eta molde, gure koblaria dena. Nigar egingarrizko plantan eta berdin jostagura, berdin jostagarri. Herrestan bizi, familiari egunean eguneko ogia ezin eman ez lanak, eta zirtoak bota, dritxoak berdura, nundik duen karkailaz har-araziko jendea. Betirisantsi eskarnioka Jan-Batist.

Jitea, ezin egona, ezinbertzea.

«Tête légère. Aime trop les plaisirs. Il doit être suivi de près. Sa tenue est mauvaise. Il a 200 francs de dettes».. 1859-an Oxalde guardaz hola mintzo zen aintzindariak bazakien menturaz nola xori papo gorria kantuz har-araz kaiola ilhun hetsi batean!

Udazkenean hostoak bezala badoatzi ondikotz papo gorriaren errepikarik arinenak.

Berrogoi urthez goiti bazuen Oxaldek liburuño huntan agertzen ditugun kantuak eman zitue-larik. Ez ahal zen, ordu arte, ixilik egona. Bainan, ehun urtheren buruan, zoazte zuek paperek bei-ratu ez dauzkiguten bertsuen ondotik. Beharrik da bethidanik kantariz aberats izan Eskual Herria, eta beharrik zituzten gazte batzuek osta-tuan edo, gogoz ikhasi bertsuak, nolazpeit zirri-marraturik paperean ezarri. Beharrik da gertha-tu gizon bat, eskualzale bat Eskual-Herria eta Eskualdunak zinez maite zituena: Antonio Aba-dia; jaun horrek agertarazi orduko bertsularien lanak ez baitira oro galdu.

Antonio Abadia bat ezpalitz, Oxalde zenaren kantuetarik dugunaren laurdena ere ez ginuen egungo egunean eskuratuko.

Bakharrik, nor-gehienkada batzu baitzituzten ordukotzat bertsularien artean, prima baten karialat eginikako koblak dira hemen agertzen ditugun gehienak. Itzalpekoak beraz.

Lehengo koblarientzat, oraikoentzat bezala, jaun jujek hautatu «suieta» uztarri bat, nahi-t-ez.

Uztarri pean nekez zabilan Oxalde. Agortzen zitzaion gogoan, ilhuntsen begia, motheltzen mihia; jaunen manuzko srietak josirik zaukan; etzen ordutik bere baitharikako jostakin hura, ostatueta, toberetako dritxolari pare gabea. Bertsu hoik irakurtzearekin, ez duzue, ni beldur, ezagutuko Oxalderen alderdi bat baizik: ahule-na.

Gure koblakariaren egiazko moldera, huna zirtoz, guti bada guti, jastatzeko doia. Behin beraz toberak zituzten Makean, Rafael delako bat hiruetan hogoi-ta hamalau urtetan ezkondu zelakotz hogoi-ta lau urthetako neskato batekin. Rafael horren alde Xetre hazpandarra, kontrako berriz Oxalde.

Xetre hasi zen:

Egungo sujetari zer hatxemaiten dakozute hobena?

Bere nahitan dea zaharturik ezkontzen dena?

Ontsa petsa afera hoi nungo jujeak dezake kondena?

Ez othe du oilar zaharrak egiten, saldarik hoberena?

Zirt, zart, Oxaldek errefera:

*Bo, bo bertzela dugu egungo sujeta:
Gizona ezkontziaz orhoitu adina juan eta;
Orai zuena tenora ibiltzeko emaztegai
keta?*

Debru gizon potreta!

Bardin pixa hemendik horrat ezin bota!!!

Sarako besta batez, bederatzi bertsulari, plan hari beharrak arratsaldean, elgarrekin zauden, edan eta kanta, orenaren beha. Ala bazkaritean ala bazkal ondoan, zerbait zerbait atherarik bazuten batzuek eta bertzek. Ixilik zagon Oxalde, lagunak pikoak onean onez hartzen zituela. Bazakiten lagunak etzela xaharra ostatutik plazarako bertsurik eman gabe, ez ordean nola zituen zortziak zakuan sartuko. Gazteak aski jostatu zirela zitzaionean iduritu, ezpainetarik eta begietarik irria zariola, hasi zitzaioten Oxalde: bederatzi bagira hemen; hea nork duen orai, bederatzien izenak barne, kobla bat botako? Eta

bertzeak, elgarri so, ezin mentura, ezin ausarta,
hor zaudelarik mutu, berak eman zuen kobla:

*Saran egun badugu bertsulari hanitz:
Katxo uztaritztarra, Beskoitzko Felitz;
Bettiri jatsuarra, hortik dago irriz;
Xetre Hazparnekoa, partida nik aldiz,
Anibar arin hiz;
Zuraidarrak berriz
Muske erakuts erhiz,
Xara mintzo lodiz,
Oxalde kantugile, zahar ez balitz!*

Hasian hasi , nola geldi?

*Oxalde, sortuz geroz, da bidarritarra,
Hanitzek dakitena, guarda zaharra;
Oraino bizi baita, ez du solas txarra,
Indarrez ahul eta gorphutzez meharra,
Konkortu bizkarra,
Eztitu sukharra,
Galdurik indarra,
Ez hala beharra,
Deskantsuan derama bizi ondarra.*

*Zaharretarik badut gauza hau entzunik:
Ez duila urguluak efetu onik;
Arropa merkeena dela kharionik,
Eta karioen hura azkenian merkenik;
Botigan badut nik
Kalitate finik,
Parisetik jinik,
Zuentzat eginik
Jauntzazue, ez baitu josteko lanik.*

Eta Kanboko bertze tobera batzuez kantatu
zuen prefazio hau?

*Perberiz, ereberiz, zerberiz,
Eskuaraz ala latinez bardin trebe niz.
Orai bainiz emaztegai bat harrapatzekotan,
Ikhusten nuzue debruen lanetan;
Alabainan,
Emazterik gabe ezin pasa lauetan hogoi
urthetan.
Lehenik miatuko niz Kanbo huntan,
Hemen ez badut hatxemaiten, Luhusoko
errekan.*

*Han ez badut egiten, Bidarriko mendie-
tan,*

*Han ez badut egiten, entseatuko niz Ban-
kan!*

Atx! Kukuso batek ausiki nu hankan!

Eta ene ezkontza debruek ereman!

Fermin Bidarriko harotza orhoit da, herrian
asto lasterrak zirela eta, Oxalde jujearen ahopal-
diez:

*Orai dira orai zinak eta minak,
Parisetik jinak!*

*Hemen Bidarriko neskato gaztiak,
Papillotak ederkisko eginak;*

*Menturaz, harantxet utzirik
beren pitzuntzi zikhinak!*

*Heldu zira, heldu zira jaun kurrierra,
Fier fierra,*

Eskuan daukazularik giderra.

*Juan behauzu Parisera,
Harakoan sartuko zira zakhurraren iphurtik,
Hunatekoen athera!*

Jostagura, jostakina, elhe lizun guti.

Biphilki mintzo, bainan minik ez egitekotan.

Bipherrada bizixkoa maite, saminegia ez.

Surik gabe zirakiken Oxaldek, zirakien ere noiztenka, erhotzerainokoan; pozoina etzarion Topet Etxahun bati bezala.

Ez duzue bidarritarraren bertsuetan barkox-tar Topeten kantorez hanturaz daukaten errabia, hoskin eta gaitzeristerik usnatuko. Dritxolariak behar duen ozarkeria doi hura; gehiagokorik ez.

Zibero gaineko mendiak ederragoak dira nabar pekoak baino; izigarriagoak ere ba.

Bidarrikoak baitute ordean gozo bat, legun bat Santa Grazikoek ez dutena.

Etxeko bizi az deus handirik ez daukunaz geroz salhatu Oxaldek, gauden gu ere ixilik. Amen-omenak funtsa mehe dik.

Eta orai goazin bertsulari famatuaren kantu zenbaiten ikhastera. Ez ditugu ez eskuara, ez herria, ez gure sinhestea mendratuko.